BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO
UNIBERTSITATE ESKOLA
INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOA: INDUSTRIA ELEKTRONIKA

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA

Kontrol esparruan ikasketa eta garapenerako oinarrizko ingurune praktiko, ireki eta askea

discrete_control, PID, real_time, matlab_simulink, xilinx_ise, fpga_spartan3

IKASLEAREN DATUAK	**ZUZENDARIAREN DATUAK**
UNAI MARTÍNEZ CORRAL	Koldo Basterretxea Oyarzabal koldo.basterretxea@ehu.es Teknologia Elektronikoa
SIN.:	SIN.:
DATA: 2013ko apirilaren 12a	DATA:

Gaien Aurkibidea

Irudien Zerrenda

Taulen Zerrenda

BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLA

INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOA: INDUSTRIA ELEKTRONIKA

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA

Anie - 1. Dokumentua: Memoria

IKASLEAREN DATUAK	**ZUZENDARIAREN DATUAK**
	Koldo Basterretxea Oyarzabal koldo.basterretxea@ehu.es Teknologia Elektronikoa
SIN.: DATA: 2013ko apirilaren 12a	SIN.: DATA:

Gurasoei, eta bihotzeko bigarren ama horri, Martari

"...hor egongo da begira.

Tú no nos diste el euskera,
pero nos diste la vida.
Nos llevaste a la ikastola,
aprendimos enseguida.
Ya es hora de que entiendas
el canto que nos motiva.
Esta txapela es tuya,
ay nire amatxu querida."

Xabier Paya
2006ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Gaien Aurkibidea

Irudien Zerrenda

Taulen Zerrenda

Ikurren Zerrenda

Letra larriak

$E(x)$	—	e seinalea x operadorearen menpe.
F_{cl}	—	Doitutako sistemaren banda-zabalera begizta itxian (jarraitua).
F_o	—	Plantaren elikadura seinalearen maiztasuna.
F_p	—	Plantaren banda-zabalera ($-3dB$).
F_{pwm}	—	PWM modulagailuaren erlojuaren maiztasuna.
F_s	—	Laginketa-maiztasuna, ${T_s}^{-1}$.
K	—	Hardwareak edo diseinuak baldintzatutako konstantea.
$K_{p,i,d}$	—	PID kontrolagailuaren irabazi finkoak.
P, I, D	—	*Matlab* lan-eremuan adierazitako PID jarraituaren irabaziak.
S	—	Sistema jarraituak lantzeko domeinu konplexua.
T_c	—	Sistemak kontrol begizta egikaritzeko behar duen denbora tartea.
T_f	—	PID-aren adierazpen jarraitu inpropio osoaren iragaziaren parametroa.
$T_{i,d}$	—	Hurrenez hurren, $\frac{K_p}{K_i}$ eta $K_p \cdot T_d$.
T_s	—	Laginketa-periodo finkoa.
$U(x)$	—	u seinalea x operadorearen menpe.
$U_{p,i,d}$	—	Gainezarmena aplikatuz kontrolagailuaren adar bakoitzeko U-ren osagaia.
$Y(x)$	—	y seinalea x operadorearen menpe.
Z	—	Sistema diskretuak lantzeko domeinu konplexua.

Letra xeheak

bp	—	*binary-point* (koma bitarra).
e	—	Kontrolerako errore-seinale jarraitua: $r - y$.
dc	—	*duty-cycle*, PWM seinalearen lan-erregimena.
k	—	Diskretizatutako seinalearen lagina.
r	—	Kontrol begiztaren erreferentziako seinalea (jarraitua).
s	—	S domeinuko operadorea.
u	—	Kontrolagailuaren irteerako seinalea (jarraitua).
$u_{p,i,d}$	—	Gainezarmena aplikatuz kontrolagailuaren adar bakoitzeko u-ren osagaia.
wl	—	*word-length* (hitzaren luzera).
y	—	Plantaren irteerako seinalea (jarraitua).
z	—	Z domeinuko operadorea.

Letra grekoak

ω	—	Abiadura angeluarra.
Θ	—	Fasea.

Akronimoak

ADC	—	*Analog-to-Digital Converter.*
ADQ	—	*Data AcQuisition.*
APES	—	*AdaPtive Electronic Systems* ikerketa-taldea.
ARM	—	*ARM Holdings* konpainia britaniarraren *RISC* egituran oinarritutako mikroprozesadore familia.
ASM	—	*Algorithmic State Machine.*
CPU	—	*Central Processing Unit.*
DAC	—	*Digital-to-Analog Converter.*
DCM	—	*Digital Clock Manager.*
FPGA	—	*Field Programmable Gate Array.*
FROH	—	*FRactional Order Hold.*
FSM	—	*Finite State Machine.*
HIL	—	*Hardware-In-the-Loop.*
HW	—	*Hardware.*
KAP	—	*Karrera Amaierako Proiektua.*
LCD	—	*Liquid Crystal Display.*
PID	—	*Proportional Integral Derivative.*
PWM	—	*Pulse Width Modulation.*
SW	—	*Software.*
SysGen	—	*Xilinx*en *System Generator for DSPs.*
VGA	—	*Video Graphics Array.*
VHDL	—	*VHSIC Hardware Description Language.*
VHSIC	—	*Very High Speed Integrated Circuit.*
x86	—	*Intel 8086* CPUan oinarritutako mikroprozesadore familia.
ZI	—	*Zirkuitu Integratua.*
ZOH	—	*Zero Order Hold.*

1.
Sarrera

Txosten honek, **U**niversidad del **P**aís **V**asco / **E**uskal **H**erriko **U**nibertsitateko[1] **Bi**lboko **I**ndustria **I**ngeniaritza **T**eknikoko **U**nibertsitate **E**skolan[2], Industria Elektronikan berezitutako Industria Ingeniaritza Teknikoa titulazioaren azken urratsa den *Unai Martinez Corral*ek garatutako Karrera Amaierako Proiektuaren memoria osatzen du.

Proiektuaren hazia, benetako denborak (*real-time*) ezartzen dituen mugak errespetatuz begizta itxian aritzen den kontrolagailuaren garapena helburu, *Koldo Basterretxea Oyarzabal* irakasleak jarri zuen, Teknologia Elektronikoa Departamentuko[3] eta **A**da**P**tive **E**lectronic **S**ystems[4] ikerketa taldeko kide denak; eta berak gainbegiratu ditu oso pixkanaka eman diren urratsak.

1.1. Helburuak

1.1. irudiak adierazten duenez, eta 4A. eranskinean zehaztasunez azaltzen denez, *Anie* proiektua ingurune handiagoa den *Pierre St. Martin*en atala da, eta ondorengoa da helburu nagusia:

Benetako denborak aginduta, kontrolagailu jarraituaren erantzun baliokidea duen kontrol-sistema digital modularra, txertatua eta autonomoa FPGA batean inplementatzea eta kontrola gauzatzea.

Zehaztasunean behera, prozedura kronologiko teorikoak bigarren mailako hurrengo helburuak ezartzen ditu:

- Korronte zuzeneko motorra [1] azterketa kasu, plantaren modelo ahalik eta egiazkoa lortzea (sarreren/irteeren moduluak barne).
- Kontrolagailua doitzea eta modelo diskretuarekin ezberdintasunak aztertzea.
- Autonomia bermatzeko, monitorizazio eta kontrolerako modulu periferikoak deskribatzea (VGA, LCD, etab.).
- Sistema parametrizatu eta erabilerraza garatzea.
- Arkitektura ezberdinak konparatzea: konbinazional hutsa, erregistroetan oinarritutakoa, VHDL kodea, *System Generator* blokeak, mikrokontrolagailu/mikroprozesadoreak...

Ingurunearen diseinurako baldintzen arabera, erabilera errazteko, ahal den heinean, sistemaren osagai guztiak parametrizatuta daude. Trebakuntza-denbora aurrezteaz gain, hardwarea sakonean ezagutzen ez duenari diseinuan moldaketa txikiak egiteko aukera emateko.

[1] www.ehu.es
[2] www.industria-ingeniaritza-tekniko-bilbao.ehu.es
[3] det.bi.ehu.es
[4] www.ehu.es/apes



1.1. Irudia: Pierre St. Martin *ingurunearen helburu, atal eta tresnak.*

Azterketa eta ulertzea argitzeko, eta proiektuaren izaera praktikoak aginduta, abstrakzio-maila gorenetik hasita eta erregistroetara heldu arte urratsez-urrats azalduko dira aldaketak. 1.2. irudiak adierazten du proiektuaren mamiak zein esparru hartzen duen egituraren, jokaeraren eta inplementazio fisikoaren ikuspuntuetatik.

Badago *Pierre St. Martin* ingurunean zeharkako proiektu bat, informazioaren sostenguak baldintzatzen dituenak: inguruneari dagozkion dokumentazio eta iturri guztiak, ahal den heinean, estandarrak diren formatuetan gordeko dira, ez denboraren poderioz hedatuenetan.

Besteak beste, irakurleak eskuartean duen dokumentua egiteko LaTeX[5] baliatuz Bilboko IITUEen Karrera Amaierako Proiektuak aurkezteko jarraitu beharreko maketazio-argibideak betetzen dituen txantiloia egin da[6].

[5] `itsas.ehu.es/workgroups/latex`

[6] 4B. eranskinean ITSASeko web-gunean LaTeX lan-taldearen *Euskaraz* atalean txantiloiaren txostena dago.



1.2. Irudia: *Gajski-Kuhn Y-grafikoan proiektuaren abstrakzio-maila.*

1.2. Abiapuntua

2005ean, MODPC.com orrialde eta taldeko kideen argibideak jarraituz, Ikastolako Teknologiako irakaslearen babesarekin, bedelaren ezinbesteko laguntzarekin eta familiaren pazientzia tenkatuz, insoladora bat eskuz egin nuen [2]. Horrekin, ordenagailua ikuskatu eta kudeatzeko plaka diseinatu, egin eta muntatu nuen. Disko gogorraren jarduera adierazteko LM3914 ZIak agindutako 20 LED, LPT ataka medio informazioa aurkezteko Nokia 3310 sakelakoaren pantaila, eta haizagailu eta argiak kudeatzeko kommutadore eta erresistentzia aldakorretan oinarritutako zirkuitua biltzen zituen.

2009an, *Koldo Basterretxea Oyarzabal* irakasle nuela, *Eragingailu Logiko Programagarriak Dituzten Sistema Digitalak* ikasgaian *Aitor Martin*ekin batera hurrengo urratsa garatu nuen: Ordenagailu Haizagailuak Kontrolatu eta Ikusteko Sistema (OHKIS) [3]; Spartan3E Starter Kit txartela erabilita lau ordenagailu haizagailu LCD eta VGA bitartez ikuskatu eta begizta irekian PWM irteerak ezartzeko sistema.

2010-2011 bitartean mikrokontrolagailu ezberdinekin garapenak egin nituen Ferroleko Unibertsitate Eskola Politeknikoan[7] egindako *Industria Informatika* ikasgaian eta Bilboko IITUEn *Ordenagailu Pertsonalaren Erabilera Paneleko Instrumentazioan* ikasgaian.

2012an, *Sistemas Digitales en la Medida y Control de Procesos Industriales* ikasgaian *Luis Ranero Santisteban* eta *Iñigo Sarramian Olmos*ekin *National Instruments*en *Labview* softwarea baliatuz benetako denboran lan egiten duen PID kontrolagailuan oinarritutako begizta osatu eta 6 V-eko motorra PWM bitartez kudeatu genuen [4].

Ezinbestean, *Anie/Auñamendi* KAPak aurreko guztiak biltzen ditu. 2009ko OHKIS oinarri, hazia *Koldo Basterretxea*k jarri zuen, berak egin baitzidan garapena ildo honetatik jarraitzeko gonbitea. Era berean, bera izan da azken urte luze hauetan mantso-mantso eman ditudan

[7] `lucas.cdf.udc.es`

urratsen gainbegiralea, pazientziaren etengabeko apologian.

2008tik hona garatutako proiektu guztietan[8] kideekin lana koordinatzeko, eta nirea antolatu eta planifikatzeko hainbat plataforma erabili izan ditut, esaterako, *sourceforge.net* (ZTPK, OHKIS, ohkis-gtk), *laforja.rediris.es* (BμC), lokalean instalatutako *Subversion* (Acher) edo *Dropbox* (SDM).

*Anie*ren garapenerako *sourceforge.net* erabiltzen da, OHKIS eta ohkis-gtk gordetzen dituen proiektu berdinean (nahiz eta web-gune nagusian adierazgarri berezirik ez egon):

ohkis.sourceforge.net

Sostengua ematen duen *Allura*[9] plataformak esparru berdinean web-gunea, fitxategien bertsio-kontrola egiteko *Git* edo *Subversion*, eztabaida-guneak, tiket-kudeatzailea, wikia, etab. biltzen ditu.



1.3. Irudia: *Garapenean erabilitako* Subversion *zerbitzarira egindako bidalketak (*commit - ci*).*

Benetako denborak ezartzen dituen mugak errespetatuz begizta itxian aritzen den kontrolagailuaren garapena helburu zuen lana Galiziatik bueltan hasi nuen, 2010eko irailean. 1.3. irudian argi ikus daiteke beste proiektuetan emandako denborak garapenean izan duen eragina. Urte luze batez metodologia barneratzen eta ezagutza-gabeziak osatzen eman ostean, azken bederatzi hilabetetan pilatu dira kodearen garapena eta dokumentazioa egitea.

Bi urte baino gehiagoren buruan proiektuak hainbat moldaketa izan ditu, eta bitartean egin izandakoek izaera orraztu dute. Desagertzear dagoen nik egindako ikasketa-planean *Sistema Digitalak* lerroa hiru ikasgaiek osatzen dute:

1. Eragingailu Logiko Programagarriak Dituzten Sistema Digitalak
2. Ordenagailu Pertsonalaren Erabilera Paneleko Instrumentazioan
3. Sistemas Digitales en la Medida y Control de Procesos Industriales

Txostenetan idatzitakoa alde batera utzita, ikaslearentzat azkeneko bi ikasgaietan landutakoen arteko erlazioa zuzena eta argia da. Bietan erabiltzen da *Labview* eta erraz antzematen

[8] Ikus 4A. eranskina.
[9] sourceforge.net/projects/allura

dira instrumentazio birtualaren eta kontrol-teoriaren arteko lotuneak. Oso abstrakzio-maila altuko ingurunea izanik, ordea, hardwarearekiko erreferentzia-zuzena galtzen da, fedea lantzera behartuz.

Proiektu honek lehenengoaren eta hirugarrenaren arteko zubia izan nahi du, benetako denboran aritzeko mugak maila baxuan aztertzeko aukera emanez, eta datuen kudeaketan egin beharreko aukeraketa kritikoak plazaratuz.

Aldi berean, *Pierre St. Martin*en baitan, gehiegizko espezializazioaren ondorioz hezkuntzan zentzugabeko oztopoa deritzodan gabezia bete nahi du: sistema elektroniko digitaletan ingeniaria izan nahi duen ikasleak aldi berean FPGAk, mikrokontrolagailuak, mikroprozesadoreak eta elkarren arteko komunikazioa maila baxuan ulertu eta kudeatzeko gai izatea.

1.3. Deskribapen orokorra



1.4. Irudia: *Sistemaren osagai nagusiak eta elkarren arteko funtsezko informazio-fluxuak.*

1.4. irudiak adierazi bezala, sistema bost oinarrizko osagaitan deskribatu da funtzionaltasunaren arabera:

- **Timing:** txartelaren 50 MHz-eko erloju seinalean oinarrituta, FPGAk dituen DCMak eta kontagailuak erabilita, beste osagaiek behar dituzten maiztasunetako seinale periodikoak sortzea.
- **Man:** erabiltzaileak sistema kudeatu (erreferentzia-seinalea sortzea) eta aldagaiak ikuskatzeko interfazeen kudeaketa (sakagailuak, kodetzaile birakaria, LCD, VGA, etab.).

- **Input:** plantaren kontrolatu nahi den aldagaia irakurtzea eta kontrolagailuaren berrelikadura seinalea sortzea.
- **PID:** kontrolagailua.
- **Output:** PIDaren irteeraren arabera eragingailuaren agindu seinalea sortzea (DAC, PWM, etab.)

Plantaren arabera sarrerako/irteerako osagai ezberdinak inplementatzea beharrezkoa bada ere, azterketa kasu guztietako sistemek hainbat osagai komun dute: aukeratutako txartelaren erlojuan oinarritutako maiztasun ezberdinak sortzea, esaterako. Hori dela eta, azterketa kasua edozein dela ere moldaketa errazteko, plantarekiko menpekotasunik ez dituztenak (*PID*, *Man -LCD* eta *VGA* barne- eta *Timing*) banaturik landu dira. Azterketa kasuak garatzean planta zehatzek behar dituzten gehikuntzak egin dira, izaera modularrari eskerrak.

1.4. Metodologia eta erabilitako tresnak

1. Begizta osatzen duten elementuen modelo matematikoak aztertzea, aukeratzea eta parametroak identifikatzea.
2. Konputagailuz burututako simulazio numerikoaz sistema osoaren modeloa balidatzea eta PID kontrolagailu jarraitua doitzea.
3. PID kontrolagailu diskretuaren egitura aukeratzea eta laginketa-maiztasunaren ikasketa burutzea.
4. Arkitektura ezberdinetan kalkuluak koma finkoan egiteko adierazpenak aukeratzea.
5. Bit-zehatza eta ziklo-zehatza den simulazio ingurunean modelo ezberdinen erantzunak konparatzea.
6. Sintesirako, mapa egiteko eta diseinua inplementatzeko software ingurune integratuan PID kontrolagailua VHDL lengoaian deskribatzea.
7. Sistema osatzeko, egoera finituko makinetan (*Máquina de Estados Finitos, MEF, edo Finite State Machine, FSM*) eta erregistroetan oinarritutako modulu periferikoak deskribatzea: kodetzaile inkrementalbirakariak, PWM modulagailua, H-zubia babesteko logika, VGA, LCD...
8. Sistema balidatzea
   (a) *HW/SW co-simulation* (*blackbox*).
   (b) *HW-in-the-loop* (*HIL*) (*blackbox*).
   (c) Sistema erreala balidatzea (parametroen identifikazioa, doiketa eta azkeneko frogak).

Sistema osoa *Digilent*en[10] **Spartan3E Starter Kit** txartel bakarrean inplementatu baino lehen, azterketa arindu eta errazteko, simulazioan oinarritu da garapena; eta begizta osatzen duten elementuak identifikatu eta modelatu dira horretarako.

Modeloak *Laplace*ren S domeinuan baliatuta, *Mathworks*en[11] **Matlab/Simulink** ingurunean PID kontrolagailua doitu da. Modelo jarraitutik abiatuta, eta beti erreferentzia- izanik, kontrolagailuaren egitura diskretua eskuratu da, Z planoan adierazita. Modelo digitala osatzeko laginketa-maiztasuna eta koma finkoko aritmetikak agindutako hitz-luzerak ezarri dira. *Xilinx*en[12] **System Generator** bitartez, *Matlab* eta **ISE/ISim** lotuz, liburutegiko blokeak zein idatzitako VHDL kodea erabilita deskribatutako kontrolagailuen erantzuna aztertu da. Erreferentziarekiko erantzunen konparaketa oniritzitakoan, tresna berdinak medio, hardware ko-simulazioa burutu da helburuko plataformarekin.

Sistemak helburuak bete ditzan plantarekiko menpekotasunik ez duten moduluak VHDL lengoaian deskribatu dira (LCD, VGA, sakagailuak, kommutadoreak, etab.). Azterketa kasuaren, *Alecop, S. Coop*ren **MV541** maketaren, araberako sarrerako/irteerako osagaiak egin dira azkenik, eta plantaren araberako doiketa eta parametrizazioa ezarri. Hauekin, alde batetik oinarrizko sistema (VGA gabekoa) eta bestetik aukera guztiak dituena sintetizatu dira.

Inplementazioek ezarritako helburuak eta azterketa teorikoan adierazitako mugak betetzen dituztela baieztatu ostean, eta praktikan kontrola zuzena izanik, emaitzak aztertu dira (hala nola, erabilitako azalera eta prozesatze abiadura mugak). Azkenik, *System Generator*en kodea zuzenean sortzeko aukeraren inplementazioaren emaitza zuzenean VHDL lengoaiaz garatutakoarekin konparatu da.



1.5. Irudia: *Garapenerako erabili den* Xilinx*en* Spartan3E Starter Kit *txartela.*

[10] www.digilentinc.com
[11] www.mathworks.com
[12] www.xilinx.com



1.6. Irudia: *Garapenean jarraitutako metodologiaren fluxu-diagrama.*

1.5. Dokumentazioaren antolaketa

Araua jarraituz dokumentu bakoitzak dagozkion aurkibide eta zerrenda osoak dituenez, 0. Dokumentuak lehen mailako atalak baino ez ditu adierazten, irudi eta taula guztien zerrendekin batera.

1. Dokumentuak azaldutako metodologiak agindutako ordenean lantzen ditu jarraitu diren urratsak:

Teknikaren egoera aurkeztearekin batera, azterketa eta garapena modeloen simulazioan eta hardware ko-simulazioan oinarrituko dela ondorioztatuz, helburuko plataforma gisa *Spartan3E* FPGA aukeratzearen arrazoiak agertu dira lehenengo. Abio puntua argi, plantak identifikatu eta hauen portaera modelatzen duten adierazpen matematikoak lortzeko prozedurak azaldu dira.

Zuzeneko motor baten erantzuna adierazten duen transferentzia-funtzioa adibide gisa erabiliz, eta *Matlab/Simulink* softwarea baliatuz, blokeez osatutako denbora jarraituan begizta itxiko sistema osoaren modeloaren garapena azaldu da. PID kontrolagailuak izan ditzakeen egituren arteko hautaketa burutu eta S planotik Z planora bihurketa egin da. Denbora diskreturako aldaketak atxikitzailea gehitzea behar du, eta daudenetan ZOH motakoaren hautaketa arrazoitzen da ondoren. Era berean, atxikitzailea aginduko duen laginketa-maiztasuna baldintzatzen dituztenak aztertu dira, benetako denboran arituko den sistema garatu dela kontuan izanda. Kontrolagailuaren ereduzko parametroak ezarri dira oinarrizko sistema erabilgarria osatzeko.

Kontrolagailuaren barne eragiketak koma finkoan burutzearen zergatia argudiatu eta *Xilinx/System Generator* baliatuz sistema barnean erabilitako hitz-luzerak aztertu dira ere, zehaztasunean eta portaeran berebiziko garrantzia baitute. *Xilinx/ISE* softwarea erabiliz eskuratutako modeloa VHDL lengoaian deskribatzeko jarraitutako pausuak erakutsi dira. Proiektu honen zutabe garrantzitsua Z planoan adierazitako transferentzia funtzioak hardwarera bihurtzea izanik, zehaztasun osoarekin azaldu da kontrolagailuaren deskribapena. *Hardware-in-the-loop* bitartez simulatu eta aurreko guztiekin eta oinarrizko denbora jarraituko ereduarekin konparatu da, bihurketa pausu ezberdinetan emandako aldaketek eragindako portaera ezberdintasunak aztertzeko.

Zehaztapenak betetzen dituen kontrolagailua egina, *Xilinx*en *Spartan3E Starter Kit* garapen txartelak eskainitako baliabideez, autonomia, modularitatea, hiztunkeria eta erabilerraztasun baldintzak betetzeko garatutako osagaien deskribapenak esplikatu dira: LCD, VGA, sakagailuak, etab. Edozein plantarekin erabili daitezkeenak, beharreko parametroak aldatuta.

Azterketa kasuetan, eskuragarri dauden sentsore eta eragingailuetan oinarrituta, planta ezberdinak kudeatzeko ebatzitako sarrerako/irteerako osagaiak eta VHDL lengoaian eraikitako logikak deskribatu dira. Planta aurreko ataletan adierazitakoen arabera modelatu eta identifikatu da, PID kontrolagailua doitu eta laginketa-maiztasuna ezarri, eta parametroak aldatu dira. Azterketa esperimentalen bidez garatutako sistemaren portaera zuzena dela egiaztatu da.

2. Dokumentuak azterketa kasu bakoitzean plantaren identifikatutako modeloa eskuratzeko jarraitutako pausuak (hartutako neurketak eta egindako kalkuluak) azaltzen dira. Inplementa-

zioen ezaugarri zehatzak ere biltzen ditu: egikaritze denbora, erabilitako azalera eta xahututako potentzia. Bertan azaltzen dira garapenerako zerbitzariaren erabilera-estatistikak, *Subversion* bertsio-kontrol-sistemarenak eta *Allura* tiket-kudeatzailearenak.

Irakurleak sistema osotasunean eta maila baxuenean aztertu ahal izateko 3. Dokumentuan erabilitako iturriak daude komentatuta, bai *Matlab script*ak, bai VHDL deskribapenak. 4. Dokumentuan *Pierre St. Martin* inguruneari dagozkion zehaztasunak eta lizentzien hitzez-hitzeko kopiak daude.

5. Dokumentuan edukien eta iturrien erabilerarako baldintzak azaltzen dira. Aldi berean, erabilitako iturri eta baliabideen jatorria aitortzen da bertan. Baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoek osatzen dute dokumentua.

Garapenean emandako denboraren eta erabilitako tresnen zein gailuen aurrekontua 6. Dokumentuan dago adierazita. Proiektuaren egitura dela eta, bi zerbitzu ezberdinen agiriak eskaintzen dira: garapen osoa eta azterketa kasu berria lantzea.

Iturri, maila eta izaera orotako biltegi bibliografikoa bildu da 7. Dokumentuan, landutako esparruak duen garrantziaren, historiaren eta gaurkotasunaren adierazgarri. Ezagutza ezberdineko irakurleek ere erregistro ezberdinak eskura izan ditzaten.

Azkenik, dokumentuokin banatutako CDak aurreko guztiak biltzen ditu: *Simulink* modeloak, VHDL eta M iturriak, inplementazioen txostenak, testu eta irudien iturriak, lizentzien kopia, txantiloiaren iturriak, etab. Era berean, aipatutako web-gunean proiektuaren fitxategi guztiez gain, aldiro emandako aldaketak daude eskuragarri.

2.
Teknikaren egoera eta ebatzien azterketa

*Åström eta Murray*k [5, ch. 1] bikain azaltzen dute berrelikatutako sistemen eta kontrolaren garrantzia, naturan aurkitu daitezkeen prozesu biologikoetatik hasita eta espazioan dabiltzan *Curiosity*[13] bezalako makinak barne.

*Laplace*ren S espazioan transformatuen bitartez definitutako *kontrol klasikoa*n PID kontrolagailuak berebiziko garrantzia izan du, egitura sinplea izanik baliabide gutxiko inplementazio erraza behar duelako. Honen adierazgarri da autore gehienek atal zehatzak garatzea, aipatutako *Åström eta Murray*k [5, ch. 10] esaterako, edo *Kuo*k [6, ch. 10].

Sistema digitalen agerrerarekin eta hauekin lotutako teknologiaren garapenarekin batera izaera diskretua duten egoera-espazioan (*state-space*) modelatzeko sistemak agertu dira, *kontrol moderno* deritzoten metodoak bilduz eta Z plano diskretuan. Hainbat urtetan kontrol digitalak PID jarraituen egitura zurrun eta sinpleak balio ez zuen sistema konplexuetan erabili izan dira soilik.

Egun, ordea, PID elektroniko gehienak teknologia digitalean eskaintzen dira. Honek komunikaziorako moduluak integratzea edo diseinuak parametrizatzea ahalbidetzen du. Aldi berean funtzio konplexuagoak ere garatzeko aukera eskaintzen dute, hala nola, auto-doiketa (*autotuning*) edo urrunetiko ikuskapena.

Espazio jarraituari buruzko eskuragarri dagoen bibliografia eta ikerketak baliatu ahal izateko, eta aldi berean integrazio eta parametrizazioa bermatzeko, kontrolagailu jarraituaren erantzun baliokidea duen sistema digitala garatu da. Baliokidetasuna eta *kausalitatea* ziurtatzeko, *benetako denbora* kontzeptuak ezarritako mugak bete dira, laginketa eta egikaritze denbora baldintzatzen dituztenak.

Mikroprozesadoreak (x86/PPC/ARM), automata programagarriak (PLC), mikrokontrolagailuak, FPGAk eta osagai diskretuetan oinarritutako diseinuak erabiltzen dira kontrol begiztak inplementatzeko. Sistema handiagoekin integrazioa denek bermatzen badute ere, baliabideen eta beharreko potentziaren ikuspuntutik ezberdintasun handia dago. Inplementatzeko FPGA plataforma aukeratu da, azkeneko hauek, lan-abiadura maximoa eta konputazio ahalera aintzat hartuta.

Autonomiaren ikuspuntutik, baliabideen beharra presente izanik, mikrokontrolagailuak edo ARMak ere maila berean daude. Baina, horiek ez bezala, FPGA sistemek kontrol begiztan abiadura handiagoak erdiestea ahalbidetzen dute, hardware konfiguragarritasuna baliatuz, egitura finkoa baino paralelismo fisikoa indartuz. *Arduino* proiektuko PID liburutegiak[14], adibidez, 200 ms inguruko laginketa-maiztasunak jartzen ditu eredutzat, eta proiektu honetan 1 ms-tik beherakoak erdiestea da xedea.

[13] en.wikipedia.org/wiki/Curiosity_(rover)
[14] playground.arduino.cc/Code/PIDLibrary

***Xilinx*en gailuak:**	**Konektore eta interfazeak:**
Spartan-3E FPGA (XC3S500E-4FG320C)	Ethernet 10/100 Phy
CoolRunner™-II CPLD (XC2C64A-5VQ44C)	JTAG USB download
Platform Flash (XCF04S-VO20C)	2x 9-pin RS-232 serial port
Erlojuak:	PS/2, rotary kodetzaile with push button
50 MHz crystal clock oscillator	4x Slide switches
Memoria:	8x Individual LED outputs
128 Mbit Parallel Flash	4x Momentary-contact push buttons
16 Mbit SPI Flash	100-Pin expansion connection ports
64 MByte DDR SDRAM	Three 6-pin expansion connectors
	16 character - 2 Line LCD

1.3. Taula: Spartan3E Starter Kit *txartelaren osagaiak.*

Spartan3E Starter Kit Board[15] aplikazio orokorrerako txartela da eta, 1.3. taulak adierazten duenez, sarrera/irteera ezberdinak inplementatzeko eta komunikazioa garatzeko baliabide ugari ditu. 2008-2009 ikasturtean egindako *Eragingailu Logiko Programagarriak Dituzten Sistema Digitalak* ikasgaian txartela erabili izanagatik eta eskura izateagatik, hau izan da inplementaziorako plataforma. Helburua kontrolagailuaren garapena izanik, hardwarearen ondorioz eman litezkeen arazoak murriztea hobetsi da, produktu komertzialak erabiliz.

Edonola ere, *Mathlab/Simulink* edo *NI/Labview* inguruneetako tresnek abstrakzio-maila altuko garapen-fluxua dute eta instrumentaziorako zein prototipoak azkar egiteko paregabeak dira. Diseinuak abstrakzio-maila baxuko sistemetara (C, VHDL, etab.) bihurtzeko algoritmoak dituzte, ADQ txartelak, mikrokontrolagailuak zein FPGAk erabiltzeko. Proiektuaren helburua kontrolagailuaren garapena izanik, teknika hauek ulermenean laguntzeko erabili dira.

Azken urteetan *MaKey MaKey*[16], *littleBits*[17], *Arduino*[18] edo *Raspberry Pi*[19] bezalako proiektuek berebiziko gorakada izan dute. Alderdi teknikoan aurrapen aipagarririk ekarri ez badute ere, teknologia ezagutza handia ez dutenei gerturatzeko grinak eta esparru horretan tresnen erabilera errazten eta dokumentazioa osatzen egindako lanak erantzuna aurkitu du mundu mailan.

Aurrekoek, *Arduino*k eta *Raspberry Pi*k bereziki, teknologia ezberdinetan aritzeko gertuko ekosistema[20] osatzen dute. Mikroprozesadoreek, mikrokontrolagailuek eta osagai diskretuek badute tokia ekosisteman, baina ez dago pareko FPGA proiekturik.

Badira *OpenCores*[21] bezalakoak, baina ezagutza maila aurreratua eskatzen dute. *Altera*k ere diseinu adibideak eskaintzen ditu VHDL[22] zein Verilog[23] lengoaietan. *Xilinx*ek, aldiz, txer-

[15] xilinx.com/products/boards-and-kits/HW-SPAR3E-SK-US-G.htm
[16] makeymakey.com
[17] littlebits.cc
[18] arduino.cc
[19] raspberrypi.org
[20] radikaldesig.com/2012/05/18/raspberry-pi-arduino-un-nuevo-ecosistema/
[21] opencores.org
[22] altera.com/support/examples/vhdl/vhdl.html
[23] altera.com/support/examples/verilog/verilog.html

tatutako mikrokontrolagailuen[24] sostengu gisa aurkezten ditu, *hard-soft co-design* deritzona [7].

Epe luzean, aurreko paragrafoan aipatutakoak erabileran erraztasuna bermatzeko itxuraldatuta aurkeztea da kriseilua. Adibide zehatz, azkar eta deigarriak garatzeko xedeaz, azterketa kasuen garapenean horiek izango dira buruan, praktika gisa burutu ahal direnak.

Fritzing[25] azkeneko aplikazio gisa aproposa bada ere, egun ez du FPGA txartelentzat sostengurik, ezta integratuentzat. Produktuara heldu arteko bideak azterketa sakonagoa behar du, plaka merke autonomoa edo *shield* bat garatu artekoak. *Fedora Electonic Lab*[26] *GNU/Linux* sistema eragileak garapenerako etapa guztiak burutzeko tresnak biltzen ditu, baina hauek ez dira erabat integratuta azaltzen eta erabilera ez da azkarra.

*Mathworks*ek *Matlab/Simulink*ekin eta *Xilinx*ek *ISE/System Generator*ekin ingurune paregabea eskaintzen dute. Abstrakzio-maila altuenetik (interfaze grafikoa eta blokeez adierazitako osagaiak) baxuenera (VHDL) lan egitea ahalbidetzen dute, eta bitarteko konbinazio anitz ere. Aukeratutako txartelarekin hardware ko-simulaziorako argibide zehatzak ere badituzte eta ezagunak dira aipatutako ikasgaian eta *Erregulazio Automatikoa*n erabili izanagatik.

Laburbilduz, PID kontrolagailudun begizta itxiko kontrol-sistema digitala *Spartan3E Starter Kit* txartelean inplementzea aukeratu da eta garapenerako *Matlab/Simulink* eta *ISE/System Generator* erabiltzea.

[24] xilinx.com/products/boards/s3estarter/reference_designs.htm
[25] fritzing.org
[26] spins.fedoraproject.org/fel/

3.
Plantaren modelatzea eta identifikazioa

Proiektuaren garapena modeloen simulazioan oinarritu den heinean, landutakoek errealitatearekin ahalik eta erlazio zuzenena izan dezaten berebiziko garrantzia du modeloak lortzeko prozedurak aztertzeak.

*Aguado et. al*ek [8] azaldu bezala, *prozesuen identifikazioa* deritzon terminoak, baldintza berdinetan (sarreran aldagai multzo berdina izanik) kontrol automatikorako zehaztasun nahikoarekin sistema erreal baten irteera aldagaien erantzuna errepikatzen duen modelo matematikoaren egitura eta parametroak lortzeko algoritmo, teoria eta ikerketak biltzen ditu.

Ikuspuntuaren arabera, prozesuen helburuak ezberdinak izan daitezke. Honela, diseinu eta garapenean zehar balioztatzeko prozesuaren simulazioa burutzeaz gain, *online* edo *airean* deritzen kontrolagailuen parametroak identifikazio jarraituaren emaitzen arabera moldatu daitezke (*autotuning*). Era berean, zenbait algoritmotan etor daitezkeen seinaleen balioak aurreikusteko erabiltzen dira, hala nola, *Smith*en *predictor*a.

Helburuen arabera identifikaziorako metodo anitz daude. Oinarrizkoa azterketa analitikoa da: prozesuaren erlazio fisiko-kimikoak oinarri ditu eta ekuazio zinematikoak, dinamikoak, masa balantzeak, energia balantzeak, etab. aztertzean datza. Honela, modelo konplexuak eta ez-linealak lortzen dira askotan, eta prozesuaren teknologiaren ezagutza handia eskatzen du. Identifikazio esperimentalak, ordea, sarreran seinale ezagunak (maila sarrerak, maldak, sinusoidalak, inpultsuak, sasiausazko sekuentzia bitarrak...) erabilita modeloa epe laburragoan lortzea ahalbidetzen du.

Identifikazio esperimentalak praktikan arazoak sortu ditzake informazioa eskuratzeko plantaren funtzionamendua asaldatu behar delako. Badaude eragina zeharo murrizten duten metodoak, baina zenbaitetan ezineskoa gertatzen da prozesua gelditu barik saiakuntzak burutzea. Era berean, modelo deterministikoak eskuratzen dira, eta ondorioz, ez dituzte kanpoko asaldadurak (zarata) kontuan hartzen.

Proiektuaren helburua kontrol-sistemaren hardware garapena izanik, plantaren identifikazioa zeharkakoa da; eta egin den lehenengo azterketa kasua korronte zuzeneko motorra duen maketa denez, saiakuntza esperimentalek zehaztasun nahikoa ematen dute. Sistema txertatuan baliabideen erabileraren optimizazioa gogoratuz, hauetan sinpleena maila sarrerari erantzuna da. *Laplace*ren S domeinuan adierazitako esponentzial eta senoidalen bidez osatutako lehen eta bigarren ordeneko modelo anitz lortu daitezke erantzuna aztertuz.

3.1. Lehen ordeneko transferentzia funtzioa

Korronte zuzeneko motorra egitura fisikoak baldintzatuta izaera integratzailea izateagatik[27], begizta irekian egonkorra da eta erantzunaren izaera esponentziala da. Lehenengo ordeneko

[27] Aldaketa bortitzei erantzun azkarra ematen ez diena.

transfrentzia funtzio bat erabili daiteke, beraz. Sarreran aldaketa gertatzen denetik plantan lehenengo erantzuna antzeman arte atzerapena gertatu daitekeenez (aginduek sisteman zehar hedatzeko behar duten tartea adibidez), bi modelo ezberdin aurkezten dira:

$$\textbf{F}\text{irst }\textbf{O}\text{rder }\textbf{T}\text{ransfer function:} \qquad \frac{K}{\tau s + 1}$$

$$\textbf{F}\text{irst }\textbf{O}\text{rder }\textbf{P}\text{lus }\textbf{D}\text{elay }\textbf{T}\text{ransfer function:} \qquad \frac{K}{\tau s + 1} e^{-\alpha s}$$

Azterketa kasuen 8.1. atalean adierazten denez, erabiliko diren sarrerako/irteerako interfazeek ere plantaren erantzunean dute eragina. Azterketa kasu bakoitzaren menpekoak direnez, horiek erabilita egingo da identifikazioa, plantaren transferentzia funtzioak dinamika guztien eragina bilduko duelarik.

Ageriko baldintza nagusia inplementatuko den kontrolagailua diskretua izatea da. *Aguado et. al*ek [8, pp. 15-16] azaldutako eta Z planoan adierazitako FODT funtzioak T_s laginketa-periodoaren eragina hartzen du kontuan:

$$\textbf{D}\text{iscrete }\textbf{F}\text{irst }\textbf{O}\text{rder }\textbf{P}\text{lus }\textbf{D}\text{elay }\textbf{T}\text{ransfer function:} \qquad z^{-\text{round}(\frac{\alpha}{T_s})} \frac{\frac{K \cdot T_s}{\tau}}{z - e^{\frac{-T_s}{\tau}}}$$

Matlab/Simulink inguruneak, aurreko adierazpen matematikoez gain, identifikazio analitikoan oinarritutako modeloak adierazteko hainbat bloke ditu, fabrikatzaileek emandako informazioa, ezaugarri-orrietan adierazitako parametro mekaniko zein elektrikoak, paramatroak ezartzeko baliatuz. Era berean, garapenean zehar deskribatutako bloke zehatzak (*Blackbox*) txertatzeko aukera dago, sakondu ahala modeloa berregin eta hobetzeko.

Azkenik, irakurketa-gailuek eta kontrolagailuaren egiturak ezarritako mugek bereizmenean duten eragina ere kontuan hartu beharra dago. *Simulink*ek *Data Casting* prozedura bitartez datuen formatua aldatzeko *Convert* blokeak ditu eskuragarri. Aldi berean, *System Generator*ek *Gateway In* eta *Gateway Out* blokeen bitartez adierazten ditu formatu aldaketak.

2. Dokumentuan bildutako neurketa eta kalkuluetan ikusi daitekeenez, azterketa kasu bakoitzaren identifikaziorako hurrengo prozedura jarraitu da:

1. Identifikazioa burutzea: laborategian maila sarrerei erantzunak irakurtzea.
2. Plantaren oinarrizko modeloa aukeratzea: FOT, FOPDT edo DFOPDT.
3. Sarrerako/irteerako osagaien modeloak aurkeratzea: transferentzia funtzioak, bloke zehatzak, *Blackbox*, etab.
4. Modeloen parametroak ezartzea: irakurritako erantzunak aztertuz modelo antzekoena eskuratzea.
5. Bereizmenaren eragina modelatzea: datuen formatua aldatzea.

4.
Kontrol-sistemaren modeloa egitea

Kontrol-sistema baten helburua planta ezagun batek nahi den erantzuna ematea da. Begizta irekiko sistema baten bitartez egin daiteke hori, zeinetan kontrolagailuaren irteera erreferentzia-seinalearen arabera zuzenean aldatzen den; edo begizta itxiko kontrol-sistema erabili daiteke, honetan irteera ezartzeko erreferentzia ez ezik plantaren irteera, berrelikadura seinalea, ere kontuan hartzen delarik.

Berrelikadura ezinbestekoa da plantaren irteera nahi den erantzunetik gertu mantentzeko, nahiz eta asaldurak edo plantaren dinamikan edozein aldaketa eman. Egun koste baxuko kontrolerako gailuak eskuragarri izatean erabilera zeharo hazi da, eta geroz eta aplikazio gehiagok (kontsumorako elektronika produktuek esaterako) erabiltzen dute berrelikadura.



1.7. Irudia: *Oinarrizko berrelikatutako kontrol-sistema.*

Ohiko berrelikatutako kontrol-sistema 1.7. irudian agertzen da adierazita. Sistema osoaren portaera elementu bakoitzaren aukeraketa zuzenaren menpekoa da. Kontrolagailuaren garapenerako, irakurketa zein eragingailuen dinamikak ez dira kontuan hartu, eta edozein kasutan plantaren barnean aztertu dira kasu praktikoetan.

Garapenean zehar arazoak murrizteko eredu planta gisa korronte zuzeneko motor baten transferentzia-funtzio arrunta erabiltzea aukeratu da. Hau, plantaren dinamikaren ikuspuntutik, zeharo sinplea denez, azterketa eta frogatzea erraztu ditu. Diseinatutako kontrolagailua egonkorra eta eraginkorra dela ziurtatzean, egin beharreko aldaketak egin dira planta zehatzak kontrolatzeko (azterketa kasuetan ikus daitekenez). Laplace-ren S domeinuan adierazitako lehenengo mailako transferentzia funtzio batek (1.1) beteko du eredu plantaren funtsa.

$$\frac{0,94}{0,116s+1} \tag{1.1}$$

Posizio kontrola egiteko xedez, plantaren transferentzia funtzioari irabazia ($K = 0.83$) eta integrazio funtzioa ($\frac{1}{s}$) biderkatu zaizkio eta emaitza (1.2) izan da planta gisa erabili dena.

$$\frac{0,94}{0,116s+1} \cdot 0,83 \cdot \frac{1}{s} = \frac{0,7802}{s(0,116s+1)} \tag{1.2}$$

Kontrolagailuari dagokionez Proportzional-Integratzaile-Deribatzaile (PID) deritzona aukeratu da, hiru parametro dituena. Hainbat prozesu ezberdinetan emaitza onak emateagatik eta egitura sinplea eta erabilera intuitiboa izateagatik, aurreko mendeko hasieratik kontrolagailu honen erabilera oso nabarmena izan da kontrol automatikoaren arloan. Industrian estandar bihurtu dela esan genezake. Teknologiaren garapenarekin batera bilakatzen joan da, eta egun sistema digitaletan inplementatu ohi da, sistema pneumatiko edo elektrikoekin baino. Askotan PID kontrolagailuak beste sistema sofistikatuagoetako oinarrizko atal gisa erabiltzen dira, nahi den portaera erdiesteko nahikoa ez denean, edo kontrolatu nahi den prozesua konplexutasun handiagokoa denean.

Praktikan erabiliko diren plantek elikadura tentsio maximoa ezarrita dute. Hori dela eta kontrolagailuaren irteeran saturazio blokea ezarri da, plantaren sarrera -12 eta 12 artean[28] mantendu dezan. Nahiz eta simulazioan balioek mugarik ez izan, praktikan planta erre daiteke behar baino tentsio handiagoz elikatuz gero, edo babes zirkuituak suntsitu litezke. Helburua *Matlab/-Simulink*en azterketak burutzeko sistemaren modelo ahalik eta fidagarriena egitea denez, jarri beharra da (1.8. irudia).



1.8. Irudia: *Azterketarako erabilitako sistemaren modelo jarraitua.*

4.1. Kontrolagailuaren modelo jarraitua

PID motako kontrol-araua aplikatzea paraleloan eragindako hiru kontrol funtzio ezberdinen emaitzen batura behar bezala lortzea da, funtzioak proportzionala, integratzailea eta deribatzailea izanik:

Proportzionala

Kontrolagailuaren sarrera den erreferentzia (r) eta plantaren irteeraren (y) arteko errore-seinalea (e) handitu egiten du irteeran (u).

$$u(t) = K_p \cdot e(t) \qquad \frac{U(s)}{E(s)} = K_d$$

Integratzailea

Errore-seinalea integratu eta konstante batez biderkatzen du. Plano konplexuaren jatorrian poloa izateak, egoera egonkorreko errorea zerora bultzatzen du erreferentzia-seinalean maila aldaketa ematen denean edo asaldurarik agertuz gero. Hori dela eta, *automatic reset* ere esaten zaio funtzio honi.

[28] Nahiz eta unitaterik ez izan, V gisa hartu dira.

$$u(t) = K_i \int_0^t e(\tau)d\tau \qquad \frac{U(s)}{E(s)} = \frac{K_i}{s}$$

Deribatzailea

Errore-seinalea deribatzen du eta konstante batez biderkatu. Proportzionalak momentuko sarreraren balioaren araberako balioa ematen du, integratzaileak aurreko balioen araberakoa eta deribatzaileak etorriko diren balioak hartzen ditu aintzat. Horregatik *anticipatory control*, *rate action* edo *pre-act* adierazpideak ere hartzen ditu.

$$u(t) = K_d \frac{de(t)}{dt} \qquad \frac{U(s)}{E(s)} = K_d \cdot s$$

Hiru funtzioak adierazpen bakarrean batzea modu ezberdin askotan egin daiteke. Egitura ideala deritzonak (1.3)-k adierazitako transferentzia funtzioa du. Non K_p irabazi propotzionala, T_i integrazio denbora konstantea, eta K_d deribazio denbora konstantea diren.

$$\frac{U(s)}{E(s)} = K_p \left(1 + \frac{1}{T_i \cdot s} + Td \cdot s\right) \tag{1.3}$$

Inplementatzeko beste modu bat, orokorrean hedatuena, egitura paraleloa da, (1.4)-k adierazitakoa. Honetan hiru funtzioak erabat banaturik daude, nahi izanez gero adarretako edozeini dagokion konstanteari zero esleituz eragina deuseztatzeko aukera emanez[29]. Horregatik, beharren arabera eta parametroak soilik aldatuta P, PI, PD eta PID kontrol legeak erabiltzea ahalbidetzen duelako, egitura hau aukeratu da garapenerako. Paraleloa eta idealaren parametroen arteko bihurketa hurrengo formulen bitartez egin daiteke:

$$K_i = \frac{K_p}{T_i} \qquad K_d = K_p \cdot T_d$$

Garapenean zehar erreferentzia izango den modeloa *Laplace*ren domeinuan, hau da, denbora jarraituan, deskribaturiko transferentzia funtzioekin egin da. Nahiz eta helburuko sistema diskretua den, jarraituaren portaera berdina bilatu nahi denez, baliokideak direla onartu ahal izateko, doiketa eta banda-zabaleraren azterketarako modelo jarraitua erabili da; eta behin eta berriz aldaratuko dira erantzunak.



$$\frac{U(s)}{E(s)} = Kp + Ki \cdot \frac{1}{s} + Kd \cdot s \tag{1.4}$$

1.9. Irudia: *Azterketarako erabilitako PID kontrolagailuaren modelo jarraitua.*

[29] Besteetan integrazio denboraren balioa zero denean terminoak infiniturantz joko luke.

4.2. Doiketa (K_p, K_i, K_d)

Nahiz eta PID kontrolagailua eskuz doitu daitekeen, *Moreno et al.*ek [9] azaldu bezala metodo analitiko zein numerikoak erabiliz, proiektuaren helburua doiketa ez denez, baizik eta kontrolagailuaren barne egituraren diseinua, zuzenean *Matlab/Simulink* inguruneak eskaintzen dituen tresnak erabili dira. Modeloan oinarritutako doiketa burutu da, ondorioz, eta plantaren identifikazioan eragindako erroreek zeharo baldintzatzen dute simulazioen eta benetako plantaren erantzunen arteko diferentzia.



1.10. Irudia: *PIDaren doiketarako erabilitako sistema:* Step 180º *sarreran eta irteeran* Signal Constraint.

Kontsigna edo erreferentzia-sarrera gisa maila blokea erabili da, *Step 180º*. Irteera, aldiz, *Signal Constraint* blokera konektatu da (1.10. irudia). Sistemaren diagrama orokorrean agertzen den PID blokea berez eskuz egindako *Mask* bat da. Barneko egiturak, 1.9. irudian ikusi bezala, hiru konstante ditu: Kp, Ki eta Kd. Berauek ezarri eta balioak esleitzeko *Mask* barnean sartu behar ez izateko, parametro gisa definitu dira. Aldi berean, *Workspace*ean P, I eta D aldagaiak sortu dira eta aurrekoei hurrenez hurren esleitu.

P	6	Step time	$.01s$	Values	$(0:1)$
I	0.125	Rise time	$0.5s$	Rise	90%
D	0.25	Setting time	$1.0s$	Setting	1.5%
		Overshoot	2.5%	Undershoot	1.5%

1.4. Taula: Signal Constraint *eta* Step 180º *blokeen bidezko doiketaren emaitzak.*

Signal Constraint bitartez doiketa egiteko, *Workspace*eko sortu berri diren hiru aldagaiak jarri dira parametro gisa. Irteeran jarritako bloke horrek, maila sarrerari erantzunak nahi diren espezifikazioak bete ditzan iterazioak burutzen ditu, *Gradient descent* metodoa erabiliz eta *Active-Set* algoritmoa. *Step 180º* eta *Signal Constraint* blokeek 1.4. taulan adierazitako ezaugarriak izanik, bertan adierazitako emaitza eman du optimizazio prozesuak.

Horiek dira garapenean zehar erabili diren parametroen balioak, txostenean *doiketa*[30] hitzez adieraziko direnak.

4.3. Jarraitua diskretua bihurtzea ($S \to Z$)

Sistema jarraitua naturan denbora tarte infinitesimaletan ematen diren aldaketak antzemateko gai dena da. Sistema digitala, aldiz, erloju batek agintzen du beti, eta ondorioz aldaketak antzemateko gaitasuna mugatuta du, oszilazio iturriak baldintzatua. Ezberdintasun hau dela

[30] 3A. eranskinean dagoen *tune.m script* hiru aldagaiak (P, I eta D) deklaratu eta balioak esleitzen ditu.

eta, sistema digitalak aztertzeko *Laplace*ren S planoan arituz gero, praktikan sistemak ez du analisi teorikoak emandako erantzuna beteko.

*Kuo*k [6] azaltzen duenez, Z transformatuak diferentzia linealetan ekuazioak eta datu diskretu edo digitalak dituzten sistema linealak ebazteko operatzeko metodoa osatzen du. Atal erreal zein irudikariak dituen z aldagai konplexua baliatuz, domeinu errealeko zenbaki sekuentzia Z domeinu konplexuko adierazpen gisa azaltzen du.

Transformatuaren hirugarren teoreman aurkeztu bezala, atzerapenak adierazteko operadorea z^{-n} da, non n laginketetan adierazitako atzerapena den. *Grout*ek [10, p. 501] gogoratzen duenez, balio bat laginketa-periodo batean gordetzen duen elementua erregistroa da, sistema digitalen oinarrizko memoria elementua. Hau dela eta, kontrol digitaleko sistemetan eta datuak lagintzekoetan, $y(t)$ seinalea F_s maiztasunarekin irakurtzen da, lagindutako aldiunetan seinalea adierazten duen denbora sekuentzia osatuz. Lagin arteko denbora tartea, T_s, konstantea izanik, eta benetako denboran jasoz gero, diferentzietan ekuazioak erabiliz landu daitezke datuak, aljebra matriziala medio.

Kontrolagailu ahalik eta fidagarriena erdiesteko, esparru honetan egindako garapenak baliatu dira *Laplace*ren S domeinuko adierazpenak hartuta deskribapenaren izaera diskretura moldatzen direnak lortzeko. Batetik besterako bihurketa zehatza ez denez, aldaketa burutzeko aplikazioaren eta beharrizanen arabera zenbait ekuazio ezberdin erabiltzen dira [10, p. 516]: *Euler* edo *Forward difference*, *Backward difference* eta *Tustin* edo bilinearra.



1.11. Irudia: *Azterketarako erabilitako sistemaren modelo diskretua.*

Denboraren azterketa ikuspuntu diskretutik burutzeko, *Simulink*eko sistema osoaren modelo orokorra aldatzea ezinbestekoa da. Kontrolagailua inplementatzeko gailua edozein dela ere, datu diskretuak prozesatzeko behintzat fabrikatzaileak adierazitako tartean balio finkoa izan beharko dute. Laginketaren ostean eta PID kontrolagailua baino lehen atxikitzailea jarri da (1.11. Irudia), lagindutako datuetan oinarrituta laginketa arteko seinalearen izaera baldintzatuko duena. Helburu honetarako erabili ohi direnak *Zero-Order Hold*, *First-Order Hold* eta *Fractional-Order Hold* dira [11]. Lehenengoak azken laginketaren balioa finko mantentzen du berritu artean, beste biek deribatuan oinarrituta hurrengoan irakurriko den balioa aurretiaz erdiesten saiatzen diren bitartean.

Nahiz eta *Ugalde et al.*ek [12] azaldu bezala zenbait helburutarako FROH atxikitzaileen erabilerak erantzuna hobetu dezakeen, proiektu honen izaera oinarrizkoa denez ZOH motakoa erabili da. Begizta sistemaren laginketa-maiztasunaren (F_s) ezarrera azaltzean adieraziko denez, planta banda-zabalera baino zeharo azkarrago ikuskatuko da. Ondorioz, Ts tarteetan seinaleak balio berdina mantenduko duela suposatu daiteke, elementu mekanikoen aldaketa abiadura ahaleraren azpitik egoteagatik.

Tarte infinitesimalak antzematen dituen sistemaren ikuspuntutik, naturan ematen diren aldaketa guztiak zeharo geldoak dira, momenturo baita erantzuna emateko gai. Are gehiago, momentuan momentuko erantzuna ematen du. Sistema digitalak, ordea, kontrol begizta egikaritzeko (sarreran (e) aldaketa antzematea, algoritmoa askatzea eta kontrol seinaleak (u) balio egokia hartzeko), oszilazio iturriaz gain kontrolagailuaren eta sistemaren konplexutasunaren (erabilitako algoritmoa, gailuen lan-abiadura maximoa, zehaztasuna, etab.) menpekoa den T_c denbora tartea behar du. Erreferentziako plataforma FPGA denez, hau da, hardware hutsa, T_c konstantea izango da.

Kausalitatearen araua deritzona bermatzeko, eta ondorioz garatutako kontrolagailuak jarraituaren portaera berdina duela ziurtatu ahal izateko, kontrolagailuaren ikuspuntutik plantaren dinamikak zeharo geldoa izaten jarraitu beharko du [13]. T_s-ren balio zehatza plantaren araberakoa denez, aurrerago azalduko diren irizpideen arabera, kontrolagailuaren garapenean (sarrerako/irteerako logikak barne) $T_c \ll T_s$ bermatu da:

$$\frac{T_c}{T_s} < 10^{-2} \tag{1.5}$$

(1.5) adierazpena betetzean benetako denborak (*Real time*) ezartzen dituen mugak errespetatzen dira. Horrek esan nahi du, sistema jarraituan bezala, momentuan momentuko erantzuna ematen dela, laginketa eta eragitea momentu berean ematen direla onartu baitaiteke.

Aurrekoan oinarrituta, kontrolagailuaren irteeran ez da atxikitzailerik gehitu. Nahiz eta *glitch*ak agertzerik badagoen, kontrolagailua eta plantaren dinamiken arteko erlazioa dela eta hauek ez dute eraginkortasunean eraginik.

4.3.1. Bihurketa adierazpenak

$$U(s) = U_p(s) + U_i(s) + U_d(s) \quad \begin{cases} \frac{U_p(s)}{E(s)} = Kp & U_p(s) = E(s) \cdot Kp \\ \frac{U_i(s)}{E(s)} = Ki \cdot \frac{1}{s} & U_i(s) = E(s) \cdot \frac{Ki}{s} \\ \frac{U_d(s)}{E(s)} = Kd \cdot s & U_d(s) = E(s) \cdot Kd \cdot s \end{cases} \tag{1.6}$$

(1.4) adierazpenean gainezartzea aplikatuz gero, atal proportzionala, deribatzailea eta integratzailea banaturik aztertu daitezke (1.6). Ikus daitekenez, irabazi proportzionalari dagokion adarrean ez dago s operadorerik, transferentzia funtzioa ez da denboraren menpekoa. Z planora bihurtzean, beraz, ez du inolako moldaketarik jasan beharko (1.7).

$$U_p(s) = E(s) \cdot Kp \quad \xrightarrow{s \rightarrow z} \quad U_p(z) = E(z) \cdot Kp \tag{1.7}$$

Adar deribatzaile eta integratzaileei dagokienez, bihurtzaile bakoitzari dagokion moldaketa eragin zaie.

$$\begin{array}{c}\text{Euler}\\ \text{Fordward difference}\end{array} \quad s = \frac{z-1}{Ts} \quad \begin{cases} \frac{U_i(s)}{E(s)} = Ki \cdot \frac{1}{s} & \xrightarrow{s \rightarrow \frac{z-1}{Ts}} & \frac{U_i(z)}{E(z)} = \frac{(Ki \cdot Ts)z^{-1}}{1-z^{-1}} \\ \frac{U_d(s)}{E(s)} = Kd \cdot s & \xrightarrow{s \rightarrow \frac{z-1}{Ts}} & \frac{U_d(z)}{E(z)} = \frac{Kd}{Ts} \cdot \frac{1-z^{-1}}{z^{-1}} \end{cases} \tag{1.8}$$

$$\text{Backward difference} \quad s = \frac{z-1}{z \cdot Ts} \quad \begin{cases} \frac{U_i(s)}{E(s)} = Ki \cdot \frac{1}{s} & \xrightarrow{s \rightarrow \frac{z-1}{z \cdot Ts}} & \frac{U_i(z)}{E(z)} = \frac{Ki \cdot Ts}{1-z^{-1}} \\ \frac{U_d(s)}{E(s)} = Kd \cdot s & \xrightarrow{s \rightarrow \frac{z-1}{z \cdot Ts}} & \frac{U_d(z)}{E(z)} = \frac{Kd}{Ts} \cdot (1-z^{-1}) \end{cases} \tag{1.9}$$

$$\begin{array}{c}\text{Tustin's}\\ \text{Bilinear}\end{array} \quad s = \frac{2}{Ts} \cdot \frac{z-1}{z+1} \quad \begin{cases} \frac{U_i(s)}{E(s)} = Ki \cdot \frac{1}{s} & \xrightarrow{s \rightarrow \frac{2}{Ts} \cdot \frac{z-1}{z+1}} & \frac{U_i(z)}{E(z)} = \frac{Ki\dot{T}s}{2} \cdot \frac{1+z^{-1}}{1-z^{-1}} \\ \frac{U_d(s)}{E(s)} = Kd \cdot s & \xrightarrow{s \rightarrow \frac{2}{Ts} \cdot \frac{z-1}{z+1}} & \frac{U_d(z)}{E(z)} = \frac{2 \cdot Kd}{Ts} \cdot \frac{1-z^{-1}}{1+z^{-1}} \end{cases} \tag{1.10}$$

(1.8), (1.9) eta (1.10) adierazpenek azaldutakoa baliatuz, eta beharreko operazioen ostean 1.5. taulan adar integratzaileari dagozkien hiru ekuazioak parean jarri dira, konparatzeko xedez. Antzeman daitekenez, *Euler* eta *Backward* bihurketek egituraren aldetik emaitza berdina eman dute. Lehenengoak aurreko laginketako irakurketa erabiltzen du, eta bigarrenak azkenekoa. *Tustin*enak, aldiz, biak erabiltzen ditu.

Euler	$U_i(z) = Ki \cdot Ts$	$E(z)z^{-1}$	$+U_i(z)z^{-1}$
Backward	$U_i(z) = Ki \cdot Ts$	$E(z)$	$+U_i(z)z^{-1}$
Tustin	$U_i(z) = Ki \cdot Ts$	$\frac{E(z)+E(z)z^{-1}}{2}$	$+U_i(z)z^{-1}$

1.5. Taula: *Adar integratzailearen bihurketa adierazpenen konparaketa.*

Ezberdintasunen zergatia ulertzeko ezinbestekoa da integrazioaren kontzeptuaren oinarrira jotzea; honek funtzio baten azalera adierazten du limiteek definitutako tartean. Diskretizatzean, infinito balioen batura da, funtzioak laginketa bakoitzean izan duen anplitudeen batura hain zuzen ere. Funtzio jarraitu batek, lehenago adierazi bezala, laginketa momentuen artean balio aldakorrak izaten ditu.

(1.8) zein (1.9) adierazpenek azalera kalkulatzean aldaketa horiek arbuiatzen dituzte eta zuzenean irakurketa eta laginketa-periodoaz baliatuz laukizuzen baten azalera kalkulatzen dute. Funtzioa goranzkoa izanik, 1.12. irudian azaltzen den bezala, *Euler* bihurketak benetako funtzioak baino azalera gutxiago bereizten du; *Backward*ek aldiz, gehiago. Funtzioa beranzkoa



1.12. Irudia: *Adar integratzailearen bihurketa adierazpenen interpretazio geometrikoa.*

denean, errore berdina ematen da, baina trukatuta. Beraz, praktikan berdin dio bata zein bestea erabili.

*Tustin*en aukerak (1.10), berriz, bien tarteko emaitza ematen du, $E(k)-E(k-1)$ diferentziaren arteko erdia bereziz. *Euler*rek berezitutako laukizuzena eta triangelu baten batura/kenketa (goranzkoa edo beheranzkoa den arabera) bezala adierazi daitekeen trapezoide baten azalera kalkulatzen du. Hau dela eta, integrazio bihurketa honek *trapezoidala* izena ere hartzen du.

$$U_i(s) = E(s) \cdot Ki \cdot \frac{1}{s} \xrightarrow{s \to \frac{2}{Ts} \cdot \frac{z-1}{z+1}} U_i(z) = \frac{Ki \cdot Ts}{2}(E(z) + E(z)z^{-1}) + U_i(z)z^{-1} \qquad (1.11)$$

Inplementazioari dagokionez, *Tustin*en aukerak duen erdibitzailea konstantearekin batu daiteke. Honela aukera hau erabiltzeak batutzaile baten gehiketa baino ez du suposatzen[31]. Erabili den plataformak baliabide nahiko dituenez, eta elementu horren gehiketak eraginkortasunean eraginik ez duenez, adar integratzailea bihurtzeko *Tustin* aukeratu da (1.11).

$$\lim_{Ts \to 0} \frac{E(k) + E(k-1)}{2} \xrightarrow{(k-1) \to k} \frac{E(k) + E(k)}{2} = E(k) \qquad (1.12)$$

Laginketa-maiztasuna handitu ahala emaitzak berdintzen doaz (1.12), baina badaude ezberdintasunak *Santina et al.*ek [14, subsec. 6 Effect of Sampling Rate on Quatization Error] adierazi bezala. Bihurketa bilinearrak besteak baino hobeto egiten du S planoaren egonkortasun limiteen Z planorako aldaketa, eta frekuentzia erantzun hobea du, autore berdinen azterketan ikusi daitekeenez [15, subsec. 3 Digitilizing Analog Controllers]. *Franklin et al.*ek [16, ch. 6 Discrete Equivalents] sakonean jorratzen ditu bihurketak.

[31] Batutzailea gehitzean biderkatzailearen seinale batek bit bat gehiago beharko du, baina aldi berean konstantea erdibitzeak bit baten beharra kentzen du. Ondorioz, biderkatzailearen irteerak hitz-luzera berdina izango du.

Aukeratutako bihurketa edozein dela ere, integrazioak aurreko emaitza guztiak kontuan hartzen dituenez, berrelikadura positiboa agertzen adierazpen azken termino gisa. Kontrolagailua VHDL lengoaian deskribatzean sakonean aztertuko den *windup* ondorioa izan dezake: batutzaileak oso denbora gutxian balio oso altuak hartzea, beste adarren eragina deuseztuz eta sistema ezegonkortuz. Hau ekiditzeko modeloan saturazioa erabili da integratzailean, kontrolagailuaren irteeraren osteko blokearen muga berdinekin[32].

Euler	$U_d(z)z^{-1}$	$=$	$\frac{Kd}{Ts}(E(z) - E(z)z^{-1})$	
Backward	$U_d(z)$	$=$	$\frac{Kd}{Ts}(E(z) - E(z)z^{-1})$	
Tustin	$U_d(z)$	$= 2$	$\frac{Kd}{Ts}(E(z) - E(z)z^{-1})$	$-U_d(z)z^{-1}$

1.6. Taula: *Adar deribatzailearen bihurketa adierazpenen konparaketa.*

Adar deribatzailea bihurtzeko orduan *Tustin* bihurketak erantzun oszilakorra aurkezten du sistema egoera egonkorrean ari denean, *Schmidt*ek [17] ondorioztatzen duen bezala. 1.6. taulako konparaketak adierazten duenez, $E(k) = E(k-1)$ denean, hau da, sarrera konstantea denean aurretiaz batutakoen araberako ezegonkortasuna ezartzen du. *Euler*ren aukerak, berriz, azken laginketa eta aurreko laginketako balioak ezagututa, aurreko laginketan izan beharreko irteera kalkulatzea ahalbidetzen du. Bete nahi den aplikaziorako honek ez du zentzurik. Bihurketa hau laginketa bateko sarrera $E(k)$ eta irteera ezagututa $U(k)$ hurrengoan espero daitekeen sarrera $U(k+1)$ irudikatzeko erabili daiteke. Horregatik du *Fordward diference* izena, etorri behar diren balioak estimatzeko erabili daitekelako. Hala ere, hau ez da helbururako aproposa. Adar deribatzailearentzat baztertu gabekoa erabili da beraz: *Backward* bihurketa. Adierazpena (1.13) zuzen baten ekuazioa dela ikus daiteke, eta emaitza malda da.

$$U_d(s) = E(s) \cdot Kd \cdot s \quad \xrightarrow{s \rightarrow \frac{z-1}{z \cdot Ts}} \quad U_d(z) = \frac{Kd}{Ts}(E(z) - E(z)z^{-1}) \tag{1.13}$$

$$m = \frac{y_2 - y_1}{x_2 - x_1} \quad U_d(z) = \frac{E(k) - E(k-1)}{kT_s - (k-1)T_s}$$

Hiru adarren diskretizazioa banaturik aztertu ostean, berriz ere gainezartzea oinarri, adierazpen bakarrean batu dira (1.7), (1.11) eta (1.13).

(1.14) adierazpena da txosten eta garapen osoan zehar erabiliko den modelo diskretua. *Simulink*eko modeloan 1.13. irudian agertzen den ezkerreko eskema erabili da, *Discrete Integrator* (Integrator method: Trapezoidal; Upper saturation limit: sat; Lower saturation limit: -sat) eta *Discrete Derivative* blokeak baliatuz.

[32] *tune.m* scriptak beste parametroekin batera ezartzen du.

$$U(z) = U_p(z)+U_i(z)+U_d(z) \begin{cases} \frac{U_p(z)}{E(z)} = Kp & U_p(z) = E(z) \cdot Kp \\ \frac{U_i(z)}{E(z)} = Ki \cdot \frac{Ts}{2} \cdot \frac{z+1}{z-1} & U_i(z) = \frac{Ki \cdot Ts}{2}(E(z) + E(z)z^{-1}) + U_i(z)z^{-1} \\ \frac{U_d(z)}{E(z)} = Kd \cdot \frac{z-1}{z \cdot Ts} & U_d(z) = \frac{Kd}{Ts}(E(z) - E(z)z^{-1}) \end{cases} \tag{1.14}$$

$$U(z) = Kp \cdot E(z) + \frac{Ki \cdot T_s}{2}(E(z) + E(z)z^{-1}) + U_i(z)z^{-1} + \frac{Kd}{T_s}(E(z) - E(z)z^{-1})$$

Inplementazioari begira, blokeak garatu egin dira ahalik eta oinarrizko gailu (batutzaileak, erregistroak eta biderkatzaileak) gutxien erabiltzeko, egitura konkurrentea mantenduz. Helburu horrekin, konstante mantentze diren aldagai guztiak batu dira, Kp, Ki eta Kd parametroen interpretazioa aldatuz. Garapenaren abstrakzio mailan jaitsi ahala, eskema hori erabili da, eskuman agertzen dena.



1.13. Irudia: *Garapenean erabilitako PID kontrolagailuaren modelo diskretua.*

4.4. Laginketa-periodoaren azterketa (T_s)

Aurreko atalean aipatutakoa gogoratuz, sistema diskretua jarraituaren baliokidea dela ziurtatzeko kontrolagailuaren dinamika plantarena baino azkarragoa izan behar da. Horrek ziurtatzen du plantaren edozein aldaketaren aurrean kontrolagailuak erantzuna ematea. Hau dela eta, jarraian argituko denez, PID kontrolagailuen inplementazio digitalek sistemaren erantzuna moldatzen duten eta diseinatzaileak doitu beharreko lau parametro dituztela adierazi ohi da, hiru adarren konstanteei T_s gehitzen baitzaie.

K_p, K_i eta K_d parametroen ezarpenarekin gertatu bezala, laginketa-maiztasun egokia ezartzea ez da zuzeneko lana, ez argia ez azkarra. Badaude laurak aldi berean doitzeko proposatutako prozedurak, aski ezagunak diren *Zierger* eta *Nichols*en begizta irekian plantaren maila sarrera eta frekuentzia erantzunen azterketan oinarritutakok esaterako. *Åström*ek [18, sec. 6.6], *Zieger-Nichols*en taulek zarata ondo arbuiatzen dutela azaltzen du, baina maila aldaketetan izaera

oszilakorra dutela, eta hobetutako maila erantzunean oinarritutako prozedurarekin konparatzen ditu. *Seborg et al.*ek [19, p. 535] aurrekoak eta begizta irekian oinarritutako beste hainbat prozedura biltzen dituzte. Hala ere, *Zito et al.*en [20] adierazitakoarekin bat, ez dago edozein plantarako erantzun ona ziurtatzen duen hedatutako proposamenik.

Modelo jarraituaren irabaziak doitzean jarraitutako prozedura errepikatuz gero, iterazioetan oinarritutako optimizazio prozedurak lau aldagai aztertu beharko lituzke, eta baliteke irabaziei esleitutako balioak aldatzea. Garapenen osoan zehar sistemaren modelo jarraitua erreferentzia denez, 1.4. taulan adierazitakoak mantenduz, T_s bakarrik aztertu da. Erabat banatu dira, beraz, jarraituan burututako doiketa eta diskretuan ezarri beharreko laginketa-maiztasunaren aukeraketa.



1.14. Irudia: *Modelo jarraituaren banda-zabaleraren azterketa begizta itxian eta 1.4. taulan adierazitako doiketak erabilita.*

Shannon zein *Nyquist*en arabera [21] F_b banda-zabalera barnean mugatutako seinale baten laginak bakarrak dira baldin, soilik baldin, laginketa-maiztasuna $2 \cdot F_b$ baino handia bada. Hortaz, edozein seinale analogiko lagintzeko maiztasunak honen banda-zabaleraren bikoitza izan behar du, behintzat, aztertutakoa berreraiki ahal izateko. Honela ez bada, *Åström*ek [18, sec. 6.7] azaltzen duen *alias* efektua izan daiteke irakurketetan.

*Wescott*ek [22] egindako azalpenean ondorioztatzen denez, hainbat faktore izan behar dira kontuan eta ez da erraza askotan oinarri teorikotik abiatuta praktikan inplementatu beharreko maiztasuna ezartzea. *Designing for Absolute Time Response* atalean *Wescott*ek *real-time* sistemetan lagindutako seinalearen itxuraz gain honen bidean ezartzen diren atzerapenek ere berebiziko garrantzia dutela adierazten du. Ondorioz, laginketa-maiztasuna handitu ahala fase atzerapena (1.15) adierazpenaren arabera murrizten dela kontuan hartuta, banda-zabalera baino

$10-20$ aldiz maiztasun handiagoz gain-lagintzea gomendatzen da.

$$\Theta_{delay} = \frac{F_p}{F_s}\pi \quad [rad] \tag{1.15}$$

Era berean, *Santina et al.*en [14] gaiaren azterketa bikainean banda-zabalera baino $10-40$ aldiz maiztasun handiagoa proposatzen dute. Plantaren irteera modelatzeko lehen eta bigarren ordenako sistemak erabilita baldintza zehatzetan *Franklin et al.*ek [16] proposatutakoaren, $0,08 < T_s\omega_0 < 0,3$ ($\omega_0 \frac{rad}{s}$-tan adierazita), berdina dela ondorioztatzen dute.

Bertan adierazten denez, kontrol-sistema digital baten helburu nagusia irteerak sarrera jarraitu dezala izanik, diseinatzaileak berrelikadura kontuan izanik begizta itxian sistemaren banda-zabalera F_{cl} zein den aztertzea da zentzuzkoena. Senekoa da laginketa-maiztasunak duen F_{cl}ren menpekotasuna, sistema osoaren banda-zabalera erreferentziaren maiztasun handienak eta begiztan txertatutako elementu guztiek baitute eragina, eta ez plantak soilik. Nahiz eta, oraingoan ere, berebiziko garrantzia duten plantaren identifikazio zuzenak eta modelo egokia izateak.

Simulink inguruak linealizazio tresnak izanda, eta adierazitakoak aintzat hartuta, zuzenean sarrerako linealizazio puntua sortu da erreferentziaren puntuan eta irteerako linealizazio puntua plantaren irteeran. *Control Design* tresna sortako *Linear Analisys* erabilita[33] sistemaren frekuentzia erantzuna adierazten duen Bode diagrama lortu da (1.14. irudia).

Autore ezberdinek[34] egindako proposamenetan ordezkatu da 0,88 Hz edo $0,88 \cdot 2\pi = 5,529 \frac{rad}{s}$ mozketa-maiztasuna, tartea zeroan[35] hasten denez banda-zabalera dena (1.7. taula).

Wescott	$10 \cdot F_{cl} < F_s < 20 \cdot F_{cl}$	$(8,8 - 17.6)$ [Hz]
Santina et al.	$10 \cdot F_{cl} < F_s < 40 \cdot F_{cl}$	$(8,8 - 35,2)$ [Hz]
Franklin et al.	$\frac{\omega_0}{0,3} < F_s < \frac{\omega_0}{0,08}$	$(18,43 - 69,1)$ [Hz]

1.7. Taula: *Autore ezberdinek proposatutako laginketa-maiztasunak (F_{cl} =0,88 Hz).*

Nahiz eta taulan adierazitako emaitzei begira 20 Hz inguruko laginketa-maiztasuna zuzena den, autore guztiak bat datoz simulazioa eta froga ezberdinak egitea gomendatzean. $10X$ baino gutxiago ez erabiltzea ere guztiek adierazten dute, eta hortik aurrera behar izatekotan handitu daitekeela. Modelo jarraituarekin konparatuta maila sarrerari erantzuna aztertu eta gutxi gora behera T_s-ren zein balioetarako berdintzat jo daitezkeen ikusteko *Shannon*en frekuentziatik hasi eta $BW \cdot 100$ arteko zenbait laginketa-maiztasun ezarri dira.

1.15. irudian ikusi daitekeenez, *Shannon*en frekuentziarekin kontrola ez da onargarria. Banda-zabalera baino bost edo hamar aldiz handiagoko maiztasunekin ezberdintasun handia antzematen da, adibide plantarako kontrola onargarria izanik (gainditze nahikoarekin, baina onargarria).

[33] 3A. eranskinean bihurtu, simulazioak burutu eta emaitzak gordetzen dituen *save_bw.m script*a dago.

[34] *Franklin et al.*ek behintzat 20X proposatzen dute, eta ondorioz ez da *Wescott*en proposamenarekin bateragarria.

[35] Sistemak sarrera konstantea denean ere erantzungo du, errorea seinaleak maiztasunik ez duenean.



1.15. Irudia: *Laginketa-maiztasun ezberdinekin modelo diskretuaren eta modelo jarraituaren erantzunen konparaketa.*

Hogeita hamar aldiz handiagoa denean kontrola zeharo hobetzen da. Eta hortik ehun aldiz handiagorako ezberdintasuna oso txikia da (gehienez %0, 5-eko gainditze diferentziarekin).

1.7. taulan adierazitakoak gogoratuz, *Wescott*en proposamena ziurra dela ondorioztatu daiteke, baina ez da onena. Bat gatoz $10X$ minimoarekin, baina ahal den heinean *Santina*ren goi muga edo *Franklin*en erdibideko balioren bat erabiltzeak erantzun zeharo hobea ematen du, azken aukera hauen arteko diferentzia oso txikia delarik.

Adibideko planta nahiko motela denez, eta ondorioz sistemak *oversampling* handia erosotasunez kudeatu dezakeenez, modelo jarraituarekin konparaketetan egituraren moldaketaren emaitzak nabarmendu daitezen $100X$ gain-laginketa erabili da. Banda-zabalera 0,88 Hz-ekoa dela ikusita, $100 \cdot 0,88$ =88 Hz-eko laginketa-maiztasuna izango du sistemak, $T_s = \frac{1}{0,88\,\text{Hz}} = 0,011\,36\,\text{s} \approx 11\,\text{ms}$.

4.5. Modeloen erantzunen konparaketa

Aurreko atalean aztertu bezala, nahiz eta aukeratutako laginketa-maiztasuna modelo jarraituaren banda-zabalera baino ehun aldiz handiago izan, diskretuak ez du portaera berdin zehatza. Maiztasuna handitu ahala erantzunak berdintzen doazela ikusita, are handiagoa erabili genezake berdinketa osoa erdiesteko. Horrek, baina, konputazio arazoak sortu ditzake, kuantifikazio

arazoak areagotzen baitira.

(1.4) transferentzia funtzioa inpropioa izanik praktikan ezin da inplementatu, eta beraz ezinezkoa izango da modelo diskretuak edo beste edozeinek praktikan honek aurkeztutako portaera izatea. Arazo hau adar deribatzaileak sortzen du, proportzionala propioa baita eta integratzailea hertsiki propioa. Zuzentzeko, adar deribatzailea behintzat lehen mailako behe-pasarekin iragazi daiteke [18, pp. 219-221]. Egitura idealean (1.16)ek adierazi bezala eraldatu ohi da.

$$\frac{U(s)}{E(s)} = K_p \left(1 + \frac{1}{T_i \cdot s} + \frac{T_d \cdot s}{\frac{T_d}{N} s + 1} \right) \tag{1.16}$$

Beste aukera bat, daudenetatik orokorrena eta besteek izan ditzaketen eragozpenak ekiditen dituena [23, ch. 2], kontrol seinale osoa iragaztea da. Aukera hau aukeratutako egitura paraleloarekin zuzenean bateragarria da.

$$\frac{U(s)}{E(s)} = K_p \left(1 + \frac{1}{T_i \cdot s} + T_d \cdot s \right) \frac{1}{T_f \cdot s + 1} = \left(K_p + \frac{K_i}{s} + K_d \cdot s \right) \frac{1}{T_f \cdot s + 1} \tag{1.17}$$

(1.17) propioa izanik, eta praktikan inplementagarria, (1.4) eta (1.14) adierazpenekin konparatu da (1.16. irudia).



1.16. Irudia: *Modelo jarraitu eta diskretuen maiztasun-erantzunen konparaketa.*

Diskretuak, bere egituragatik, termino deribatzaile iragazia du, algoritmoak sarreraren bi laginketa balio hartzen baititu. Honekin bat dator, beraz, $T_f = 0,01$ izanik, banda-zabaleraren

azterketan iragazitako modelo jarraituak beste bien arteko emaitza ematea.

Maila sarrerari hiru erantzunak aztertuz oso antzekoak direla ikusi daiteke (1.17. irudia). Modelo diskretuak (1.14) egonkortze denboraren %30-era arte jarraituaren (1.4) erantzun berdina ematen du, eta %35-etik aurrera iragazitako jarraituarena (1.17).

Proiektuaren helburua kontrolagailua inplementatzea denez eta agertutakoak aintzat hartuta, iragazitako modelo jarraitua erabili da azterketa zehatzagoetan erreferentzia gisa.

Adarrak banan-banan aztertuta, proportzionalak hiru modeloetan berdinak direla ikusi daiteke. Integratzailean, aldiz, bihurketa burututakoan antzemandako errorea agertzen da modelo jarraituen eta diskretuaren artean. Deribatzaileari dagokionez, diskretuaren iragazketa argi antzematen da.

4.6. Koma finkoan hitz-luzeraren azterketa

Orain arte egindako froga eta azterketa guztietan *Simulink*ek eskainitako blokeak erabili dira, *Laplace*ren S domeinuan -(1.4) eta (1.17)- zein Z planoan -(1.14)-. Kalkuluak, ondorioz, makina zehaztasunarekin[36] egin dira, programak eta ordenagailuak ahal duten zehaztasun handienarekin.

Helburua sistema deskribatzea denez, kalkuluak burutzeko erabiliko den aritmetikaren egitura definitu behar da. *Whitworth et al.*ek [24] *IEEE 754: Standard for Binary Floating-Point Arithmetic*[37] estandarrean bildutako koma finkoa eta koma higikorra izeneko adierazpen moduen arteko ezberdintasunak azaltzen ditu. *Frantz et al.*ek [25] egindako konparaketan ondorioztatu bezala, egun kostu eta erabilera aldetik ezberdintasun gutxi dago biak darabiltzaten txertatutako zirkuituetan. Koma higikorra aritmetika erreala, zehaztasun handia edo tarte dinamiko zabalagoa behar dituzten erabileretan hobesten da. Aurrekoak behar ez dituztenetan orokorrean koma finkoa erabili ahal delarik.

*Lerner*ek [26] proposatutako azterketa eta azaldutako adibideek argi uzten dute proiektu honen helburu den kontrolagailuak ez duela koma higikorreko aritmetika erabilerarik eskatzen. Are gehiago, FPGAk sintesiaren araberako egitura izanik, tarte dinamikorik gabeko eta hain eragiketa sinpleak burutu behar dituen kontrolagailua koma finkoan inplementatzeak azalerari begira silizio gutxiago behar du eta kontsumoa ere txikiagoa da. Paraleloan deskribatzeko aukera erabilita kalkuluak azkarrago burutzen ditu.

Koma finkoan arituta, seinaleen hitz-luzeraren azterketa ezinbestekoa da, interpretazioa zuzena izan dadin. Helburu hori lortzeko *Simulink*ek *Data Type Conversion* izeneko blokeak eskaintzen ditu. Seinale batek bloke hori zeharkatzean formatua aldatuko du. Programak koma finkoan lan egiteko formatua ezaguna du, eta hitz-luzera eta komaren kokapena ezartzea eskaintzen ditu. Zenbait ataletan, plantaren blokerako sarrera kasu, seinalea *double* motakoa izan behar da, eta aldaketa horiek ere kontuan hartu behar dira.

[36] Makina zehaztasuna: *floating point* eta *double precision*.
[37] http://grouper.ieee.org/groups/754/



1.17. Irudia: *Modelo jarraitu eta diskretuen denbora erantzunen konparaketa.*
u_p, u_i eta u_d seinaleak adierazten dituzten emaitzak eskuratzeko hiru egituretan e seinale berdina sartu da.
y eta u seinaleenak, aldiz, simulazio berezietan egin dira.

Aldi berean, *Xilinx ISE Design Suite*ak *System Generator* baliabidea du, *Matlab*ek eta aipatutako *Suite*ak simulazioak batera egin ditzaten. Aplikazioak instalatu eta konfiguratu ondoren, *Simulink*eko liburutegian *System Generator*ekin lan egiteko *Xilinx Blockset*, *Xilinx Reference Blockset* eta *Xilinx XtremeDSP Kit* bloke sorta berriak agertu dira. Horiek erabilitakoan, eta *System Generator*ekin lan egiteko argibideak jarraituta [27], simulazioak burutzean *Xilinx*en aplikazioak dagozkion blokeek egin beharreko kalkuluak burutzen ditu, eta *Matlab*ek *Simulink*eko blokeek egin beharrekoak.



1.18. Irudia: *PID diskretuaren (1.14)* Simulink *modeloa* Xilinx Blockset *erabilita.*

*System Generator*ek eskainitako baliabideak erabiltzean simulazioak bit-zehatzak eta ziklo-zehatzak dira [28, p. 17], hau da, simulazioak hardwarearen erantzunak[38] aurkezten ditu. Ondorioz, garapenari begira emaitza zehatzagoak eskaintzen ditu *Data Type Conversion* blokeek baino.

Simulink blokeek ez bezala, *System Generator*ek eskaintzen dituen blokeak erabiltzeak, zenbait bloke bereziren gehikuntza eskatzen du:

*System Generator*eko blokeak dauden modelo bakoitzean *token*a, bloke berezia, jarri beharra dago, *Xilinx*en aplikazioak burutu beharreko kalkuluak daudela adierazteko eta *Simulink*ekin komunikatzeko beharreko parametroak ezartzeko -nahiz eta lehenengo froga hauetan ezer konfiguratzeko beharrik ez izan-.

Bestetik, aplikazio biek kudeatu beharreko seinaleen arteko konexioa dagoen puntu guztietan datuak bihurtzeko blokeak gehitu behar dira. Kontrolagailuaren sarreretara heltzen diren *double* motako seinaleak *Xilinx*en aplikazioarentzat ezaguna den koma finkoko formatura bihurtzeko *Gateway In* blokeak erabili dira[39]. Irteeran, aldiz, *Gateway Out* blokea gehitu da, kontrolagailuaren koma finkoko irteera *double*era bihurtzeko.

[38] Blokeak nola sintetizatuko diren kontuan hartzen du, inplementazioaren osteko atzerapenak arbuiatuz.

[39] Bloke honetan laginketa-maiztasuna adieraztean, honek orain arte erabilitako sistemaren erreferentzia-modelo diskretuan (1.11. irudia) *Zero Order Hold* blokeak betetzen zuen funtsa ordezkatzen du. Beraz, ez da horrelako blokerik jarri behar.

Sarrerako eta irteerako blokeak behar bezala kokatuta, eta *System Generator*en *token*a jarrita, modeloa *Xilinx Blockset* sortako blokeekin osatu da. Oinarrizko blokeen artean beharreko bloke guztiak daude eskuragarri: *AddSub*, *Register* eta *Mult*. *Gateway Out* eta *Register* blokeek ez ezik, beste guztiek irteera mota definitzeko aukera ematen dute. *Gateway In*en kasuan, irteera nolakoa den definitzea beharrezkoa da, hori baita bloke horren funtsa (laginketa-maiztasuna zehazteaz gain). Besteetan, nahi den zehaztasunaren arabera *Full precision* (aplikazioak berak kalkulatzen du irteeran izan beharreko hitz-luzera) eta *User defined* aukerak daude. Bigarrena aukeratuz gero, hauek dira hautatu daitezkeenak:

- Output type
  - Boolean
  - Signed(2's complement)
  - Unsigned
- Number of bits
- Binary point
- Quantization
  - Truncate
  - Round
- Overflow
  - Wrap
  - Saturate
  - Flag as error

Aipatutakoez gain, bloke bakoitzak oinarrizko aukera bereziak ditu, blokearen nolakotasunaren araberakoak:

- Gateway In
  - Sample period
- AddSub
  - Operation
    - * Adition
    - * Substraction
    - * Adition or substraction
  - Optional Ports
    - * Provide carry-in port
    - * Provide carry-out port
    - * Provide enable port
- Register
  - Initial value
  - Optional Port
    - * Provide synchronous reset port
    - * Provide enable port
- Mult
  - Constant
    - * Value
    - * Number of bits
    - * Binary point
  - Optional Ports
    - * Provide enable port

Matlab eta *Xilinx ISE* aldi berean erabiltzeak, simulazioak burutu ostean eta emaitzak zuzenak direla frogatuta, *System Generator* blokeekin egindako modeloak VHDL kodera automatikoki bihurtzeko aukera ematen du. Hori dela eta, bloke guztiek *Implementation* aukerak dituzte. *Mult* blokearen kasuan RAM banatua edo bloke RAMa erabili nahi den edo/eta *Core*a erabili ordez HDL bidez deskribatzea nahi den hautatu daiteke, adibidez. Proiektuaren helburua kontrolagailua bera VHDL lengoaian deskribatzea denez, horrelako baliabideak erabiltzeak ez du zentzurik, eta, ondorioz, aukera horiek ez dira kontuan hartuko.

S planotik Z planora bihurketa egitean adar bakoitzeko biderketa koefizienteak aldatu behar

dira, laginketa-maiztasunaren eragina kontuan hartzeko. Atal proportzionalean, irabazia izanik, ez dago moldaketaren beharrik. Deribatzailea laginketa-periodoaz zatitu da, eta integratzailea, aldiz, biderkatu. Kalkuluak eskuz egin behar ez izateko, frogak egin bitartean modelo guztien parametroak aldi berean aldatu ahal izateko eta, aldi berean berdinak izango direla ziurtatzeko, balio zehatzen ordez koefizienteak kalkulatzeko adierazpenak jarri dira *Mult* blokeetan. 1.4. taulan agertzen diren parametroak erabili dira, *Matlab* lan-inguruneko aldagai gisa definituz. Honela, aipatutako aldagaiak (P, I, D edo/eta Ts) aldatuz gero zuzenean aldatuko dira balioak modelo guztietan eta dagozkion blokeetan. *System Generator*en blokeen zehaztasuna mugatuta dagoenez (hitz-luzera ezarria baitute) konstanteek izango duten balioa ez da zehatza izango, baizik eta hitz-luzera horrekin adierazi daitekeen gertukoena[40].

Hainbat froga burutu ondoren, 1.8. taulan adierazten diren konfigurazioak erabili dira. Sarrerako hitz-luzera 12 bitetan ezarri da, koma bitarra zortzigarrenean kokatuta. Hortik aurrerako blokeen irteeretan zehaztasunik galdu gabe eta baliabide ahalik eta murritzenak erabiltzea ahalbidetzen duten konfigurazioak aukeratu dira.

Ikus daitekeenez, batutzaile/kentzaile guztietan *Full* zehaztasuna erabili da. Horrek, sarrerek luzeera berdina izanik, irteerak bit bat gehiago izango duela kalkulatzen du. *int_out* batutzailea da irteera erabiltzaileak definituta duen bakarra. Berrelikadura positiboa duenez, *windup* efektua jasateko arriskua dauka, edo berdina dena, denbora oso txikian balio oso altuak hartzea. Horregatik, bit bat gehiago jarri da eta *overflow* egotekotan irteera saturatzeko adierazi. Batutzaile honek integrazio *memoria*ren funtsa betetzen du: irteeran hitz-luzera handiagoa jarriko bagenu, integrazio denbora luzeagoa izango litzateke; laburtzean, aldiz, integrazioa laburragoa litzateke.

Biderkatzaileetan, bestetik, zehaztasun osoa aukeratu da eta konstanteentzat emaitzak balio zehatzetik asko ez aldentzeko izan beharreko hitz-luzerak adierazi dira. 1.9.a taulan hitz-luzera mugatua izateagatik konstanteek izan beharreko balio zehatzarekiko zenbateko diferentzia duten adierazten da.

Ezarritako konfigurazio eta baldintzekin, programak 1.9.b taulan agertzen diren irteerako seinaleak definitu ditu. VHDL kodea idazterakoan bertan batutzaile bik osatzen duten funtzioa adierazpen bakar batean egin da, eta biderkatzaileen irteeren baldintzak aldatu dira. Baina, momentuz, taulan adierazitakoak dira eredu.

Maila sarrerari erantzunari dagokinez eta 1.19. irudiak adierazten duenez, modelo diskretuaren portaera berdina du. Biek iragazitako modelo jarraitua baina erantzun zertxobait hobea dute, gaindiketa txikiagoarekin eta erantzun iragankor azkarragoarekin.

Nahiz eta hitz-luzera mugatu, parametroekin adierazpenak askatu eta *Xilinx*en bloke zehatzak erabilita, azkeneko modelo honek modelo jarraituarekiko duen ezberdintasuna diskretu izateagatik dela iritzi daiteke, egindako pausu guztiek eragindako erroreak oso txikitzat hartuz.

[40] Kalkulua eta hurbilketa programak berak egiten du aldagaien balioak hartuta eta adierazpenak askatuz.

Blokea	Mota	Fitxa	Aukera	Balioa
Gateway In ref Gateway In feed	Gateway In	Basic	Output type	Signed (2's comp)
			Number of bits	12
			Binary point	8
			Quantization	Round
			Overflow	Saturate
			Sample period	Ts
dif_act	AddSub	Basic	Operation	Substraction
		Output Type	Precision	Full
P	Mult	Basic	Value	P
			Number of bits	3
			Binary point	0
		Output Type	Precision	Full
int_sum	AddSub	Basic	Operation	Addition
		Output Type	Precision	Full
$\frac{I \cdot Ts}{2}$	Mult	Basic	Value	I*Ts/2
			Number of bits	14
			Binary point	14
		Output Type	Precision	Full
int_out	AddSub	Basic	Operation	Addition
		Output Type	Precision	User defined
			Output Type	Signed (2's comp)
			Number of bits	29
			Binary point	22
			Quantization	Round
			Overflow	Saturate
der_dif	AddSub	Basic	Operation	Substraction
		Output Type	Precision	Full
$\frac{D}{Ts}$	Mult	Basic	Value	D/Ts
			Number of bits	11
			Binary point	6
		Output Type	Precision	Full
add_out1 add_out2	AddSub	Basic	Operation	Addition
		Output Type	Precision	Full

Adierazten ez diren aukeretan balio izendatua mantendu da

1.8. Taula: System Generator*ekin aritzeko* Xilinx Blockset *sortako blokeen konfigurazioa.*

Zehatza	Konstantea
6 $K_p = P$	6 $\Delta 0$ $\%0$
$6,875 \cdot 10^{-4}$ $K_i = \frac{I \cdot Ts}{2}$	$6,714 \cdot 10^{-4}$ $\Delta 1,61 \cdot 10^{-5}$ $\%2,3418$
$22,7272$ $K_d = \frac{D}{Ts}$	$22,73$ $\Delta 2,73 \cdot 10^{-3}$ $\%0,012$

(a) Mult *blokeen konstanteen balioak*

Blokearen izena	Seinale mota
Gateway In ref	Fix_12_8
Gateway In feed	Fix_12_8
dif_act	Fix_13_8
dif_pre	Fix_13_8
Kp	Fix_16_8
int_sum	Fix_14_8
Ki	Fix_28_22
int_out	Fix_29_22
int_mem	Fix_29_22
der_dif	Fix_14_8
Kd	Fix_25_14
add_out1	Fix_26_14
add_out2	Fix_35_22

(b) *Irteeren seinale mota*

1.9. Taula: Xilinx Blockset *sortako blokeen konstanteak eta irteerak.*



1.19. Irudia: System Generator *blokeez egindako modeloaren eta aurrekoen arteko konparaketa.*

5.
Kontrolagailua deskribatzea (VHDL)

*System Generator*ek DSP blokeak erabilita, hau da, VHDL kodea sintetizatzeko erabiliko den softwareak eskainitako blokeak erabilita, VHDL lengoaia erabili gabe eskuratu daitekeen simulazio fidagarriena eskuratu da. Horrek kontrolagailuaren barne egituraren bloke funtzionalak eta horien arteko loturak eskaintzen ditu. VHDL deskribapena egiteko egitura berdina erabili da erreferentzia gisa, aurreko atalean egindako azterketaren ondoren eskuratutako hitz-luzeren datuak ere erabilita.

5.1. Liburutegiak

VHDL seinale mota eta izaerek bortizki mugatutako lengoaia da. *Murata et al.*ek [29] adierazi bezala, honen ondorioz lengoaiaren konpilazio zein sintesia seguruak dira, hau da, ez ditu emaitza ezegokiak eman ditzaketen operazio zein bihurketak egiten. Deskribatutako kodeak inplementatu nahi diren funtzioak bete ditzan, beraz, ezinbestekoa da seinale motak eta hauen operadoreak definitzen dituzten liburutegi eta paketeak ezagutzea.

VHDL lengoaiaren definizio estandarrak batzen dituen liburutegia *IEEE* da. Oinarrizko *std_ulogic* eta *std_ulogic_vector* motak eta hauen ebazpena diren *std_logic* eta *std_logic_vector* definizioak *std_logic_1164* paketeak biltzen ditu.

Zeinudun eta zeinurik gabeko seinaleak erabili behar direnez, aurrekoen asebetetakok diren *signed* eta *unsigned* definitzeko bi aukera daude. Nahiz eta industrian *std_logic_arith* berezko estandarra izan, *Lewis*ek [30] argitu bezala operadore aritmetikoak eta konparatzekoak baino ez ditu. *numeric_std* paketeak aurrekoez gain operadore logikoak definitzen dituenez, eta *IEEE Std 1076-2008* estandarraren parte denez, hau erabili da.

Proiektuaren garapenean *IEEE Std 1076-1993* estandarra jarraitu da. Honetan *numeric_std* ez da estandarraren parte, baina bai bateragarria. Aldi berean, kargatutako paketeak ez du *std_logic_vector* seinaleekin operazio aritmetikoak zein konparatzekoak egiteko aukerarik ematen. 2008ko estandarrean batutako baina 93koan banaturik dagoen *std_logic_unsigned* paketeak *unsigned* gisa hartzea ahalbidetzen du. Proiektuaren helburu nagusia ikasketa izanik, azkeneko pakete hau ez da kargatu. Honen ordez, diseinatzaileak bereziki adierazi beharko du sistemak noiz aztertu behar dituen *std_logic_vector* seinaleak *unsigned* bezala. Hau dela eta, erruz erabili dira *casting*ak interpretazioa adierazteko.

*Bishop*ek [31] aurkeztutako VHDL-93 arabera sintetizatu daitezkeen paketeek azkeneko berrikuspenetan gehitutako *fixed_float_types* eta *fixed_pkg* erabiltzea ahalbidetzen du. Erabiltzaile gidak [32] azaltzen denez, hauen bitartez esplizituki adierazi daiteke seinale batean koma bitarraren kokapena. Definizioak, baina, komak bektorearen tartearen barruan egon behar duela argitzen du. Honen ondorioz, erabiliko diren aldagaien eskalak geroz eta ezberdinagoak izan orduan eta informazio esanguratsurik gabeko bit gehiago erabiliko dira.

Aritmetikaren ikuspuntutik kontrolagailuaren egitura oso sinplea denez, bereizgarriak ez di-

ren datuak arbuiatuz baliabideen erabilera ahal beste optimizatu ahal izateko, ez da seinaleak koma finkoan adierazteko pakete berezirik erabili. Hauen ordez koma bitarraren kokapena jarraitu da blokeetan behar, desplazamendurako eta luzera ezartzeko operadoreak erabiliz.

VHDL-93 estandarreko *numeric_std* [33] paketearen *shift_right*, *shift_left* eta *resize* funtzioen argibideak jarraituz, hauek dira informazio esanguratsua babestuz koma bitarraren kokapenaren araberako moldaketak burutzeko erabilitako adierazpenak:

resize(shift_right(*signal*,n),$wl - n$)
: Pisu gutxieneko bitak galduz seinalea moztea

shift_right(*signal*,n)
: Luzera mantenduz koma bitarra eskumara mugitzea edo 2^n aldiz zatitzea

shift_left(resize(*signal*,$wl + n$),n)
: Koma hitza luzatuz ezkerrera mugitzea edo 2^n aldiz biderkatzea

Laburbilduz, *IEEE* liburutegiko *sdt_logic_1164* eta *numeric_std* paketeak baino ez dira kargatu. Burutuko diren eragiketak oso konplexuak ez direnez sintetizatzean programak berak aukeratuko ditu, *IP Core* bereziren instantzia barik. Hauen beharra kodearen bitartez adieraziko da, modu funtzionalean.

```
library ieee;
 use ieee.std_logic_1164.ALL;
 use ieee.numeric_std.all;
```

5.2. Entitatea

```
entity anie_pid is
```

5.2.1. *generic* parametroak

Kontrolagailuaren erabilera errazteko, eta konfigurazio denbora murrizteko, seinale guztiak parametrizatu egin dira. Honela, aldagaien (i_wl), irteeraren (o_wl), koefizienteen (k_wl) edota funtzio integratzailearen memoriaren ($irem\_wl$[41]) hitz-luzera aldatuz gero barne egitura moldatzen da.

Koefizienteei dagokienez, hirurentzat hitz-luzera berdina ezarri da (k_wl), diseinua behar baino korapilatsuagoa izan ez dadin. (1.14) adierazpeneko koefizienteen jatorria aztertuz, eta 1.9.a taulan agertutakoei begira, balioen magnitudeak zeharo ezberdinak direla ondorioztatu da. Zehaztasuna bermatu eta aldi berean behar baino baliabide gehiago ez erabiltzeko, koefiziente bakoitzaren koma bitarraren kokapena adierazteko parametro bana ezarri da: *pbp*, *dbp* eta *ibp*. Aldi berean, zehaztasun maximoa bermatzeko, dagokion atalean azalduko den *minbp* parametroa ezarri da.

[41] $irem\_wl$-ren funtsa *anti-windup* estrategiaren deskribapenean azaltzen da.

```
generic (
 i_wl: natural:=12; -- Kontrolagailuaren sarreren hitz-luzera
 o_wl: natural:=22; -- Kontrolagailuaren irteeraren hitz-luzera
 k_wl: natural:=8; -- Kontrolagailuen koefizienteen (Kp, Ki, Kd) hitz-luzeera
 irem_wl: natural:=1; -- Adar integrazailearen "memoria"ren luzera gehitua

 pbp: integer:=2; -- Kp koefizientearen koma bitarraren kokapena
 ibp: integer:=17; -- Ki koefizientearen koma bitarraren kokapena
 dbp: integer:=2; -- Kd koefizientearen koma bitarraren kokapena
 minbp: integer:=2 -- Adar baturan koma bitarrak lerrokatzeko parametroa
);
```

5.2.2. Atakak

```
port (
 clk,ce: in std_logic; -- Erloju eta erlojuaren gaitze seinaleak: T(m_ce)=Ts
 srst: in  std_logic; -- Reset sinkrono orokorra
 i_ref: in signed(i_wl-1 downto 0); -- Erreferentzia seinalea: (r)
 i_feed: in signed(i_wl-1 downto 0); -- Berrelikadura seinalea: (y)
 kp: in signed(k_wl-1 downto 0); -- Koefiziente proportzionala: Kp=P
 ki: in signed(k_wl-1 downto 0); -- Koefiziente integratzailea: Ki=I*Ts/2
 kd: in signed(k_wl-1 downto 0); -- Koefiziente deribatzailea: Kd=D/Ts
 o: out signed(o_wl-1 downto 0) -- Kontrol seinalea (u)
);
```

Nahiz eta orain arte erabilitako modeloetan erreferentzia sarrera eta berrelikaduraren arteko diferentzia, errorea, kontrolagailutik kanpo kalkulatu izan den, bukaerako sisteman FPGAk egiten du. Honela kanpo logikaren beharra murrizten da, eta planta ezberdinekin aritzea errazten du. Hori dela eta, kontrolagailuak bi aldagai izango ditu sarreran: erreferentzia (i_ref) eta berrelikadura (i_feed).

```
end anie_pid;
```

5.3. Arkitektura

```
architecture pid of anie_pid is
```

5.3.1. Osagaiak

Sarrerekin gertatu bezala, VHDL deskribapenean kontrolagailuak aurreko modeloetan irteeran agertu izan den saturazio blokea ere barnean izango du. Adar integratzailean ere, *windup* arazoa konpontzeko erabilitako estrategiaren arabera, saturatzeko beharra izan daiteke. Horregatik sarreran seinale bat jaso eta irteeran saturatutako seinale berdina ateratzen duen parametrizatutako osagaia deskribatu da.

```
component anie_sat
 generic (
  iref_wl: natural:=2; -- Saturatu nahi den seinalearen hitz-luzera
  osat_wl: natural:=2 ); -- Saturatutako seinalearen hitz-luzera
```

```
 port (
  iref: in signed(iref_wl-1 downto 0); -- Saturatu nahi den seinalea
  osat: out signed(osat_wl-1 downto 0) ); -- Saturatutako seinalea
end component;
```

Seinale bat saturatzea ezarritako tarte batetik kanpoko balioei minimo zein maximo zehatzak esleitzean datza. Hitz-luzerei begira, osagai honek minimo eta maximoari $\pm(2^{n-1}-1)$ balio finkoak esleitzen dizkie, hau da, biko osagarrian adierazi daitekeen modulu handiena. Hori dela eta, osagai honen funtzionamendua egokia izan dadin beharrezkoa da sarrerako seinalearen hitza irteerakoa baino luzeagoa izatea:

$$iref\_wl \geq osat\_wl + 1$$

Berdina balitz, saturazio osagaia erabiltzeak ez luke zentzurik izango, beti egongo baitzen sarrera mugen artean.

```
architecture sat of anie_sat is
```

Arkitektura, barne egitura, bina konparadorek eta bi sarrerako multiplexadorek osatzen dute. Konparadoreek sarrera zenbatesten dute zein tartetan[42] dagoen ondorioztatzeko. Informazio hori baliatuz, multiplexadoreek moztutako sarrerako seinalea, irteera minimoa edo maximo aukeratuko dute.

Hitz-luzeren arteko diferentzia *generic* parametroen menpekoa izanik, diseinuan zehar aldatu daiteke, baina inplementatzean finkoa da. Honela, konparadoreek sarreraren hitz-luzera dute, ref_wl. Multiplexadoreek, aldiz, irteerarena: sat_wl. Eginiko adierazpenak direla eta, nahiz eta hitz-luzera ezberdina izan, konparadore eta multiplexadore bikote bakoitzak sarrera batean modulu berdina izan behar du. Hori dela eta, mugentzat seinale bana definitu da, eta *resize* eragilearen bitartez luzerak moldatu dira osagaien sarrerek bat etor daitezen.

```
  signal max,min: signed(osat_wl-1 downto 0); -- Saturatutako seinalearen mugak

begin
```

Mugak konstanteak izanik, biko osagarrian dagozkien balioak parametroak kontuan izanik zuzenean esleitu zaizkie.

```
-- Saturazio maximoaren balioa ezartzea
max(osat_wl-1) <= '0';
max(osat_wl-2 downto 0) <= (others => '1');

-- Saturazio minimoaren balioa ezartzea
min(osat_wl-1) <= '1';
min(osat_wl-2 downto 0) <= (0 => '1', others => '0');
```

[42] $(-\infty, min)$, $[min, max]$ edo (max, ∞)

```
osat <=
  max when (iref>resize(max,iref_wl))
      else
  min when (iref<resize(min,iref_wl))
      else
  resize(iref,osat_wl);

end sat;
```



5.3.2. Seinaleak

*Cofer et al.*ek [34] adierazitako koma finkoko aritmetikan gertatu daitezkeen erroreak gogoratuz eta 1.8. taulan adierazitakoari jarraituz, seinaleak biko osagarrian adierazten direla aintzat hartuta zehaztasun osoa bermatzeko hurrengoak kontuan hartu behar dira:



- Biko osagarrian lan egiten duen batutzaile/kentzaile baten irteerak sarrera luzeenak baino bit bat gehiago izan beharko du.
- Biko osagarrian lan egiten duen biderkatzaile baten irteerak koefizienteen luzeren baturak baino bit bat gutxiago izan beharko du.
- Erregistro batek hitz-luzera berdina izango du sarreran eta irteeran.

Kodearen irakurketa eta ulermena errazteko, seinaleen hitz-luzerak entitatearen *generic* parametroek definitutako konstanteen bitartez deklaratu dira. Hurrenez hurren, sarrerako seinaleak kentzen dituen blokearen hitz-luzera (*aswl*), konstante proportzionalaren biderkatzailearen hitz-luzera (*mwl*) eta irteeraren saturatzailearen hitz-luzera maximoa (*oswl*) definitu dira.

```
constant aswl: natural:= i_wl+1;
constant mwl: natural:= i_wl+k_wl;
constant oswl: natural:= mwl+irem_wl+1;
```

Kontrolagailuaren arkitektura osatzen duten seinale guztien laburpena 1.10. taulan aurkitu daiteke. *overflow* arazoak ekiditeko, bertan adierazitako informazioaren arabera batuketa/kenketak burutu baino lehen[43] eragigaien luzera behartu da, *resize* funtzioa medio.

```
begin
```

[43] a eta b eragigaien luzera n izanik, *resize*$(a \pm b, n+1)$ eragileak luzatzea eragiketaren ostean burutzen du, *overflow* arazoak izateko arriskuaz.

id	msb	comment	id	msb	comment
ref	i_wl-1	$r(k)$	int_{mult}	mw	$K_i \cdot (e(k) + e(k-1))$
$feed$		$y(k)$	der_{out}		$K_d \cdot (e(k) - e(k-1))$
dif_{act}	aswl-1	$e(k)$	int_{out}	oswl-1	$u_{isat}(k)$
dif_{pre}		$e(k-1)$	int_{rem}		$u_{isat}(k-1)$
			out_{sat}		$u_{sat}(k)$
int_{sum}	aswl	$e(k) + e(k-1)$			
der_{dif}		$e(k) - e(k-1)$	int_{tosat}	oswl	$u_i(k)$
			out_{tosat}		$u(k)$
pro_{out}	mwl-1	$K_p \cdot e(k)$			

```
signal id: signed(msb downto 0); --comment
```

1.10. Taula: *Kontrolagailuaren arkitekturan deklaratutako seinaleak eta hitz-luzerak.*

Kontrolagailuaren deskribapena diseinuaren estrukturaren arabera egin da, datu fluxua jarraituz. Hau dela eta, 1.20. irudian aurkezten den kontrolagailuaren deskribapenaren adierazpen grafikoak, aurreko ataletan landutako modelo diskretuaren (1.11. irudia) eta *System Generator*en blokeez egindako modeloaren (1.18. irudia) antza handia du, ezberdintasun nagusia saturazio blokeak izanik.

5.3.3. Anti-windup estrategia

*System Generator*en blokeekin egindako modeloan int_{out} da irteeraren zehaztasuna bereziki definituta duen bakarra (1.8. taula). Horren zergatia berrelikadura positiboa da:

Aurreko laginketetako irteera kontuan hartzeko, adar integratzaileak batugailua du irteeran, azken laginketa eta aurrekoak batzen dituena. Maila aldaketak gertatzen direnean, batugailu horren modulua oso azkar igotzen da, plantaren eragingailuak dituen mugak gaindituz eta *windup* deritzon efektua sortuz. Honek kontrolagailuak agindutako eta eragingailuak eragindako balioak ezberdinak izatera bultzatzen ditu. Errorea txikitzean berriz ere bat egiteko beharko duten denboran izango du honek eragina, luzatuz eta kontrola motelduz.

Adar deribatzailearen azterketan gertatu bezala, honetan ere arazoa ekiditeko oinarrizko egitura ideal jarraitua moldatzen duten proposamen ugari egin dira [23, ch. 3]. Ahal den heinean kontrolagailuaren linealtasuna bermatu eta bestalde egoera horretatik bueltatzeko beharreko denbora ahal beste murrizteko, berrelikadura gehigarriak eta parametro berrien doiketa eskatzen dituzte gehienek. Hala ere, ez dago orokorrean erantzun hoberik ematen duenik, kasuan kasuko azterketa gomendatzen delarik.

Oinarrizko transferentzia funtzioaren moldaketak kontrolagailuaren garapena behar baino gehiago nahastuko duelakoan, egitura sinpleagoa hobetsi da: arazoak sortu ditzaketen seinaleen




```
-- r(k) - y(k)
dif_act <= resize(ref,aswl) - resize(feed,aswl);

-- e(k)+e(k-1)
int_sum <= resize(dif_act,aswl+1) + resize(dif_pre,aswl+1);
-- e(k)-e(k-1)
der_dif <= resize(dif_act,aswl+1) - resize(dif_pre,aswl+1);

-- up(k)=Kp*e(k)
pro_out <= shift_right(resize(kp*dif_act,mwl),pbp-minbp);
-- Ki*(e(k)+e(k-1))
int_mult <= shift_right(resize(ki*int_sum,mwl+1),ibp-minbp);
-- ud(k)=Kd*(e(k)-e(k-1))
der_out <= shift_right(resize(kd*der_dif,mwl+1),dbp-minbp);

-- ui(k)=Ki*(e(k)+e(k-1))+ui(k-1)
int_tosat <= resize(int_mult,oswl+1) + resize(int_rem,oswl
    +1);

-- u(k)=up(k)+ud(k)+uisat(k)
out_tosat <= resize(pro_out,oswl+1) +
             resize(int_out,oswl+1) +
             resize(der_out,oswl+1);

-- Kontrol seinalea moztea
o <= out_sat(oswl-1 downto oswl-o_wl);
```

$$K_p = P \qquad K_i = \frac{I \cdot Ts}{2} \qquad K_d = \frac{D}{T_s}$$

$$pro_{out} \quad U_p(k) = Kp \cdot E(k)$$

$$int_{out} \quad U_i(k) = Ki \cdot (E(k) + E(k-1)) + U_i(k-1)$$

$$der_{out} \quad U_d(k) = Kd \cdot (E(k) - E(k-1))$$

```
-- ui(k) -> uisat(k)
INTSAT: anie_sat
  generic map (oswl+1,oswl)
  port map (int_tosat,int_out);

-- u(k) -> usat(k)
OUTSAT: anie_sat
  generic map (oswl+1,oswl)
  port map (out_tosat,out_sat);
```

1.20. Irudia: *Kontrolagailuaren algoritmoaren deskribapen estrukturala.*

balioak mugatu eta saturatzea (moztean informazio baliagarria galduko baikenuke). Nahiz eta aukera honek kontrolagailua lineala den tartea mugatzen duen, *oversampling* handia erabiltzen denez, horren ondorioz gerta litezkeen diferentziak behar baino gehiagotan lagindu eta, hortaz, zuzenduz konpentsatzen direla onartu da.

Osagai gisa deklaratutako saturazio blokea baliatuz, int_{out}ek adar integratzailearen biderkatzailearen irteera baino $irem_{rem}$ bit gehiagora saturatzen da. *Generic* motako parametro honek, beraz, kontrolagailuaren integrazioak aurreko balioak kontuan hartzeko zenbateko ahalmena duen adierazten du. Beste era batera adierazita: funtzio integratzaileak zein pisu izango duen sistemaren dinamikan. $irem_{rem}$ek natural eta positiboa izan behar du.

Kontrolagailuaren irteera eta eragingailuak eragindakoa berdinak izan behar duten neurri berean, kontrolagailuaren barneko adarrek irteerarekin bat egin behar dute. Hau dela eta, irteeraren hitz-luzera batugai luzeenaren arabera definitu da. Egoera honetan baliteke, adar integratzailea saturazioan egonik, proportzionala eta deribatzaileekin baturak ahal baino erantzun handiagoa eskatzea [35]. Nahiz eta oraingoan efektua zeharo txikiagoa izan, hau ere ekiditeko, berriz ere erabili da saturatzeko osagaia.

Honela, adar integratzaileak beti izango du irteera saturatzeko aukera, baina emaitza mugatuta egongo da, eragingailuaren ahaleraren arabera lan-tartean mantentzeko, eta praktikan eman daitezkeen erantzunak adierazteko.

5.3.4. Koma bitarrak lerrokatzea

Batuketa zein kenketa aritmetikoak burutzean, hitz-luzerei buruzko aurretiaz adierazitakoez gain, seinale guztien koma bitarrak toki berean egon beharko dute -eragiketa hamartarretan gertatzen den bezala-. Hiru adarrek sarrera berdinak izanik (r eta y), irteerako baturan termino bakoitzaren irteerak duen komaren kokapena konstanteak baldintzatzen du. Honela, erreferentziako seinalearekiko komaren desplazamendua *pbp*, *dbp* eta *ibp* parametroek adierazten dute, hurrenez hurren.

Informazio esanguratsuena babesteko, seinaleak eskumara baino ezingo dira mugitu, garrantzi gutxien duten bitak galduz. 1.20. irudian agertzen denez, *shift_right* eragilea erabili da parametroek eragindako desplazamendua atzera egiteko. Ahalik eta informazio gutxien galtzeko, desplazamendu txikiena jasan duen adarra hartu da erreferentzia gisa. VHDL lengoaiaren 2008 baino lehenagoko bertsioek minimoa kalkulatzeko funtziorik ez dutenez, erabiltzaileak adarren koefizienteen komaren kokapena adieraztean minimoa (*minbp*) zein den adieraziko du. Sarrerako seinaleen kokapen berdina nahi izatekotan, 0 adieraziko da.

Deskribapenean komaren zuzenketa biderketa burutu bezain laster eragiten da, irteerako batuketan egin ordez. Nahiz eta adar proportzional zein deribatzailean bi aukerek emaitza berdina eman, integratzailearen kasuan premiazkoa da seinalea saturatu baino lehen egitea. Honela ez balitz, saturazio maximo eta minimoa komaren zuzenketaren arabera aldatuko lirateke, modulua txikituz hain zuzen ere.

5.3.5. Irteera moztea

Adarrak batu ostean, irteerak *oswl* hitz-luzera izango du. Adierazitako irteera hitz-luzera txikiagoa izanez gero, pisu gutxieneko bitak moztuko dira. Hau da, *msb*-tik hasita *o_wl* bit hartuko dira. Deskribapenari begira, parametroak definitzean kontuan hartu beharreko baldintza ondorioztatu daiteke, zehaztasun osoa izateko adierazpenean berdinketa izan behar delarik:

$$\text{o\_wl} \leq \text{i\_wl} + \text{k\_wl} + \text{irem\_wl} + 1$$

5.3.6. Lagintzea eta erregistroak berritzea

Egituran adierazitako bloke sekuentzial guztiek maiztasun berdinarekin berritzen dituzte balioa, *clk* erloju seinalea eta *ce* gaitze seinalearen maiztasun eta egoeren arabera baldintzatuta dagoelarik. Aplikazioaren arabera, T_s periodoa duen *clk* seinalea izango da eta *ce* maila logiko altura finkatuta, edo $> T_s$ periododun erloju seinalea eta Ts periodoaz gaitzen den *ce*.

```
-- Fs
process(clk,ce)
begin
if rising_edge(clk) then
 if srst='1' then
  ref <= (others => '0');
  feed <= (others => '0');
  dif_pre <= (others => '0');
  int_rem <= (others => '0');
 elsif ce='1' then
  ref <= i_ref;
  feed <= i_feed;
  dif_pre <= dif_act;
  int_rem <= int_out;
 end if;
end if;
end process;
```

```
end pid;
```

6.
VHDL deskribapenaren ko-simulazioa

6.1. Blackbox

Kontrolagailua VHDL lengoian deskribatuta dagoela, erantzuna aurrekoekin aldaratuta nolakoa den aztertzeko, *System Generator*ek eskeinitako liburutegietako *Blackbox* blokea erabili da. Bloke horrek *Simulink* barneko bloke baten barnean VHDL kodea estekatzea ahalbidetzen du. Kodea *Xilinx*en *ISE*k aztertu eta sintetizatzen du, eta sarreren araberako irteerak bidaltzen dizkio *Simulink*eri.

Bloke hau erabili baino lehen, aurreko atalean deskribatutako kodean zenbait aldaketa burutu dira, aplikazioen arteko komunikazioa, eta ondorioz simulazioa, zuzena izan dadin:

- Erloju seinaleak eta horren gaitzeak $m\_$ aurrizkia izan behar dute. Identifikatzaileak aldatu dira.
- Sarrerak/irteerak *std_logic_vector* motakoak izan behar dira. Sarrerei/irteerei m aurrizkia gehitu zaie, *std_logic_vector* motara aldatuz, eta aldi berean aurreko izenak dituzten *signed* motako seinaleak definitu dira, hurrenez hurren lotuz.
- Simulazioan indeterminazioek eragindako erroreak ekiditzeko, seinale guztiak deklaratzean `:=(others=>'0')` abiarazte sententzia adierazi da.
- *Gateway In* blokeek sarrerak erregistratzen dituztenez, i_ref eta i_feed zuzenean esleitu zaizkie ref eta $feed$ seinaleei, atal sekuentzialetik kanpo. Barruan utziz gero, bi aldiz eragingo genuke z^{-1} eta ondorioz $k-1$ eta $k-2$ laginketekin burutuko genituzke kalkuluak. Horrek portaera okerragotuko luke.
- Seinaleak simulaziorako balio zehatz batekin abiarazi direnez, $srst$ sarrera eta honen eragina kendu dira.

Hitz-luzeraren lehenengo azterketan ez bezala, kontrolagailua VHDL lengoaian deskribatzean koefizienteak banan banan aztertu daitezke, aurrezarritako blokeen aukerek mugatu barik. Honela, zortzi biteko hitz-luzerarekin balio zehatzetik %1 baino gutxiago aldentzen diren emaitzak lortu dira (1.11. taula). Hau dela eta, aurreko modeloarekin aldaratuta biderkatzaileen osteko seinale guztien hitzak laburragoak izango dira.

Ko-simulazioa burutzeko *Blackbox* blokeak konfigurazio *.m* funtzioa duen fitxategia behar du. Blokea modeloan sartzean programak zein VHDL fitxategi esleitu nahi den galdetzen du, eta adierazitakoan konfigurazio fitxategi bat sortzen du. Arkitektura sinpleekin eta hitz-luzera zehatzeko deskribapenekin, zuzenean hartzen ditu parametro guztiak. Garatutako kontrolagailuaren kasuan, osagai bat izanik eta erabat parametrizatuta egonik, beharrezkoa da konfigurazio funtzioa osatzea. 3B. eranskinean moldatutako VHDL iturriak eta hurrengoetan oinarrituta osatutako konfigurazio funtzioa azaltzen dira:

- Irteera den *mo* atakaren formatua adierazi behar da. $o\_wl = 22$ izanik, eta $minbp = 2$, Fix_22_2 litzateke sarrerak koma bitarretik eskumara zenbakirik ez dutela onartuz. Edozein kasutan, aurrerago adieraziko denez, komaren kokapena berriz interpretatuko da, eta ondorioz Fix_22 adieraztea izango da garrantzitsua, luzerak bat etor daitezen.
- *Generic* parametroen balioak aldatu dira, koefizienteak 8 biteko hitz-luzera dutela aintzat hartuta, 12 biteko sarrerak mantenduz, eta 1.11. taulan adierazitako koma bitarren kokapenak ikusita.
- Saturazio osagaia duen fitxategia kargatu da lehenengo eta kontrolagailuaren deskribapena duena ondoren.

	Kp	Ki	Kd
Hamartarra Zehatza	6	$6,875 \cdot 10^{-4}$	$22,7272$
7 bit	0000110.	[0.0000000000]1011011	10110.11
Zeinua 8 bit	00000110	01011011	01011011
Hamartarra 8 bitetik bihurtuta	6 $\Delta 0$ %0	$6,943 \cdot 10^{-4}$ $\Delta 6,8 \cdot 10^{-6}$ %0,9891	$22,75$ $\Delta 0,0228$ %0,1
Formatoa	Fix_8_0	Fix_8_17	Fix_8_2

1.11. Taula: *Balio zehatzetatik abiatuta, konstanteen seinaleei esleitu beharreko hitz bitarren kalkulua.*

Blokearen konfigurazio aukeretan *Simulation mode* aukeran *ISE Simulator* aukeratuko da. Honela egingo ez bazen, *Simulink*ek beste blokea guztien kalkuluak burutuko lituzke, baina *Blackbox*eko irteera guztien balioa zero izango litzateke.

Zuzenean simulazioa eginez gero, grafikoetan antzemango da irteerak balio oso altuak dituela, eta kontrola ezinezkoa dela. VHDL kontrolagailuaren irteeraren koma bitarra, aurreko atalean adierazi bezala, ez dago *lsb*an ezta *minbp* parametroak adierazitakoan. *Simulink*ek ez du sarreren koma bitarraren kokapena kontuan hartzen eta ondorioz interpretatzean 2^8 aldiz biderkatzen du irteeraren balioa.



1.21. Irudia: Blackbox *blokea erabiltzeko kontrolagailuaren modeloa ($K_p = 24$ eta $K_i = K_d = 91$).*

Arazo hori ekiditeko, *System Generator*ek ematen duenn *Reinterpret* blokea erabili da. Honek seinale mota eta formatua adieraztea ahalbidetzen du, *Simulink*ek biten pisua ezagutu dezan, beste blokeek balio zuzenak jaso ditzaten. *Output Arithmetic Type* aukeran *Signed (2's comp)* hartu da, eta koma bitarra non dagoen adierazi[44].

Seinaleak behar bezala interpretatzean programek VHDL kodea erabilita modeloaren funtzionamendua simulatzen dute. 1.22. irudiak adierazten duenez, honen emaitza, *System Generator* blokeekin egindako modeloak emandakoa eta modelo diskretuarenak oso antzekoak dira. Seinaleak begi hutsez aztertuta berdinak direla esan genezake, baina gaindiketa gertatzen den tartea begiratuz VHDL modeloak txikiagoa duela ikusten da, aurrekoen erantzuna zertxobait hobetuz.

Antzemandako diferentziak ulertzeko, parametroen adierazpenean zein kudeaketak egin diren aldaketak izan behar dira kontuan. 1.9.a eta 1.11. taulak konparatuz balio teorikoarekiko errore erlatiboa erdira txikitu da adar integratzailean, eta zortzi aldiz handitu deribazioaren kasuan, betiere guztiak azkenekoan $\%0,1$-etik behera mantenduz. Aldi berean, koma bitarra kokatzeko jarraitutako logikak eta parametroak adierazteko erabilitako hitz-luzeraren mugaketak, lerrokatzean mozketa bultzatzen du.

Nahiz eta hitz-luzera mugatu, parametroekin adierazpenak aldatu eta eskuz egindako VHDL deskribapena erabilita, azkeneko modelo honek modelo jarraituarekiko duen ezberdintasuna funtsean diskretu izateagatik dela iritzi daiteke, egindako pausu guztiek eragindako erroreak oso txikitzat hartuz ($\%0,5$-tik behera).

[44] Irteeren koma bitarra $(8) + minbp = 10$



1.22. Irudia: System Generator-*en* Blackbox *blokeaz egindako modeloaren eta aurrekoen arteko konparaketa.*

7.
Spartan3E Starter Kit

Plantaren arabera sarrerako/irteerako osagai ezberdinak inplementatzea beharrezkoa bada ere, azterketa kasu guztietako sistemek hainbat osagai komun dute: aukeratutako txartelaren erlojuan oinarritutako frekuentzia ezberdinak sortzea, esaterako. Hori dela eta, plantarekiko menpekotasunik ez dituztenak baina sistemaren autonomia bermatzeko ezinbestekoak direnak azalduko dira atal honetan; alde batetik baliabide minimoak eta bestetik aukeran dauden osagai guztiak.

Azterketa kasuak garatzean, planta zehatzek behar dituzten gehikuntzak (txartelaren sarreren/irteeren kudeaketari dagozkienak) landuko dira. Hurrengo atal eta azpiatalen azalpenean aurrekoekiko diferentzialak adieraziko dira, hau da, zer aldatu den. Sistema osotasunean ulertzeko, beraz, ezinbestekoa da aurrekoak aztertzea.

7.1. s3etiny: oinarrizko sistema

3C. eranskinean azaltzen diren VHDL iturrietan ikusi daitekeenez, sistema funtzionaltasunaren arabera bost oinarrizko osagaitan deskribatu da:



1.23. Irudia: *Sistemaren osagai nagusiak eta elkarren arteko funtsezko informazio fluxuak: erlojuak (marrak), ikuskatzekoak (puntuak) eta kontrolagailuaren sarrerak/irteerak (solidoa).*

- **Timing:** Txartelaren 50 MHz-eko erloju seinalean oinarrituta, FPGAk dituen DCMak eta kontagailuak erabilita, beste osagaiek behar dituzten frekuentzietako seinale periodikoak sortzea.
- **Man:** Erabiltzaileak sistema kudeatu (ref seinalea sortzea) eta aldagaiak ikuskatzeko interfazeen kudeaketa (sakagailuak, kodetzaile birakaria, LCD, VGA, etab.).
- **Input:** Plantaren kontrolatu nahi den aldagaia, y, irakurtzea eta kontrolagailuaren berrelikadura seinalea, $feed$, sortzea.
- **PID:** Aurreko ataletan deskribatu eta landutako kontrolagailua.

- **Output:** PIDaren irteeraren arabera, u, eragingailuaren agindu seinalea sortzea (DAC, PWM, etab.)

Input eta *Output* plantak bortizki baldintzatzen dituenez, eta PIDa sakonean aztertu denez, erloju seinaleen eta erabiltzailearen elkarrekintzaren nondik norakoak aztertuko dira jarraian.

7.1.1. Timing eta reset

Timing

Nahiz eta gain-laginketa handiarekin aritu, txartelak duen erlojua azkarregia da garatutako kontrol-sistemarako. 20 ns-ko periodoa izanik, 10^2 eta $10^{5,7}$ artean txikitu beharko da, plantaren arabera definitutako laginketa-maiztasuna erdiesteko.

Txartelak duen FPGAk erloju-seinalea kudeatzeko (skew-a kentzea, frekuentzia biderkatzea/zatitzea, fase aldaketa, etab.) *Digital Clock Manager* (DCM) izeneko lau gailu dituenez [36, p. 2], horietako bi erabili dira. Alde batetik, FPGAra heltzen den erloju seinale nagusia atontzeko (duty cycle-a zuzentzea, jatorrizkoa $\%40 - 60$ artekoa baita [37, p. 22]). Eta bestetik, berariazko baliabideak erabiltzeak, diseinua sinpletzeaz gain, fidagarritasun handiagoa eskaintzen duelako.



1.24. Irudia: Xilinx Clocking Wizard *bidez seriean konfiguratutako bi DCM.*

Architecture Wizard-eko *Clocking Wizard* laguntzailea erabiliz, *Cascading In Series With Two DCMs* konfigurazioa aukeratu da. Honek seriean konektatzen ditu bi DCM, lehenengoaren (INST1) irteera bigarrenaren sarrerara konektatzen du. 1.24. irudian antzeman daitekeenez, DCM bakoitzak irteera berrelikatzen du ezarritako baldintzak bermatzeko. Aldi berean, bitarteko eta irteera bakoitza *BUFG* motako erloju jarraitzaile orokor banak bideratzen du.

Spartan-3E familiako DCMen sarrerako seinalearen ($CLKIN$) frekuentzia minimoa 5 MHz-ekoa izanik, seriean konektatutako lehenengo gailuak gehienez hamar aldiz ($\frac{50\,\text{MHz}}{5\,\text{MHz}} = 10$) zatitu

ahal du txarteleko erloju seinalea. Bigarrenean, aldiz, adierazitako txikitze tarteak gogoratuz, maximoa ezarri da, hamasei. *PDCM* osagaiak, hortaz, 50 MHz, 5 MHz (*clk*10) eta 312,5 kHz (*clk*160) maiztasunetako seinaleak ematen ditu.

Maiztasun are txikiagoak erdiesteko kontagailuak erabili dira. Sistemaren atal ezberdinetan erruz erabili den elementua izanik, *wl* izeneko *generic*aren arabera parametrizatutako osagai gisa deskribatu da. Gaitze seinalea (*en*) eta reset sinkronoa (*srst*) dituen D motako flip-flop batean oinarritutako egitura du, irteera (*Q*) sarrerara (*D*) unitate batutzaile batez berrelikatuta duena, eta sarrera gisa definitutako mugarekin konparagailuak aktibatzen duen reset seinalea. *tc* irteera erregistroa irteerak zero balioa duen bitartean aurkezten du maila altua. Honen maiztasuna, beraz, osagaiaren erloju seinalearena baino $muga + 1$ aldiz txikiagoa da. *count* irteerak *D* seinalearen balioa ateratzen du, nahiz eta orain ez den erabiltzen.

```
constant dv25l: std_logic_vector(4 downto 0):=std_logic_vector(to_unsigned(24,5)
    );
constant dv125l:std_logic_vector(6 downto 0):=std_logic_vector(to_unsigned
    (124,7));
```

Instantzia	wl	clk	en	limit	tc	count
DV25	5	clk160	H	dv25l	clk12_5k	-
DV125	7	clk160	clk12_5k	dv125l	clk0_1k	-

1.12. Taula: *Oinarrizko kontagailuen instantzien sarrerak/irteerak.*

Mugak konstante gisa definitu dira instantzia deitu den arkitekturan. 1.12. taulak balio horiek erabilita, eta egindako konexioekin batera, erdietsitako maiztasunak adierazten ditu.

Aztertutako azkeneko irudi eta taula hauek bateratuz, 1.25. irudian adierazten den egitura orokorra osatu da. Erloju sarrera nagusitik abiatuta, eta FPGAk eskaintzen duen paraleloan deskribatzeko aukera baliatuz, 10^0 eta $10^{4,3}$ artean zatitutako maiztasuneko bost seinale daude eskuragarri. Hauekin, *man* ataleko baliabideak kudeatzeko nahikoa da, eta plantak baldintzatutako ataletarako moldatzeko *counter* osagaiaren instantzia berri bat seriean zein paraleloan ezarri baino ez da egin behar.

DCMek emandako seinaleak bezala, kontagailu bitartez sortutakoak ere BUFG motako erloju jarraitzaile orokor banak bideratzeko *clock_signal* eta *buffer_type* murrizketak erabili dira. Honela denboraren ikuspuntutik kritikoak direnen hedapena sistema osoan zehar ahal bezain homogeneoa izatea bermatzen da.

```
attribute clock_signal: string;
attribute clock_signal of i_clk12_5k: signal is "yes";
attribute clock_signal of i_clk0_1k: signal is "yes";

attribute buffer_type: string;
attribute buffer_type of i_clk12_5k: signal is "bufg";
```



1.25. Irudia: Timing *atalaren funtsezko egitura eta oinarrizko osagaiak.*

```
attribute buffer_type of i_clk0_1k: signal is "bufg";
```

Reset

Nahiz eta, irudiak eta azalpenak erraztearren, sistema deskribatzean ataletan berrezartze seinale orokorrik ez aipatu, egitura sekuentzialak dituzten osagai guztiek (*counter, udcounter, bintobcd, lcd, etab.*) berrezartze sinkronoa dute (*srst*); eranskinetan aurkeztutako kodeak adierazten duenez. Bestetik, seriean ezarritako bi DCMek asinkronoa (*rst*) dute.

Erabiltzaileak berrezartzeko sakagailua eragitean, FPGAren sarrera den *rst* seinaleak maila altua hartuko du, zuzenean DCMak berrabiaraziz. Hauek berriz ere behar bezala sinkronizatuta egon arte, *u2locked* seinalea maila baxuan egongo da. Sistema osoaren funtzionamendu zuzena DCMen menpekoa izanik, *mrst* seinalea maila altuan egongo da berrabiarazten dauden bitartean. Horrek erloju seinale ezberdinak berrabiatzen mantenduko ditu. *clk0_1k* erlojuak aginduta z^{-1} atzerapenaz sortuko da *lrst*. Azkeneko honek *TIMING* atalez kanpoko guztiak berrabiatzen mantenduko ditu DCMak eta erloju seinaleak egonkortu bitartean eta periodo bat iragan arte.

```
mrst <= rst or (not u2locked);
lrst <= rst or (lock nand u2locked);

process(iclk0_1k)
begin
```

```
if rising_edge(iclk0_1k) then lock <= u2locked; end if;
end process;
```

7.1.2. Man

Atal honek elkarren arteko konexiorik ez duten azpiatal ezberdinak bateratzen ditu:

Erreferentzia-seinalea

Alde batetik kontrolagailuaren erreferentzia-sarrera den seinalea sortu edo jasotzeko osagaiak agertzen dira. Nahiz eta inplementatutako komunikazio osagai baten bitartez (UART, Ethernet, USB...) beste sistema batek bidalitako aginduek aldatu lezaketen, garatutako sistema autonomoa izanik, txartelak duen sakagailu birakaria, kodetzaile birakaria, erabili da.



1.26. Irudia: *Txarteleko sakagailu birakariaren bitartez erreferentzia-seinalea ezartzea.*

Zaratak eta errebote mekanikoek eragindako eraldaketak deuseztatzeko gailuaren bi seinaleak iragazi eta alde batetik pultsuak eta bestetik noranzkoa adierazten dituzten seinaleak sortu dira [38]. Iragazia darabilen erloju seinale berak agintzen duen erregistro batean oinarritutako gora eta beherako kontagailu baten gaitze seinaleari eta noranzkoa erabakitzen duen multiplexoreari aurrekoak esleitu zaizkie, hurrenez hurren (1.26. irudia).

Honela, $[0,2^n-1]$ tarteko balioak adierazi ditzakeen erreferentzia-seinalea da, zeinurik gabekoa. Zeinua ezartzeko *switch* baten bitartez eragindako seinalearen arabera biko osagarrira bihurtu da.

```
ref_man <= signed('0'&std_ref) when ref_dir='0' else signed(not ('0'&std_ref))
    +1;
```

Aldagaiak hartu ditzakeen balioak sortutako erreferentziarenekin bat badatoz baina maximoa $2^n-1 > var > 2^{n-1}-1$ artean dagoelarik, erreferentzia mugatzeko *rot_e* eta *en* ataken artean kontagailuak duen balioaren arabera aldaketa gaitzen dituen multiplexadorea deskribatu da.

```
rce <= '0' when ((unsigned(std_ref)>max and rot_d='0') or
                 (unsigned(std_ref)=0 and rot_d='1')) else rot_e;
```

LCD

Bestetik, sistemaren aldagaiak ikuskatzeko txartelak duen 16x2 LCDa kudeatzeko sistema garatu da. Alde batetik datuen aurkezpena kontrol begiztarekiko guztiz banatzeko, eta bestetik LCDaren kudeaketan aldagaien moldaketa/prestaketak eta gailuan idazketa ezberdintzeko, kudeatzailea osagai bereizietan deskribatu da.

Sarrerak/irteerak LCDaren komunikazio protokoloarekin [37, ch. 5] bat etor daitezen *LCD* osagaiak hiru egoera finituko makina (ingelesez *Finite State Machine*) eta hauen elkarlanerako beharreko logika bateratzen ditu. Honetan ere RAM memoria bat deskribatu da, *buffer* gisa jokatuko duena. LCDaren ageriko memoriak adina helbide ditu RAMak, nahiz eta 2D matrizea den, eta ez 3D-koa. *AUTO* abiarazte osagaiak aginduta, makina orokorrak gailua konfiguratzen du lehenik (*SETUP*) eta ondoren etengabe idazten (*WRITE*) ditu RAMeko hitzak (erdia lerro batean eta erdia bestean).

LCDMAN osagaiak, berriz, kontrolagailuak darabiltzan aldagaiak eta irteera zuzenean jasotzen ditu, eta beharreko moldaketak burutu ostean RAMan idazten ditu. Moldatzea BCDra bihurtzean eta ondoren LCDaren karaktere taularen [37, fig. 5-4] arabera osatzean datza.

Sarrera diren 14 biteko zeinudun (biko osagarrian) seinaleen pisu handieneko bitaren arabera hauen balio absolutua adierazten duten seinaleak sortu dira. Ondoren, BCD zifra bakoitzeko lau biteko moldatutako *shift register* (*bcdshift*) bana erabilita aurrekoa jaso eta 16 biteko BCD seinalea ematen duen osagaia deskribatu da (*bintobcd*) [39].

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
R	**E**	**F**	**:**	**-**	**0**	**0**	**0**	**0**		**P**	**I**	**D**	**O**	**U**	**T**
V	**A**	**R**	**:**	**-**	**0**	**0**	**0**	**0**			**-**	**0**	**0**	**0**	**0**
16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31

1.27. Irudia: *LCDMAN, 16x2 LCDaren aurkezpen nagusiaren antolaketa: ref (*r*), var (*y/feed*) eta out (*u*).*

Karaktere taulan adierazitakoen arabera, bihurketaren emaitza diren BCD zenbakiak erabilita, sarrerako seinaleen zeinua aintzat hartuta eta datuak izendatzeko testua gehituz, 1.27. irudiak adierazten duen antolaketa deskribatu da.

Bestetik, sistemaren autonomia bermatzeko, txertatutako sistema osoa izanik, erabiltzaileak (eta ez diseinatzaileak parametro eta *generic* seinaleen bitartez) zenbait aukera konfiguratzeko izan dezan, LCDa eta zenbait sakagailu baliatuz menua deskribatu da: *LCDMENU*. Honek *REF* eta *LCDMAN* osagaietan du eragina, hau da, menua aktibatzean, *inmenu* seinaleak balio logiko altua hartzean, erreferentzia-seinalea sortzen duen kontagailua ezgaitzen da *-en* ataka zerora finkatuz- eta *LCDMAN*en berrabiarazte seinalea aktibo mantentzen da. Aldi berean *LCD* osagaiak (*LCDRAM*ek ondorioz) ez ditu *LCDMAN*en *addr*, *data* eta *load* seinaleak jasotzen, baizik eta *LCDMENU*renak.

Osagai hau FSM batek osatzen du, sarrerak/irteerak aldatzeko dagokion logikarekin. Bi

egoera finko ditu (*standby* eta *changed*) eta menuak duen leiho bakoitzeko beste hiru (batek elementu finkoak irudikatzen ditu, bigarrenak aktibo den edo aukeratutako balioaren araberakoak irudikatzen ditu, eta hirugarrenak erabiltzailearen erantzunak aztertzen ditu).



1.28. Irudia: *LCDMENU,* mode *seinalearen balioa aukeratzeko leihoa.*

1.29. Irudia: *LCDMENU,* encsel *seinalearen balioa aukeratzeko leihoa.*

Oinarrizko sistemak bi leiho ditu, hiru sakagailuz (*btnsel*, *btntg* eta *btnmode*) eta erreferentziarako erabilitako birakariarekin. *btnmode* sakatuz gero LCDak 1.28. irudiak aurkeztutakoa adierazten du, eta *btntg* sakatzean 1.29. irudikoa. Leihoetara sartu ostean, horietako edozein sakatzean menutik ateratzen da sistema, eta ez du aldaketarik gordetzen.



1.30. Irudia: *LCDMENU,* mode *seinalearen aukeratutako balioaren berrespena.*

1.31. Irudia: *LCDMENU,* encsel *seinalearen aukeratutako balioaren berrespena.*

Leihoetan egonda, sakagailu birakariak dauden aukeren artean aldatzen du. Lehenengoan #

sinboloak adierazten du aukeratutakoa. Bigarrenean, aldiz, < eta > artean agertzen da. *btnsel* sakatzean, aldaketak gorde baino lehen aurkezpena aldatzen da eta erabiltzaileari berrespena eskatzen dio (1.30. eta 1.31. irudiak). Aukera berresterakoan, aldagaiak aukeratutako leihoari dagokion barne seinalearen, eta ondorioz irteera atakaren, balioa aldatzen du eta menutik irteten da.



1.32. Irudia: *LCD-kudeatzailearen egitura orokorra: erlojuak (marrak), agindu seinaleak (puntuak) eta informazioa (solidoa).*

Debounce

Menuan ibiltzeko aipatutako hiru sakagailuek, egitura mekanikoa izanik, erreboteak dituzte. Hau da, sakatzean seinaleak ez du zuzenean maila aldatzen, baizik eta aurrekoa eta ondorengoaren artean hainbat aldaketa egiten ditu egonkortu arte.

Nahi ez diren aldaketa anitz horiek garbitu eta sistemara bakarra bidaltzeko iragazi gisa *shift-register* batean oinarritutako *s3etiny_debounce* osagaia deskribatu da. $clk0\_1k$ erloju seinaleak aginduta eta 4 biteko luzera izanda $10ms$-ko lau laginketa jarraituk balio altua izan behar dute, hau da $40ms$-tan gertatu daitezkeen erreboteak ez ditu irakurtzen.

Iragazi guztiak bateratzeko *s3etiny_btndeb* osagaian sakagailu bakoitzeko *s3etiny_debounce* instantzia bat deskribatu da.

7.1.3. Normalizatzea

Aipatutako bost atal nagusiez gain, hauen arteko datu fluxua kudeatzeko zeharkakoa den parametrizatutako normalizazio osagaia (*s3etiny_norm*) deskribatu da. Alde batetik erreferentzia ($nref$), aldagaia ($nvar$) eta irteera ($nout$) seinaleen hitz-luzera eta balio tarteak moldatzen ditu honek, atal ezberdinen baldintzak betetzeko. Bestetik, erregistroak ezartzen ditu eta laginketa-maiztasuneko erlojuan oinarrituta sekuentziatuta berritzen ditu.

Sekuentziari dagokionez, $clk10$ erlojuarekin $clk\_pid = clk\_adq \cdot z^{-1}$ definitu da, laginketa-erlojuak goranzko aldaketa duenean $INPUT$ atalean laginketa burutzeko $\frac{1}{clk10}$ms emanez, kontrolagailuak lagindu baino lehen. MAN ataletako osagaiek ez dutenez aldi berean lagintzen, normalizazio osagaiaren barnean kontrolagailuak egiten duen aldi berean erregistratzen dira sarrerak.

Moduluen berdinketarako irteera ataka bakoitzeko konstante bana definitu da, konstante guztiek luzera berdina izanik (*nwl generic* parametroak definituta):

Osagaiaren ataka guztien luzera beste osagaietan erabilitako *generic* berdinek baldintzatzen dituztenez, horiek baliatuz eta *resize* eta *shift_right* funtzioen bitartez konstantearekin biderketan *overflow*rik gertatzen ez dela ziurtatuz, irteeraren luzerara moldatu eta konstantearen koma bitarraren kokapena zuzentzen du.

Honela, kontrolagailuaren funtzionamendu zuzenerako, erreferentzia eta aldagai seinaleen eskalak berdintzen dira eta luzera berdineko seinaleak bidaltzen zaizkio, nahiz eta bereizmena ezberdina izan. Aldi berean, identifikazioa egitean erreferentzia ezberdinak sortzeko edo beste edozein egoeratan begizta irekian aritzeko, ref seinaleak zuzenean irteera agintzeko aukera egon dadin $open\_ref$ seinalea sortzen du osagai honek. LCDan aurkezteko seinaleei dagokionez, lehenago azaldu denez, moduluak 13 bit izan behar ditu gehienez.

7.1.4. UCF

```
NET "clk" LOC = "C9"  |IOSTANDARD=LVCMOS33;
NET "clk" TNM_NET=clk;
TIMESPEC TS_clk=PERIOD "clk" 20 ns HIGH 40%;

NET "rot(0)" LOC="K18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "rot(1)" LOC="G18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
```

```
NET "LCD_E"  LOC="M18" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "LCD_RS" LOC="L18" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "LCD_RW" LOC="L17" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;

NET "SF_D(0)" LOC="R15" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(1)" LOC="R16" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(2)" LOC="P17" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(3)" LOC="M15" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;

NET "btn(0)" LOC="H13"  |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(1)" LOC="D18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(2)" LOC="V16" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;

NET "dir" LOC="L13" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "en"  LOC="L14" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "rst" LOC="N17" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
```

7.2. s3e: osagai guztiak

Sistema baliabide murritzeko gailuetan inplementatu ahal izateko, aurreko atalean erabilerarako ezinbestekoak direnak baino ez dira deskribatu eta azaldu. Jarraian sistema osatzen dutenak adieraziko dira, baina beharrezkoak ez direnak. Azalpenetan, beraz, lehenago aipatu bezala, gehitutakoak aztertuko dira soilik, irakurleak oinarrizko sistema ezaguna izanik. Hala ere, 3E. eranskinean azaltzen diren VHDL iturriak ez dira diferentzialak eta inplementatu nahi izatekotan izen bereko osagaiak berrizendatu eta gainidaztearekin nahikoa da.

7.2.1. Timing eta reset

Timing

MAN atalean azalduko denez, sistema osoak VGA seinalea sortuko du txartelera zuzenean monitore bat konektatu ahal izateko. Erabiltzaile gidak [37, p. 56] adierazten dituen sinkronismo seinaleak sortzeko baldintzak 25 MHz-eko erlojua dute oinarri.

Hori dela eta, DCMek eskaintzen duten eta irekita zegoen zuzendutako erloju iturria *TIMING*-en irteera ataka gisa gehitu da. Frekuentzia erdiko, *clk*2, gaitze seinalea sortzeko *s3etiny_counter* egituraren kasu sinpleena den *s3etiny_switch* erabili da, maila altu finkoak gaitzen duen bit bakarreko alderantziz berrelikatutako erregistroa.

```
DV2: anie_switch port map ( iclk0,'1',mrst,iclk2 );
```

Aldi berean, erabiltzaileak gertatzen diren aldaketak bereizi ahal izateko beste erloju guztiekin aldaratuz zeharo geldoa den 1 Hz frekuentziako *clk*1*s* deskribatu da, kontagailu baten bitartez. Honen sarrera-seinalea *clk*12_5*k* da, *clk*0_1*k*-k gaitzen du eta ehun unitateko modulua du, honetarako konstante berria definitu delarik:

```
constant dv100l:std_logic_vector(6 downto 0):=std_logic_vector(to_unsigned(99,7)
    );
```

```
DV100: anie_counter generic map ( 7 )
port map ( iclk12_5k,iclk0_1k,ilrst,dv100l,open,iclk1s );
```

*clk*2 seinaleak *clk*0 erlojua gaituko duenez, edo berebiziko garrantzirik ez duten osagaiak aginduko dituenez, ez zaio jarraitzaile zehatzik esleitu. *clk*1*s* seinaleari, aldiz, *clk*12_5*k* eta *clk*0_1*k*rekin egin bezala, BUFG motako erloju jarraitzaile orokorra erabiltzeko murrizketak gehitu zaizkio:

```
attribute clock_signal of iclk1s: signal is "yes";
attribute buffer_type of iclk1s: signal is "bufg";
```

Reset

Berrabiatzeari dagokionez, *clk*1*s* seinalea sortzen duen osagaiaren sarrerak *mrst*ren menpekoak izanik, honek ezin du berdina izan. Hau dela eta, *lrst*ren barneko ispilua deklaratu da, kontagailu hau logika orokorrarekin batera hasi dadin.

```
signal ilrst: std_logic;
```

```
ilrst <= rst or (lock nand u2locked);
lrst <= ilrst;
```

7.2.2. Man

VGA

Erreferentziaren sorrerarekin gertatu bezala, edozein komunikazio osagairen bitartez txartelak seinaleen momentuko balioak beste sistema batera bidali genitzake, erabiltzaileak momentuko seinaleen balioak ez ezik aurrezarritako azkeneko iterazio kopuruan izandakoak ere ikuskatu ahal izateko. Nolanahi ere, garatutako proiektuaren autonomia bermatzeko, txartelak duen DB15 konektorearen bitartez CRT zein LCD pantaila erabiltzeko 640x480 pixeleko bereizmena eta 60 Hz-eko berritze-maiztasuna dituen VGA seinalea sortu da, *Video Electronics Standards Association* (VESA) erakundeak adierazitako zehaztapenak jarraituz [37, ch. 6].

Aukera honek grafikoen xehetasunak murrizten ditu. Alde batetik prozesatzea airean egiten delako, eta erabiltzen diren erloju maiztasunek aurkezpen konplexuak garatzeko logikaren berebiziko azkartasun eta optimizazioa eskatzen dutelako. Eta bestetik FPGAren baliabideak aurreztearren, geroz eta aurkezpen konplexuagoa egin kontrolerako logika deskribatzeko baliagarri izan litezkeen baliabide gehiago hartzen baitira. Eraginkortasuna bermatzeko, beraz, xehetasun edo bereizmen handiko grafikoak kontrol-sistematik at dagoen beste batek sortuko ditu.

LCDaren deskribapena baldintzatu duen logikari jarraiki, bi osagai nagusitan banaturik deskribatu dira aldagaien moldaketa/prestaketa eta VGA seinalearen zehaztapenak beteko dituen kontrol seinaleen sorrera.

1.33. irudian aztertu daitekeenez, *VGASYNC* osagaian sinkronismo seinaleen sorrerarako bateratutako bi kontagailu eta lau konparadore baino ez dira erabili: bata horizontalerako (*hsync*) eta bestea bertikalerako (*vsync*).



1.33. Irudia: *VGASYNC, 25 MHz-eko gaitze seinalearekin 640x480 60 Hz VGA seinalea kudeatzeko sinkronismo seinaleak (hsync eta vsync) eta dagozkien koordenatuak (column eta line) sortzea: erlojuak (marrak), agindu seinaleak (puntuak) eta informazioa (solidoa).*

Aurrekoez gain momentuan kolorea definituko duten osagaiek kurtsorearen kokapen zehatza zein den jakin dezaten, ageriko azalerari dagozkien koordenatuak sortzeko bina konparadore, kentzailea eta OR atea eta multiplexadorea erabili dira. Kentzaileak soilik kontagailuaren eta koordenatuaren balioen arteko offseta ezabatzen du, ezkutuko tarteek eragindako diferentzia deuseztatuz. Irteerak 640 zutabe ikusgai dituenez, nahiz eta sinkronismoa bermatzeko kontagailuak 799ra arteko balioak hartu, ez dira ezkutuko tarteko balioak adieraziko eta multiplexadoreak 640 balioa finkatuko du OR ateak aginduta. Zutabe kopurua baino aukera bat gehiago adieraziko du *column*ek, beraz, $(0, 640)$. Era berean, *line*k $(0, 480)$ tartea adieraziko du.

VGAMAN osagaia, sortu berri diren *column* eta *line* seinaleak baliatuz eta beharreko erloju zein aldagai seinaleek lagunduta, bi biteko seinalea den *sel*ek agindutako lau aurkezpen ezberdinen RGB seinaleak sortzeko atalek eta logikak osatzen dute (1.34. irudia).

Aurkezpen moduen artean aldatzeko, sakagailuen iragaziak darabilen erloju seinale berdina duen kontagailua erabili da, sakagailu batek gaitzen duena. Maximo finkoa "11" denez, sekuentzialki aldatzen da lau moduen artean. Osagai honen irteera, *vm*, da *VGAMAN*en *sel* sarrera.

```
VMODE: anie_counter generic map ( 2 )
port map ( clk0_1k,btndeb(0),srst,"11",vm,open);
```

Logikari dagokionez, 1.13. taulak adierazi bezala aurkezpena zein izango den aukeratzeaz gain, zutabea zein lerroa ageriko azaleratik kanpo daudenean (640 edo 480 adierazten dutenean, hurrenez hurren) irteera zerora finkatzen da. Tarte horietan izpia hasierara bueltan ari denez RGB seinaleak tentsiorik sortu ez dezan [40].

DEMO osagaiak konparadore anitzen bitartez ageriko azalera sei zutabe eta sei errenkadatan



1.34. Irudia: *VGAMAN, momentuan kolorea definitzeko logika eta osagaiak: erlojuak (marrak), agindu seinaleak (puntuak) eta informazioa (solidoa).*

sel	**modua**	
00	data	PIDaren erreferentzia, aldagai eta irteeren grafikoak
01	columns	Sei kolore ezberdineko zutabe zabalak
10	lines	Sei kolore ezberdineko errenkada zabalak
11	grid	*clk*1sek aginduta aldatzen diren zortzi kolore ezberdineko tableroa

1.13. Taula: sel *seinalearen araberako VGA osagaiaren RGB aurkezpen moduak.*

banatzen du. Aukeratutako moduaren arabera koloreak ezartzeko erdia erabiltzen ditu, beste erdia edo biak nahastuta. Koloreen ordena, ezkerretik eskumara zutabeen kasuan eta goitik behera errenkadetan, 1.14. taulak agertzen du:

Kolorea	yellow	cyan	green	magenta	red	blue
Kodea	110	011	010	101	100	001

1.14. Taula: *DEMO osagaiko* lines *eta* columns *moduen kolore ordena.*

DATA osagaiari dagokionez, hiru geruza ezberdinek osatzen dute hau, behetik gora: koadrikula, grafikoak eta zeinuak.

Lehenak, *s3e_vgasimpgrid*ek, zutabe eta lerro seinaleak jasotzen ditu eta hauen arabera bit bakarreko irteera ematen du. Horrek bi koadrikula irudikatzen ditu, 235 pixeleko altuera dutenak, bata pantailaren behealdean lerrokatuta eta bestea goian. Biek dute zabalera osoa, 639 pixel. Koadrikula bakoitzeko ertzak irudikatzen dira; ordenatuan %25, %50 eta %75 adierazten duten lerroak; eta abzisan 100 pixeleko tarteak adierazten dituzten zutabeak (ertzetakoak salbu, zertxobait zabalagoak baitira).

Bigarren geruzan, irudikatu nahi den aldagai bakoitzeko (erreferentzia -*dref*-, *INPUT* atalean irakurritakoa -*dvar*- eta *OUPUT* atalera bidalitakoa -*dout*-) *s3e_vgashift* osagaiaren instantzia bat deklaratu da. Parametrizatutako osagai hau ataka multzo bikoitzeko RAM batean oinarritutako *shift-register*a da (1.35. irudia).

Multzo batek datuak idatzi zein irakurtzeko atakak ditu, eta FSM batek aginduta *tg* seinaleak maila altua hartzen duen bakoitzean eskumatik hasita eta era sekuentzialean datuak ezkerrera posizio bat mugitzen ditu, lehenengoan sarrerako datu berria idatziz. Egitura dela eta, berritze prozesuak behintzat $zutabe\_kopurua \cdot 2$ erloju ziklo behar ditu.

Beste multzoak, irakurketa atakak baino ez dituenak, zutabe seinalearen arabera dagokion helbidearen datua irakurtzen du eta aurreko helbidean irakurritakoarekin batera lerroak adierazitako balioarekin konparatzen du. Aktibo dagoen lerroa bi datuen artean badago edo bietako edozeinen berdina bada, puntua irudikatzen du. Zutabe seinalearen balioa 25 MHz-eko maiztasunarekin aldatzen denez, *VGASYNC* osagaian ikusi denez, multzo honek laginketa-maiztasun berdinarekin egin behar du lan, eta berez *hsync* seinalearen izaera sekuentzialaz baliatzen da irakurketa logika erregistro batez sinpletzeko.



1.35. Irudia: *VGASHIFT, ataka multzo bikoitzeko RAM batean oinarritutako* shift-register*a,* column *eta* line *seinaleen arabera edukia aztertzen duena.*

Idazketa FSMak lau egoera ditu: *init*, *clear*, *do_shift* eta *waiting*. Sistema abiarazi zein berrabiaraztean lehenengoan mantentzen da *tg* seinaleak maila altua izan arte. Maila aldaketa ikusitakoan, *clear*-era aldatzen da, eta bertan RAMaren helbide guztietan zeroak idazten dira jarraian *do_shift*en lehenengo desplazamendua burutuz. Egindakoan, *waiting* egoeran mantentzen da eta *tg*ek berriz maila altua duen bakoitzean *do_shift*era aldaketa errepikatzen da eta *waiting*era buelta. Osagaiak datu esanguratsuak dagokien kokapenean dituen egoera bakarra *waiting* da beraz. Horregatik multiplexadore baten bitartez irteera zerora finkatu da RAMeko datuak mugitzen diren egoera guztietan. Ataka multzo biek erloju seinale berdina dutenez, bi edo lau lerro oso irudikatzeko behar den denbora tartean maila baxuan mantentzen ditu irtee-

rak. Murrizketa honen eraginez erabiltzaileak monitorean berrikuntza antzeman dezake. Posizio bateko errorea onartuz gero, murrizketa kendu daiteke, efektu hau ezabatuz.

s3e_vgashift osagaiaren *generic* parametroek sarrerako ataka diren eta egitura osoa baldintzatzen duten zutabe eta lerro seinaleen luzera eta moduluaren maximoa adierazten dituzte. Grafikoak koadrikularen gainean irudikatzen direnez, hauen dimentsioak zaindu behar dira (*unsigned* motakoak direla aintzat hartuta) ez daitezen eremutik kanpo agertu. Hori dela eta, zutabeei $10bit$ esleitu zaizkie eta 639-eko maximoa; eta lerroei, $8bit$ eta 234. Beraz, sistemaren laginketa guztiak aurkezteko *clka* atakako erloju seinalearen maiztasuna tg baino $640 \cdot 2 \approx 1,3 \cdot 10^3$ aldiz handiagoa izan behar da.

Zein koadrikulan irudikatuko diren erabakitzeko, jatorrizko *line* seinaleari bi *offset* gehitzen zaizkio (bata koadrikula bakoitzerako):

```
tline <= resize(line-244,8);
bline <= resize(line-1,8);
```

Era berean, VGA seinalea sortzean *offset*en arabera aurkezten dira. Ereduzko deskribapenean $dref \rightarrow qr$ eta $dvar \rightarrow qv$ aldagaiak goian irudikatzen dira eta $dout \rightarrow qo$ behean:

```
dvga <= (qr & qv & '0') when line>240 else ("00"&qo);
```

Grafiko bakoitzak gutxi gora behera pantailaren erdia hartzen duenez eta aldagaien seinaleak zeinudunak direnez, irudikatzean bereizmen osoa bermatzeko bigarren geruzak modulua baino ez du aurkezten (horregatik dira seinaleak zeinubakoak *vgashift* osagaian). Erabiltzaileak LCDa begiratu gabe argumentua (zeinua) zein den ikusi ahal izateko, VGAk lagintzen duen bakoitzean aldagai bakoitzeko bit bakarra gorde behar du sistemak.

Aldagaien hitz-luzera, bereizmena koadrikulen tamainaren menpekoa izanik, *dwl generic* parametroak adierazten du. Hiru grafikoek zabalera berdina dutenez, zeinu bit kopuru berdina gorde behar du sistemak eta MSBak bektore bakarrean, *dsign* seinalean, batzen ditu. Aldi berean, *abs* eta *resize* funtzioak medio, balioa absolutuak dituzten bit bat gutxiagoko *unsigned* seinaleak sortzen ditu:

```
dsign <= dref(dwl-1)&dvar(dwl-1)&dout(dwl-1);

vref <= resize(unsigned(abs(dref)),dwl-1);
vvar <= resize(unsigned(abs(dvar)),dwl-1);
vout <= resize(unsigned(abs(dout)),dwl-1);
```

Azalera eta kalkulu denbora murrizteko inplementatu den koma finkoko aritmetika erabiltzeak ezartzen dituen kuantizazio erroreak direla eta, baliteke aldagaiek ikusgai den azaleratik kanpoko balioak hartzea, normalizazio atalean adieraziko denez. irudiak pantailatik at geratu ez daitezen, maximoa ezartzen duen konstantea definitu da, eta seinaleak saturatzen dira *vgsahift* osagaietara bidali baino lehen:

```
constant lmax: natural:=234;
```

```
hfref <= to_unsigned(lmax,8) when vref>lmax else vref;
hfvar <= to_unsigned(lmax,8) when vvar>lmax else vvar;
```

```
hfout <= to_unsigned(lmax,8) when vout>lmax else vout;
```

Azkeneko geruza, beraz, alderanztailea da, zeinuaren arabera aldatuko du dagokion aldagaiaren aurkezpen kolorea. *s3e_vgasignshift* osagaia moldatutako *s3e_vgashift*a da, irudikatuko diren aldagaiek beste zutabe (helbide) dituena [45] eta datuen hitz-luzera hiru bitekoa delarik. Idazketa eta desplazamendurako ataka multzoaren logika berdina du, era eta aldi berean mugitu behar baitira *vgashift* eta *vgasignshift* osagaietako datuak, irteerak bat etor daitezen. Honetan, aldiz, ez dago bigarren multzoari lotutako logikarik, RAMeko datuak *column*en arabera irakurtzen ditu soilik.

	layer	*wl*	**source**	**component**	
-	0	3	-	-	Atzeko planoaren kolorea
g	1	1	SGRID	*vgasimpgrid*	Koadrikulak, kolore bakarra
dvga	2	3	SREF/SVAR/SOUT	*vgashift*	Grafikoak, hiru kolore
qsign	3	3	SIGN	*vgasignshift*	Zeinuak, hiru kolore

1.15. Taula: *DATA osagaiko geruza seinaleen jatorria eta izaera.*

1.14. taulan adierazitako kolore kodeak aztertuz eta atzeko planoari kolore beltza (000) esleituz, red-magenta, green-yellow eta blue-cyan bikoteetako lehenengo elementuek maila altuan bit bakarra dutela ikusi daiteke, eta bigarrenek bi. Azaldutako geruzei dagozkien seinaleen jatorria eta izaera laburbiltzen dituen 1.15. taulak adierazitakoarekin bateratuz, eta *dvga* seinalea zuzenean hartuta, *ref*, *var* eta *out* seinaleen balio positiboei bikoteen lehenengo koloreak esleitu zaizkie, hurrenez hurren. Eta balio negatiboei bikotearen beste kolorea, *qsign* seinalea *dvga*rekin bateratuz eta kolore kodeekin bat egiteko biten kokapenak moldatuz.

Hirugarren geruza bigarrenarekin bateratuta izanik, koadrikula gehitzea baino ez da falta. Datuen azpian irudikatu dadin, eta ez hauen gainetik, grafikoen seinaleak atzeko planoaren kolorea adierazten duenean baino ez da irudikatuko, eta egitean kolore zuriz (111) izango da.

```
smask <= dvga and qsign;
svga <= dvga or smask(1 downto 0)&smask(2);
vga <= (others => '1') when dvga="000" and g='1' else svga;
```

Gertaera zehatzak momentuan behar beste denborarekin aztertu ahal izateko VGA kudeatze sistemaren azkeneko elementua *switch* osagaian oinarritutako *PAUSE* da. Honek sakagailu bati eragitean *VGAMAN*en *tg* seinalea gaitzen edo ezgaitzen du. Ezgaituta dagoenean *vgashift* eta *vgasignshift* osagaiak ez dira berritzen, eta ondorioz monitorean irudi estatikoa agertzen da. Gaitu bezain laster berriz ere mugitzen dira grafikoak, geldirik egondako denboran izandako aldaketak agertu barik.

```
PAUSE: anie_switch port map ( clk0_1k,btndeb(2),srst,vtge );
ivtg <= (not vtge) and vga_tg;
```

[45] Grafikoek zabalera ezberdinak izango balituzte, parametro ezberdineko instantziak deskribatu beharko lirateke.

Debounce

Oinarrizko sistemak hiru sakagailu dituenez (LCDaren menuan ibiltzeko), VGAren modua eta gelditzea kudeatzeko biak gehituta *s3e_btndeb* osagaiak bost *s3etiny_debounce* instantzia ditu.

7.2.3. Normalizatzea

VGA-kudeatzailearen *VGADATA* osagaira doazen aldagai seinaleak normalizatzeko LCDaren aldagaiekin jarraitutako prozedura berdina errepikatu da. Hauen hitz-luzera koadrikulen tamainaren menpekoa izanik, *VGAMAN* osagaiaren *dwl generic* parametroaren berdina gehitu da.

Aldi berean, *VGADATA* osagaien FSMak *clk*2 erlojuak agintzen dituenez, sarrerako aldagaien laginketan oinarrituta eta bihurketak burutzeko denbora eman ostean, *vga_tg* seinaleak *clk*2 erlojuaren periodo batez maila altua hartzen du. Honek laginketa bakoitzeko posizio bat baino gehiago mugitzea ekiditen du.

Kuantizazioari dagokionez, zeinudun seinaleak biko osagarraian kodetzen direnez, aldagai bipolar asimetrikoak dira, n seinalearen bit kopurua izanik $[-2^n, 2^n - 1]$ tarteko zenbaki hamartarrak adierazi daitezkeelarik. Honek emaitzan, zeinu aldaketak gertatzean, eskala aldatzean eta balio absolutuak kalkulatzean zenbaki positibo eta negatiboen bihurketan unitate bateko diferentzia sor dezake. Normalizatzean jatorrizko seinaleen eskala amaiera geroz eta irteerekiko txikiagoa izan, orduan eta nabarmenago da eragina.

7.2.4. UCF

```
NET "clk" LOC = "C9"  |IOSTANDARD=LVCMOS33;
NET "clk" TNM_NET=clk;
TIMESPEC TS_clk=PERIOD "clk" 20 ns HIGH 40%;

NET "rot(0)" LOC="K18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "rot(1)" LOC="G18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;

NET "LCD_E"  LOC="M18" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "LCD_RS" LOC="L18" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "LCD_RW" LOC="L17" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;

NET "SF_D(0)" LOC="R15" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(1)" LOC="R16" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(2)" LOC="P17" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(3)" LOC="M15" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;

NET "hsync"  LOC="F15" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vsync"  LOC="F14" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vga(0)" LOC="G15" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vga(1)" LOC="H15" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
```

```
NET "vga(2)" LOC="H14" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;

NET "btn(0)" LOC="V4"  |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(1)" LOC="H13" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(2)" LOC="K17" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(3)" LOC="D18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(4)" LOC="V16" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;

NET "rst" LOC="N17" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
```

8.
Azterketa kasuak

Spartan3E Starter Kit atalean adierazi denez, plantak bortizki baldintzatzen ditu sarrerako/irteerako osagaien deskribapena. Txostenean adierazitakoak oinarritzat harturik, jarraian planta aurkeztu ostean sistema osatu eta erabiltzeko garatu beharrekoak eta egin beharreko kalkulu zein doiketak azalduko dira. Saiakuntza praktikoen emaitzekin batera praktikan sistemaren portaera zein den adieraziko dute.

8.1. Korronte zuzeneko motorra

Alecop, S. Coop. erakundeak eginiko MV-541 maketa erabili da lehenengo azterketa kasu gisa. Korronte zuzeneko motor batek eragindako ardatzean industrian aurkitu daitezkeen kaptadore eta sentsore ezberdinak batzen ditu. Abiadura irakurtzeko takodinamoa eta deslazamendu angularrerako kodetzaile absolutu eta inkrementala ditu. Biraketa angelua adierazten duen murriztailea ere badu, zeinen posizio angeluarra kaptadore erresistibo baten jasotzen duen. Maketaren gidan [1] ikus daitezkeenez 1.16. taulak aipatutakoen ezaugarriak biltzen ditu.

K.Z. Motorra	V_{max}: $\pm 12\,\mathrm{V}$ I_n: 0,6 A Abiadura izendatua: $1200 rpm$
Takodinamoa	Bereizmena: $7\frac{\mathrm{mV}}{rpm}$
kodetzaile inkrementala	Bereizmena: $50\frac{impultsu}{bira}$ Sentsore kopurua: 2 (SA eta SB) Elikadura: 5 V
kodetzaile absolutua	Bereizmena: $4bit \rightarrow 22{,}5°$ edo $\frac{1}{8}\pi rad$ Elikadura: 5 V
Murriztailea	Murrizketa: 1 : 30
Kaptadore erresistiboa	R_n: $10 \pm 20\,\%\mathrm{k}\Omega$ P_{max}: 1 W Linealtasuna: $\pm 2\%(R_n)$ Errotazio erabilgarria: $340 \pm 4°$ Errotazio mekanikoa: 360° jarraitu

1.16. Taula: *MV-541 maketaren gidan adierazitako ezaugarriak.*

Sistema orokorrean eta kontrolagailua bereziki frogatzeko planta geldoa eta zeharo egonko-

rra egokia izateagatik aukeratu da. Honela, kontrol sinplea behar duen plantan, deskribapen ezegokiaren ondorioz egon litezkeen arazoak antzeman daitezke, eta aztertutakoak praktikan zuzenean jarri. Kaptadoreak maketan ikusgai egoteak eta hainbat izateak ere, helburu akademikoa duen proiektu honetan aukera anitz eskaintzen ditu. Konexioak aurreko aldean izanik, argi adierazita, eta fabrikatzailearen fidagarritasunarekin, muntaia zeharo errazten da, txertatutako sistemaren garapenerako denbora gehiago utziz.

8.1.1. Interfazeak aukeratzea eta muntaia egitea

Aldagaia irakurtzea

Maketak eskaintzen dituen kaptadoreetan sinpleena kodetzaile inkrementala da. Honek bi seinale baino ez ditu, sarrera digitalen bitartez zuzenean irakurri daitezkeenak, eta abiadura zein posizio kontrolerako inplementatu beharreko logikak zeharo sinpleak dira.

Kodetzaile absolutuak seinalea kopuru bikoitza du, sarrera digital kopurua bikoitza eskatuz. Abiadura zein posizio kontrolerako inplementatu beharreko logikak ere oso sinpleak dira. Baina inkrementalarekin konparatuz, honen bereizmena askoz txikiagoa da.

Kaptadore erresistiboak seinale analogiko bakarra ematen du. Inkrementala erabilita baino seinale gutxiago behar ditu, eta abiadura zein posizio kontrolerako logiken konplexutasuna absolutuaren parekoak dira, modulu aldetik antzeko izaera baitute. Baina, sistema digitala izanik, AD bihurgailuaren beharrak bitarteko beste gailu bat eskatzen du, antzeko bereizmena izateko. Horrek kontrol begizta korapilatzen du, eta neurketak zuzenak izan daitezen bitarteko etapa beharrezkoa izan daiteke. Bestetik, lineala ez denez, eman liratekeen kuantizazio erroreak aztertu behar dira.

Takogeneradoreak ere seinale analogiko bakarra ematen du, eta abiadura kontrolerako baino ez da baliagarria. Seinalea mugimenduaren menpekoa da, ez du posizioak agintzen aurrekoekin gertatu bezala. Halere, seinale jarraitua izanik, kodetzaileek baino bereizmen zeharo hobea du.

Txertatutako sistema azaleraren ikuspuntutik ahalik eta txikiena mantentzeko kodetzaile inkrementala aukeratu da, beraz, kontrol begiztarako. Aldi berean, plantaren identifikaziorako saiakuntza soila egin behar denez, takogeneradorea baliatuko dugu zuzenean osziloskopiora konektatuz.

Irteera atontzea

*Artaloytia*k [41] adierazten duenez, elektronikaren ikuspuntutik korronte zuzeneko motorrak eragiteko hamaika aukera daude, zeinetan eraginkorrenak potentziako kommutadore elektronikoz (transistore bipolarrak, IGBTak eta gehienetan MOSFETak) osatutako bihurgailuetan oinarritutakoak diren. Laneko modua kommutazioa izanik, bihurgailuan ematen diren galerak oso txikiak dira bihurgailu linealekin konparatuz, azkeneko hauek tarte aktiboan egiten baitute lan.

on egoeran kommutazio osagaiak oso tentsio jauzi txikia du, nahiz eta korrontea oso handia

izan. *offen*, aldiz, nahiz eta tentsio jauzia oso handia izan, zeharkako intentsitatea mikroampere ingurukoa da, edo txikiagoa. Edozein egoeratan osagaietan galerak oso txikiak dira, potentzia handiko aplikazioetarako egokiak izanik.

Kommutadore elektronikoz osatutako zubi osoko lau koadranteko CC/CC bihurgailuek (H-zubiek) Pulse Width Modulation (PWM) teknika bitartez kontrolatzeko aukera eskaintzen duenez, motorearen desplazamenduaz gain noranzkoa ere kontrolatu daitekeenez, eta sistema digital batez PWM motako seinalea sortzeko beharreko logika sinplea eta azkarra izanik, halakoa erabili da.

Muntaia

Spartan-3E Starter Kit txartelaren fabrikatzaile berdina den *Digilent*en *PmodHB3* moduluak, 2 A eta 12 V-eko H-zubia eta kodetzaile inkrementalaren sarreretarako bi *buffer* bateratzen ditu. Planta den motorraren ezaugarriak gogoratuz, tentsio maximo bera dute, eta H-zubiak korronte izendatua baino $\frac{2}{0{,}6} = 3,34$ aldiz handiagoa jasan dezake.

Moduluaren erreferentzia-gidak [42] adierazten duenez, kontrol txartelaren J1 eta J2 konektoreekin bateragarria den 6 pineko konektorea du. Kable egokia erabiliz gero, J4 konektorea ere erabili daiteke.

Motorra eta elikadura iturria moduluan adierazitako konektoreetara konektatu dira zuzenean. Kodetzaileko seinaleak *buffer*ak iragateko dagozkien pinetara konektatu badira ere, ez dira fotodiodo eta fototransistoreak moduluak eskainitako pinekin elikatu. Txartelak 3,3 V-eko tentsioarekin egiten du lan. Nahiz eta *PmodHB3* moduluak $3,3-5$ V tartean funtzionatu, maketako osagaiek 5 V behar dituzte. Horregatik motorrarentzat erabilitako elikadura iturri bereko zirkuitu digitalak elikatzeko irteera erabili da sentsoreetan.

8.1.2. Input

Maketaren gidako [1, pp. 24-34] azalpen zehatza jarraituz, kodetzaile inkrementalaren A eta B sentsoreen seinaleak erabilita eta inpultsu kopuru berdina izanik irakurketa logikaren arabera bereizmena bikoiztu edo lau aldiz handitu daiteke.

Irakurketa modua

Oinarria sentsore bakar bat erabiltzea eta goranzko aldaketak aztertzea da (X1), maketak ezaugarrietan adierazitako inpultsu kopurua irakurriz. Sentsore bakarraren goranzko eta beheranzko aldaketak aztertuz gero (X2), inpultsu bikoitza irakurtzen ditu, ondorioz gailu berdinak izanik logika soilik aldatuz bereizmena bikoizten da. Bi modu hauek, ordea, ezin dute norabidea zein den adierazi, erreferentzia bakarra izategatik.

Azkeneko aukera bi sentsoreen goranzko zein beheranzko aldaketak aztertzea da (X4). Bien arteko kokapena oinarrizko bereizmen tartearen erdia bada, 1.36. irudiko kronograman adierazi

denez, lau aldiz handitzen da eta bien arteko erlazioak noranzkoa (*dir*) asmatzea ere ahalbidetzen du.



1.36. Irudia: *sa eta sb sentsoreak dituen kodetzaile inkrementalaren irakurketa moduak.*

Garapenaren helburua txertatutako sistema modularra eta, ahal den heinean, parametrizatua denez, hiru irakurketa moduak erabiltzeko logika deskribatu da. Hala ere, bereizmen hobea izategatik eta sistemak noranzkoa ere kontuan hartzen duelako, praktikan X4 modua erabiliko da.

Gidan ez bezala, *anie_trigger* osagaiak logika digitala erabiliz deribatzen ditu sarrerak. Seinaleen aldaketak baino zeharo azkarragoa den erloju seinalea baliatuz, etengabe lagintzen dira *sa* eta *sb* seinaleak. *encsel* modu aukeratzaileak agindutako multiplexadore batek lagindutako eta momentuko balioak aztertzen dituzten ate logikoz osatutako hiru seinaleren artean aukeratzen du.

Modua	X1	X2	X4
encsel	1	2	3
Irteera	$(s \cdot z^{-1})$ *and not* s	$(s \cdot z^{-1})$ *xor* s	$((sa \cdot z^{-1})$ *xor* $sa)$ *or*
	non $s \rightarrow sa \vert sb$	non $s \rightarrow sa \vert sb$	$((sb \cdot z^{-1})$ *xor* $sb)$

1.17. Taula: *Irakurketa moduaren araberako sa eta sb seinaleen azterketa.*

dir seinalearen egoera, noranzkoa, *sa*ren goranzko aldaketetan *sb*ren egoerak adierazten du. Azaldu bezala, X1 zein X2 moduetan ezin da noranzkoa zein den asmatu, beraz, *dir*ek maila baxu finkoa izango du $encsel/=3$ denean.

Inpultsuak modulu bihurtzea

Adierazitako kronograman ikusi daitezkeen seinaleen balioak erdiesteko, *count_wl* luzerako *udcounter* osagaiaren instantzia gehitu da. *trigger*en erloju berdina agintzen du, eta honen irteerek *en* eta *dir* atakak kudeatzen dituzte. Honela, kodetzaile inkrementalak emandako inpultsuak $[0, 2^{count\_wl} - 1]$ tarteko modulua duen seinale bihurtu dira.

Laginketa-maiztasunak aginduta, eta burutu nahi den kontrolaren arabera, moduluaren alda-

ketak *anie_adq* osagaiak interpretatzen ditu. Abiadura kontrolerako, laginketa kT_s eta $(k-1)T_s$ artean moduluak duen diferentzia kalkulatzen du eta *var_wl generic*ak adierazitako luzerara mozten du. Diseinatzaileak, beraz, irakurketa modua eta laginketa-maiztasunaren arabera *var_wl* eta *count_wl* ezarri beharko ditu, (1.18) eta (1.19) adierazpenak betez.

$$2^{var\_wl} - 1 > \omega_i \cdot T_s \qquad \omega_i : \text{abiadura izendatua} \rightarrow \left[\frac{rpm}{60 \cdot s} \cdot \frac{\text{inpultsu}}{bira} \cdot modua\right] \tag{1.18}$$

$$count\_wl \geq var\_wl \tag{1.19}$$

overflow & underflow

Kontagailuaren irteera mugatua denez eta gorantz zein beherantz aldatu daitekeenez, noranzkoa berdina mantenduz gero $\frac{2^{count\_wl}}{\omega_i \cdot T_s}$ laginketa burutzean *overflow*a edo *underflow*a gertatuko da, hau da, maximo eta minimoa zeharkatuko ditu moduluak. Horrek sortzen dituen, eta kontrola ezegonkortu dezaketen, irakurketa arazoak ekiditeko *Martinez et al.*ek [4, pp. 17-26] proposatutako detekzio eta zuzenketa logika deskribatu da.

```
comp(0) <= '1' when diff>0 else '0';    comp(1) <= '1' when diff=0 else '0';
comp(2) <= comp(1) or (dir_int(1) xor dir_int(0)); --stop -> diff=0 or DIR
    change

gates(0) <= dir_int(0) and comp(0); --underflow -> diff>0 and DIR=1
gates(1) <= dir_int(0) nor comp(0); --overflow -> diff<0 and DIR=0

sel(1) <= comp(2) or gates(1);    sel(0) <= comp(2) or gates(0);

cor <= nlimit when gates(0)='1' else plimit; --correction limit
sum <= resize((diff+cor)+1,var_wl); --correction & 0-trough compensation

with sel select
tvar <= resize(diff,var_wl) when "00", (others => '0') when "11", sum when
    others;
```

smooth

Kodetzailearen sentsoreen seinaleek zarata izatekotan garbitzeko eta inpultsu asalduren eragina murrizteko, txarteleko kommutadore batek agindutako *smooth* seinaleak *trigger* eta *adq* osagaietan iragaziak gehitzen ditu. Lehenengoan, *Chapman*ek [38] proposatutako eta *rot* osagaian deskribatutakoak *sa* eta *sb* seinaleen sekuentzia zuzena dela ziurtatzen du irakurketa modua X4 denean. Bigarrenak, azkeneko hiru laginketen balioetako edozein zero ez den bitartean, (1.20) adierazpenaren arabera ezartzen du sisteman plantaren aldagaia izango den seinalea.

$$\frac{2 \cdot var + var \cdot z^{-1} + var \cdot z^{-2}}{4} \tag{1.20}$$

Iragaziak aldaketa bortitzak leuntzen dituenez, begizta itxian erreferentzian maila aldaketei erantzunek gainditze handiagoa izan dezakete, kontrolagailuak benetako abiaduraren $\%50-100$ artean jasotzen baitu. Hala ere, laginketa-maiztasuna begiztaren banda-zabaleraren arabera ezarriz gero eta askoz azkarragoa izanik, kontrolak berak zuzendu dezake.

8.1.3. Output



1.37. Irudia: PmodHB3 *moduluko H-zubiaren* en *eta* dir *seinaleen araberako egoerak.*

CC-CC bihurgailu baten transistoreak kommutatzeko aukera errazenetarikoen artean frekuentzia finkoan *on* eta *off* egoeren iraupena, hau da, lan-erregimena aldatzea da. Pultsu zabaleraz modulatutako bihurgailuak dira hauek, ingelesez, *Pulse Width Modulation* (PWM).

Sistema digital batez halako modulazioa kontagailu bakarra eta zenbait konparadore erabilita egin daiteke, eta horregatik hainbat abantaila aurkezten ditu *Artaloytia*k [41]. Hala nola, lan-erregimena %0 eta %100 artean aldatzeko aukera; maiztasuna, kommutazio denbora eta sekuentzia, etab. aldatzeko malgutasuna) edota plantak jasotzen duen bataz-besteko balioa lan-erregimenarekiko linealki proportzionala izatea[46].

PmodHB3 modulua modu bipolarrean lan egiteko dago prestatuta: lau transistoreak bi kommutazio pare gisa hartzen ditu, binaka kommutatzen direlarik. Testuan [41] azaldutako PWM sorrerarako prozedura orokorrek pare bakoitza gaitzeko seinale bana darabilte, alderantzizko balioko bi seinaleren iraupenaren bitartez aldi berean modulua eta noranzkoa kudeatuz. Honela, lan-erregimena %50era ezartzean plantak ez du korronterik jasotzen, %0 eta %100 balioek noranzkoa batean eta bestean maximoa esleitzen dutelarik.

[46] Transistoreetan tentsio jauziak mesprezatuz eta kommutazioa ideala dela onartuz.

Kontroleko seinaleak sortzea errazteko, eskeman ikusi daitekeenez eta 1.37. irudiak azaltzen duenez, *Digilent*en moduluan bi *and* eta *not* batez osatutako logikak kudeatzen ditu kommutazio pareak eta ataka banatan eskaintzen ditu lan-erregimena eta noranzkoaren kontrola. Honela *OUTPUT* atalak kontrolagailuaren irteeraren moduluarekiko, balio absolutuarekiko, proportzionala den PWM seinalea sortuko du, *antiphase* prozedurarekiko bereizmena bikoiztuz.

clk_pwm erlojuak agindutako, *dc_wl* luzerako eta muga maximoan ezarrita duen *counter* osagaia oinarri, modulua luzera bereko *dc* seinalearekin konparatzen da. $\leq$ motakoa irteerak $(0, 100]$ tarteko lan-erregimenak izango ditu. Agindua zero denean irteera ere halakoa izateko, $= 0$ motako bigarren konparadorea gehitu da, 1.38. irudian ikusi daitekeenez, irteera maila baxuan finkatzen duena.



1.38. Irudia: *dc lan-erregimeneko eta* $\frac{clk\_pwm}{2^{dc\_wl}}$ *maiztasuneko PWM seinalea sortzea.*

Planta eragingo duen H-zubiak anplifikatutako PWM seinalearen maiztasuna, beraz, *clk_pwm* erlojuaren eta irteeraren bereizmenaren menpekoa da, (1.21) adierazpenak baldintzatzen duenez. Ondorioz, bereizmena hobetzeko luzera handitzen goazen heinean, modulazio-maiztasun berdina mantentzeko erlojuaren maiztasuna handitu behar da. Egun txartelek dituzten erloju maiztasunekin bereizmen nahikoa lortu daiteke. Esaterako, garatutako sistemak 50 MHz-eko erlojua izanik, 20 kHz modulazio-maiztasuna izateko luzera maximoa $\frac{50\,\text{MHz}}{20\,\text{kHz}} = 2500 = log_2\, dc_wl \rightarrow 11\,bit$ekoa da. Hala ere, bereizmena hobetzeko H-zubiaren elikadura tentsioak ere kontrolatu daitezke, *Artaloytia*k proposatu bezala.

$$\left.\begin{aligned} F_o &= \frac{F_{pwm}}{2^{dc\_wl}} \\ \text{duty-cycle} &= \frac{\text{unsigned}(dc)}{2^{dc\_wl}-1}\cdot 100 \end{aligned}\right\} \quad 2^{dc\_wl} = \frac{F_o}{F_{pwm}} = \frac{\text{unsigned}(dc)\cdot 100}{duty-cycle} + 1 \tag{1.21}$$

Modulazio-maiztasunak motorrak periodoa osotasunean antzeman dezan nahikoa izan behar du, hau da, atal mekanikoen erantzun-ahalera baino azkarragoa izan beharko dute maila baxuko egoerak. Begizta irekian plantaren banda-zabalera aztertuz egin da kalkulua, eta kontrol begiztaren maiztasuna ezartzerakoan egin bezala modulazioa behintzat hamar aldiz handiagoa ezarri da. Honela lan-erregimenarekiko linealki proportzionala den bataz-besteko elikadura antzemango duela ziurtatzen da.

Aldi berean, bibrazioak eta matxurak ekiditeko modulazioak motorraren erresonantzia-maiztasuna baino handiagoa izan beharko du. Fabrikatzaileak ezaugarri-orrien bitartez adieraziko du maiztasunen arabera zein eragin eman daitekeen.

Aurrekoak eta modulazio-maiztasuna handitu ahala elikaduraren osagai alternoa murrizten dela aintzat hartuta, ahal bezain handi ezartzea litzateke ideala. Haatik, bereizmena bermatzeaz gain, maiztasunak handiak kommutazioan galerak ere handitzen ditu. Laburbilduz, bandazabalera eta erresonantziak ezarritako murrizketak betetzen dituen maiztasun txikiena ezarri da.

PmodHB3 moduluaren *dir* seinalea *and* ate batera bestera baino lehenago heltzen denez (*not* ateak eragindako atzerapenagatik), aldatzean *glitch*ak agertu daitezke. *en*ek maila baxua duen bitartean bi kommutazio pareak moztuta daude eta ez dago inolako arriskurik. Maila altua duenean, aldiz, eta pareetako bat behintzat *on* dagoenean, *dir* aldatuz gero bi pareek *not* atearen atzerapenak iraun bitartean egoera berdina hartzen dute (1.39. irudia) [4, pp. 34-35].



1.39. Irudia: PmodHB3 *moduluaren ate logiken* glitch*ak.*

*dir*en goranzko aldaketan bi kommutazio pareak *on* jartzen badira, VMek zirkuitulaburra egiten du H-zubiak zehar, transistoreak errez. Modulua babesteko, beraz, sistemak beharrez *dir* aldatu bitartean maila baxuan jarri beharko du *en*. Nahiz eta beheranzko aldaketetan erretzeko arriskurik ez egon (bi pareak *off* jartzen direlako), noranzko aldaketa edozein dela ere prozedura jarraituko du *anie_hbridge* osagaiak.

1.40. irudiak PWM osagaiaren irteera *en_in* gisa hartuta eta kontrolagailuaren noranzkoa *dir_in* bezala, txartelaren irteerak zuzenean kudeatzen dituen FSMaren fluxu diagrama aurkezten du. Sarrerak *clk_hb* erlojuaren arabera lagintzen ditu eta noranzkoan aldaketarik ez dagoen bitartean zuzenean esleitzen ditu seinaleak. Aldatzean, aurreko balioa mantentzen du *en* ezgaitu baino lehen, eta noranzkoa bi laginketetan behintzat egonkorra bada *act* seinaleak noranzko berria hartzen du. Aldatu eta egonkortu bitartean, ezgaituta mantentzen da H-zubia.

```
process(clk,srst)
begin
if rising_edge(clk) then
 dir_ipre <= dir_in;
 pre <= act;
```



1.40. Irudia: *H-zubia ez erretzeko noranzko aldaketak kudeatzeko FSMa.*

```
 if dir_ch='1' then
      hbga <= dis_en; wa <= (others => '0');
 else hbga <= hbgn;   wa <= wn; end if;
end if;
end process;

dir_ch <= dir_ipre xor dir_in;
dir_out <= act;
en_out <= en_in when hbga=fw else '0';
```

8.1.4. Modeloa, PIDaren doiketa eta T_s



1.41. Irudia: *Doiketa: 1.18. taulan adierazitako doiketarekin maila sarrerari erantzuna (iragazitako jarraitua eta diskretua).*

2. Dokumentuan bildutako saiakuntzen emaitzak baliatuz eta hobestutako plantaren modeloa erabiliz, 1.18. taulan adierazitako doiketa ezarri da, bertan azaltzen diren baldintzekin.

Plantaren modeloa eta kontrolagailua doituta izanik, begizta itxiaren banda zabalera aztertu da, 4.4. atalean adierazitakoak jarraiki. 9,95 Hz-eko banda zabalera izanik, $\approx 10 \cdot 20 = 200$ Hz-eko laginketa-maiztasuna ezartzea litzateke seguruena. Behin-betikotzat jo baino lehen kodetzaile

P	1.625	Step time	.01	Values	(0 : .75)
I	6.25	Rise time	.275	Rise	90%
D	0.075	Setting time	.65	Setting	2.5%
		Overshoot	2.5%	Undershoot	2.5%

1.18. Taula: *Doiketa: korronte zuzeneko motorra.*

inkrementalaren bereizmena aztertu behar da (1.19. taula).

$$\frac{1200 \cdot 50}{60} \cdot T_s \cdot modua = 1000 \cdot modua \quad (\frac{inpultsu}{laginketa})$$

	$T_s = 5ms$	$T_s = 10ms$
X1	5	10
X2	10	20
X4	20	40

1.19. Taula: *Laginketa-maiztasuna eta irakurketa moduaren araberako bereizmena.*

Egoerarik txarrenean, *X1* moduan, F_s =200 Hz maiztasunarekin bereizmena murritzegia da kontrola praktikoa izan dadin. Sarreran etengabeko aldaketa bortitzak izateak kontrolagailuaren erantzuna ezegonkortu dezakenez, T_s =10 ms aukeratu da, bereizmen bikoitza ematen duena *X10* gain-laginketa faktorearekin.

8.1.5. Sistema osatzea

1.23. irudian adierazitako egitura jarraituz, *input*, *output*, *man*, *timing* eta *pid* moduluak fitxategi bakarrean bateratu dira, *norm* osagaiak elkarren arteko datu-fluxua kudeatzen duelarik.

Sarrerak

Parametroak ezartzerakoan, *var_wl* eta *count_wl* kalkulatzeko (1.18) eta (1.19) erabili dira, hurrenez hurren. Kalkulu erroreak murrizteko *ref_wl* eta *i_wl* parametroetan *var_wl*en luzera berdina jarri dira.

Irteera

Kontrolagailuaren irteeraren luzera ezartzeko (1.21) adierazpena erabili da eta bereizmena eta PWM seinalearen maiztasunaren arteko orekan *o_wl* parametroari 11 esleitu zaio. F_{pwm} = 5 MHz izanik, $\frac{5\,\text{MHz}}{2^{10}} = 4{,}89\,\text{kHz}$ maiztasuneko irteera du sistemak.

Konstanteak

6. atalean jarraitutako prozedura berdinak konstanteentzat 1.20. taulak biltzen dituen emaitzak eman ditu. *k_wl* parametroak, beraz, 5*bit*eko luzera adierazten du, eta *minbp* 0 da.

	Zehatza	Konstantea	Koma bitarra	Hitz-luzera
$K_p = P$	1.625	13	3 (pbp)	4+1
$K_i = I \cdot \frac{T_s}{2}$	0,03125	1	5 (ibp)	1+1
$K_d = D \cdot \frac{2}{T_s}$	15	15	0 (dbp)	4+1

1.20. Taula: *Kontrolagailuaren konstanteak koma finkoan adieraztea.*

5. atalean azaldu bezala, zehaztasun osoa bermatzeko irteerak $o_{wl} = i_{wl} + k_{wl} + irem_{wl} + 1$ baldintza bete behar du. 7+5+1+1 = 14 izanik, 3*bit* mozten dira. Honen eraginez irteera $2^3 = 8$ aldiz geldoagoa da, aldaketa txikienek ez baitute irteeran eraginik. Horrek zeharo moteltzen du kontrola eta praktikan eskasa da.

Aurrekoa ekiditeko 1.20. taula adierazitako koma bitarraren *generic*ei hiru unitate kendu zaizkie, hau da, 8 aldiz handiagoak dira konstanteak: $pbp = 0$, $ibp = 2$ eta $dbp = -3$.

Normalizazioa

Kontrol-sistema osatzen duten modulu ezberdinen arteko datu-fluxua kuantitatiboki zuzena izan dadin, 1.21. taulan bildutako konstanteak deklaratu dira, eta *norm_wl* parametroari 8 egotzi zaio.

Seinalea	Zehatza	Konstantea		Hitz-luzera	Maximo adierazgarria
npidr	40/40	= 1	1 (0)	1+1	40
npidv	40/40	= 1	1 (0)	1+1	40
nopenr	1023/40	≈ 25.5	102 (2)	7+1	1020
nlcdr	1000/40	= 25	25 (0)	5+1	1000
nlcdv	1000/40	= 25	25 (0)	5+1	1000
nlcdo	1000/1023	≈ 0.984375	63 (6)	6+1	1007,015625
nvgar	235/40	= 5.875	47 (3)	6+1	235
nvgav	235/40	= 5.875	47 (3)	6+1	235
nvgao	235/1023	≈ 0.23046875	59 (8)	6+1	235,76953125

1.21. Taula: *Normalizaziorako konstanteak koma finkoan adieraztea.*

8.1.6. UCF

```
NET "clk" LOC = "C9"  |IOSTANDARD=LVCMOS33;
```

```
NET "clk" TNM_NET=clk;
TIMESPEC TS_clk=PERIOD "clk" 20 ns HIGH 40%;

NET "rot(0)" LOC="K18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "rot(1)" LOC="G18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;

NET "LCD_E"  LOC="M18" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "LCD_RS" LOC="L18" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "LCD_RW" LOC="L17" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;

NET "SF_D(0)" LOC="R15" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(1)" LOC="R16" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(2)" LOC="P17" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;
NET "SF_D(3)" LOC="M15" |IOSTANDARD=LVCMOS33 |DRIVE=4 |SLEW=SLOW;

NET "hsync"  LOC="F15" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vsync"  LOC="F14" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vga(0)" LOC="G15" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vga(1)" LOC="H15" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;
NET "vga(2)" LOC="H14" |IOSTANDARD=LVTTL |DRIVE=8 |SLEW=FAST;

NET "btn(0)" LOC="V4"  |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(1)" LOC="H13" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(2)" LOC="K17" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(3)" LOC="D18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;
NET "btn(4)" LOC="V16" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLDOWN;

NET "dir" LOC="L13" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "en"  LOC="L14" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "smooth" LOC="H18" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;
NET "rst" LOC="N17" |IOSTANDARD=LVTTL |PULLUP;

NET "j4o(0)" LOC="D7" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=6;
NET "j4o(1)" LOC="C7" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=6;
NET "j4i(0)" LOC="F8" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW;
NET "j4i(1)" LOC="E8" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW;

NET "led(7)" LOC="F9"  |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(6)" LOC="E9"  |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(5)" LOC="D11" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(4)" LOC="C11" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(3)" LOC="F11" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(2)" LOC="E11" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(1)" LOC="E12" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
NET "led(0)" LOC="F12" |IOSTANDARD=LVTTL |SLEW=SLOW |DRIVE=8;
```

8.1.7. Anie eta Anie-tiny

3C. edo 3E., 3D., eta 3F. eranskinetako iturriak bateratuz azaldutako bi sistemak inplementatu dira. 2-1.2. atalean bi sistemen ezaugarriak adierazten dira: exekuzio denbora, erabilitako

azalera eta baliabideak eta xahututako potentzia.

Nahiz eta *Spartan-3E* egun *Xilinx*ek eskaintzen duen FPGA familia zaharrena izan[47], garatutako diseinuek azalerari begira %12 – 21 bitartean behar dute soilik. Potentziari dagokionean 0,25 W baino gutxiago behar dute, tentsio maximoa 3,3 V-ekoa izanik.

8.1.8. Abiadura-kontrola gauzatzea

Bilboko IITUEko APESek duen laborategian proiektuaren balidazioa gauzatu da. Sostengu digitalean, emandako CDan edo `vimeo.com/unaimartinezcorral` orrialdean, egindako frogen bideoa dago eskuragarri, funtzionalitate guztiak laburbilduz. Jarraian horren bideo-kapturak azaltzen dira:



[47] Logikaren garapenera zuzendutako kostu baxuko familia gisa azaltzen da.





VGAn aurkeztutako marra bertikalen arteko banaketa 100 pixelekoa dela jakinik, eta laginketa-maiztasuna 10 ms-koa denez, segundo bat adierazten dutela ondorioztatu daiteke. Grafikoetan praktikan motorrak 1,5 s inguruko egonkortze-denbora duela ikusi daiteke. 1.18. taulan adierazitako doiketaren helburuetatik gertu ez badago ere, erabilitako erreferentzia-seinalea mailakoa bainoa aldapa izan dela hartu behar da kontuan. Aldi berean, bideoak grabatzean erabilitako maketa ez da garapenean erabilitako bera izan, baizik eta berdina.

9.
Ondorioak

Proiektuaren garapenean emandako hilabetetan ikasitakoa balioestean, memorian agertzea zaila direnak dabiltza garunean bueltaka. Ezinezkoa izango litzateke hitz hauek idaztea zeharkako tresnak diren *sourceforge.net* orrialdeko *Subversion* eta *Allura* barik. Euskarriaren optimizazioa, aldiz, LaTeX eta *Texmaker*-ek ahalbidetu dute. *Dia*, *GIMP*, *Inkscape* eta *QtikZ* erabili dira irudi eta diagramak egiteko. Eta *BibTeX* izan da erreferentzia bibliografikoen kudeatzailea.

Matlab/Simulink eta *ISE/System Generator*-ekin batera, aipatutako tresna guztiak aldi berean erabili izana, eta horrek behartuta planifikazioa jarraitzeko eta baliabideak kudeatzeko prozedurak ikasi izana dira ondorio preziatuenak.

Sarreran adierazitako helburuei begira (1.1. atala), kontrolagailu jarraituaren erantzun baliokidea duen kontrol-sistema modularra, txertatuta eta autonomoa erdietsi da, *Matlab/Simulink*, *ISE/System Generator* eta VHDL lengoaia medio *Spartan3E Starter Kit* txartelean inplementatu da eta, *MV-541 maketa* azterketa kasu, kontrola gauzatu da.

Aurrezarritako metodologia jarraituz atal bakoitzaren aurretiko azterketa teorikoa burutu da, izaera anitzeko hamaika erreferentzia bibliografikotan aurkitutako laguntzari eskerrak. Bildutakoen sintesia egituratu da irakurketa zuzena errazteko eta argi banatuta ager daitezen azterketa teorikoa eta garapen praktikoa.

Kontrolagailu diskretuaren egituran eta VHDL deskribapenera zuzendutako prozeduretan arreta handiena jarri bada ere, plantaren modelo ahalik eta egiazkoena lortzeko argibideak garatu dira.

Ezaugarriei dagokionean, bi inplmentazio garatu dira: *anie-tiny* eta *anie*. Batak LCDa, lau interruptore eta lau sakagailu biltzen ditu, PWM/H-zubia eta kodetzaile inkrementala medio, korronte zuzeneko motorraren kontrola ahalbidetzeko. Bigarrenak, berriz, VGA irteerara konektatutako edozein pantailan 640x480 eta 60 Hz-eko benetako denboran berritutako grafikoa aurkezten du. Bi sakagailu gehiagok kudeatzen dute *anie*: grafikoa hobeto aztertu nahi izatekotan geldi mantentzeko eta pantailak irudiak ondo agertzen dituen ziurtatzeko hiru patroi ezberdin aurkezteko.

Normalizatuta eta norantza kontuan izanik agertzen dira bietan erreferentzia-seinalea, kontrolatu nahi den aldagaia eta kontrolagailuaren irteera. Bietan ere kontrola begizta irekian zein itxian egiteko eta kodetzailearen bereizmena (X1, X2 edo X4) aldatzeko aukera eskaintzen da.

Parametrizazioari esker doiketa eta sarrerako/irteerako osagaiak aldatzeagatik burutu beharreko moldaketak azkar egin daitezkeela ziurtatu da, eta garapenean erabilitako iturri guztiak daude eskuragarri ahal den heinean erabilera errazteko.

FPGAren $\%12-21$ azalera hartzen duten sistemak direnez, hardwarea aldatzeko beharrik gabe, sistema hazteko baliabide ugari daude erabilgarri. Hainbat PID darabiltzaten egitura konplexuagoek edo txertatutako mikrokontrolagailuek tokia dute kasu konplexuagoetara moldatzeko, adibidez. *anie-tiny* eta *anie* konparatuz, benetako denboran aldagaiak grafikatzen dituen

VGA sistemak baliabideen %10 inguru hartzen duela ondorioztatu daiteke, beste proiektuetan integratzeko aproposa izanik. Kontrolagailuak, berez, 36 flip-flop, 6 batutzaile/kentzaile, 4 konparadore eta 3 biderkatzaile baino ez ditu erabiltzen.

Potentziari dagokionean, 0,25 W baino gutxiago xahutzen dute egoerarik txarrenean, xedean autonomoak izanik baterien iraupena bermatuz. Nahiz eta kontuan hartu behar den, aldakorrak edo ezinbestekoak ez direnez, kalkulu horrek ez dituela kontuan hartzen plantari dagozkion kontsumoak, ezta monitore edo LCD pantailarenak.

Azterketa kasu izan den maketak eta aukeratutako sarrerek/irteerek erabat mugatzen dute sistemaren eraginkortasuna. Lehenengo hurrenerako egokia bada ere, ez du abiadura handiko kontrolik ahalbidetzen. Hau dela eta, ez da sistemaren ahalera osoa frogatzeko paradarik egon. Zuzena bada ere, horren planta motela kudeatzeko zeharo geldoagoak diren plataformak erabili daitezke.

9.1. Wishlist

Etengabean hobetzeko irrikak bultzatuta, aurrekoa eta beste hainbat osatzeko hau da aurkeztean autorearen etorkizunerako gurari zerrenda:

- Azterketa kasuak
  - Daudenekin egin daitezkeen ariketak osatzeko modulu berriak garatzea.
  - Kasu berriak lantzea.
- Mikrokontrolagailu eta mikroprozesadoreekin elkarlana
  - Komunikazioa
  - Hardwarea
- Autonomia
  - Erabiltzailearen kudeaketa hobetzeko moduluak hobetzea/garatzea.
  - Gailu periferiko berriak erabiltzeko moduluak garatzea.
- Dokumentazioa
  - Trebatzeko gidak, praktikak, laburpenak, etab. idaztea.
  - Formatu elektroniko dinamikoak baliatuz trebakuntzarako baliabideak sortzea.

*Pierre St. Martin*en baitan, elektronikan ingeniaritza ikasleentzat ikasgai ezberdinetan ikusitako ezagutza teoriko banatuak elkarrekin aztertu eta barneratzeko bidea nahi du izan. Behin eta berriz gurpila asmatu ordez, urte batetik bestera egindako garapenak integratuz. Bide batez, taldeen tamaina dela eta maiz behar bezala garatu gabe geratzen diren zeharkako konpetentzien jabetze-prozesua bultzatuz. Hala nola, proiektu zehatzak osotasunean egokitzea edo paraleloan

dabiltzan eta klase bereko kideak ez diren garatzaileekin, urruneko tresnak medio, talde-lana burutzea.

Azken lerroak profitatuz, nahiz eta proiektuarekin erlazio zuzena ez izan, beti laguntza adi eta zintzoa eskaini duela gogora, *Iñigo Oleagordia Aguirreri* esker onik beroenak. *Koldo*ri, bidai luze honetan karburoari eutsi dion gidariari, mirespen osoa.

BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLA

INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOA: INDUSTRIA ELEKTRONIKA

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA

Anie - 2. Dokumentua: Neurketak eta kalkuluak

IKASLEAREN DATUAK	**ZUZENDARIAREN DATUAK**
	Koldo Basterretxea Oyarzabal koldo.basterretxea@ehu.es Teknologia Elektronikoa
SIN.: DATA: 2013ko apirilaren 12a	SIN.: DATA:

Gaien Aurkibidea

1.
Korronte zuzeneko motorra

1.1. Plantaren modelatzea eta identifikazioa



2.1. Irudia: *Identifikazioa: osziloskopio bitartez jasotako erantzunak (korronte zuzenarekin, goian, eta kontrolagailuarekin, behean).*

1.1.1. Identifikazioa burutzea

Nahiz eta kontrolerako nahikoa izan, kodetzaile inkrementalak eskainitako bereizmena ez da egokia plantaren identifikaziorako. Hau dela eta takogeneradorea erabili da plantaren irteera neurtzeko, osziloskopio batekin zuzenean irakurriz.

u_{dc}	$y_{dc\infty}$		K_{dc}	u_{pwm}	$y_{pwm\infty}$		K_{pwm}
12,0 V	9,6 V	%100	-	%100	9,4 V	%100	-
10,2 V	7,8 V	%81, 25	0,956	%85	7,6 V	%80, 85	0,951
9,6 V	7,4 V	%77, 08	0,964	%80	7,2 V	%76, 60	0,958
9,0 V	6,8 V	%70, 83	0,944	%75	6,6 V	%70, 21	0,936
8,4 V	6,2 V	%64, 58	0,923	%70	6,0 V	%63, 83	0,912
7,8 V	5,4 V	%56, 25	0,865	%65	5,2 V	%55, 32	0,851

2.1. Taula: *Identifikazioa: K (korronte zuzeneko iturria eta kontrolagailua begizta irekian).*

2.1. taulak adierazten dituen emaitzak aztertuta, H-zubia erabiltzeak 0,2 V-eko jauzia era-

giten duela ikus daiteke. Lehenengo kontrolerako berebiziko egiaztasuna behar ez denez, ordea, zuzeneko saiakuntzaren emaitza hautatu da.

Plantaren erantzuna, 1-3. atalean adierazitakoen arabera, lehenengo ordeneko esponentzial batez ordezkatzeko, funtzioaren τ parametroa askatu behar da, denbora konstantea hain zuzen ere. Azken balioaren teoremaren arabera, $\tau = \%63.2 \cdot y(\infty)$, $2\tau = \%86.4 \cdot y(\infty)$, eta $3\tau = \%95 \cdot y(\infty)$ berdinketak ezagututa 2.2. taulan bildutako saiakuntzak burutu dira.

u_{dc}	τ	2τ	3τ
10,2 V	4,93 V 300 ms	6,74 V 420 ms	7,41 V 540 ms
9,6 V	4,68 V 240 ms	6,39 V 400 ms	7,03 V 560 ms
9,0 V	4,30 V 230 ms	5,88 V 390 ms	6,46 V 560 ms
8,4 V	3,92 V 200 ms	5,36 V 360 ms	5,89 V 52 mss
7,8 V	3,41 V 160 ms	4,67 V 280 ms	5,13 V 400 ms
u_{pwm}	τ	2τ	3τ
%85	4,80 V 460 ms	6,57 V 700 ms	7,22 V 960 ms
%80	4,55 V 420 ms	6,22 V 540 ms	6,84 V 860 ms
%75	4,17 V 340 ms	5,70 V 480 ms	6,27 V 850 ms
%70	3,70 V 250 ms	5,18 V 410 ms	5,70 V 650 ms
%65	3,29 V 170 ms	4,49 V 290 ms	4,94 V 410 ms

2.2. Taula: *Identifikazioa: τ (korronte zuzeneko iturria eta kontrolagailua begizta irekian).*

1.1.2. Plantaren oinarrizko modeloa aukeratzea

$$\alpha = \frac{\overline{3\tau - 2\tau} + \overline{2\tau - \tau} + \overline{\tau}}{3} \qquad \beta = \frac{\overline{3\tau - 2\tau} + \overline{2\tau - \tau}}{2} \qquad \gamma = \overline{\tau} - \beta \tag{2.1}$$

Aurrekoak bateratuz, bi identifikazio ezberdin burutu direnez, bost modelo aztertu dira (2.2): FOT_{dc}, FOT_{pwm}, $FOPDT_{dc}$, $FOPDT_{pwm}$ eta $DFOPDT_{pwm}$. (2.1) adierazpenak bildutako tarteko parametroek 2.1. eta 2.2. tauletako emaitzen interpretazioa azaltzen dute.

$$\frac{\overline{K}_{dc}}{\alpha_{dc}s+1} \qquad \frac{\overline{K}_{dc}}{\beta_{dc}s+1}e^{-\gamma_{dc}s} \qquad \frac{\overline{K}_{pwm}}{\alpha_{pwm}s+1} \qquad \frac{\overline{K}_{pwm}}{\beta_{pwm}s+1}e^{-\gamma_{pwm}s} \qquad z^{-\text{round}(\frac{\gamma_{pwm}}{T_s})}\frac{\frac{K_{pwm}\cdot T_s}{\beta_{pwm}}}{z - e^{\frac{-T_s}{\beta_{pwm}}}} \tag{2.2}$$

1.1.3. Sarrerako/irteerako osagaien modeloak aurkeratzea

H-zubia eta PWM modulazioaren eragina modelatzeko, *Mathworks*en adibideetan eskuragarri dauden *Controlled PWM Voltage* eta *H-Bridge* blokeak erabili dira. Darabiltzaten seinaleak *fisiko* motakoak izanik, beste elementuekin batera erabiltzeko *Simulink PS Converter* blokeak jarri dira, formatu aldaketa eginez.



2.2. Irudia: *Modeloak: PWM modulazioa eta H-zubia.*

1.1.4. Modeloen parametroak ezartzea

Hainbat saiakuntza ezberdin burutu direnez, modeloei esleitu beharreko parametroen balioak, (2.1), lortzeko batazbestekoak kalkulatu dira, 2.3. taulak biltzen duenez. Hauek (2.2)en ordezkatuz, 2.4. taulako transferentzia funtzioak lortu dira.

	$\overline{K}$	α	β	γ
dc	0,93	200 ms	145 ms	80 ms
pwm	0,922	280 ms	200 ms	110 ms

2.3. Taula: *α, β eta γ denbora konstateak: 2.1. eta 2.2. tauletako emaitzak oinarri.*

2.3. irudiak plano jarraituan adierazitako lau transferentzia funtzioen erantzunak aldaratzen ditu. Osziloskopiaren irudiei begira, FOPDT modeloak erabiltzea ondorioztatu da, hauek baitira gertukoenak.

Bestelako blokerik gehitu gabe prozesu osoaren modelo gisa erabiltzeko $FOPDT_{pwm}$ edo $DFOPDT_{pwm}$ zuzenena litzateke. Aurreko azpiatalean adierazitako blokeekin, ordea $FOPDT_{dc}$ erabili da, H-zubiaren eragina bi aldiz kontuan ez hartzeko. 2.4. irudiak aukera biak konparatzen ditu. Bertan antzeman daiteke H-zubiak erreferentzia-seinalearen hedaduran eragindako atzerapena (berdez). Honek, planta osoaren banda zabalera murriztuko du, eta doiketak atal deribatiboaren ezarpena baldintzatuko du, hori baita atalik azkarrena.

FOT_{dc}	$\frac{0,93}{0,2s+1}$	
FOT_{pwm}	$\frac{0,922}{0,28s+1}$	
$FOPDT_{dc}$	$\frac{0,93}{0,145s+1}e^{-0,08s}$	
$FOPDT_{pwm}$	$\frac{0,922}{0,2s+1}e^{-0,11s}$	
$DFOPDT_{pwm}$	$\frac{\frac{0,922\cdot 0,01}{0,2}}{z-e^{\frac{-0,01}{0,2}}}z^{-\text{round}(\frac{0,11}{0,01})}$	$\frac{0,0461}{z-0,95123}z^{-11}$

2.4. Taula: *Modeloak: FOT_{dc}, FOT_{pwm}, $FOPDT_{dc}$, $FOPDT_{pwm}$ eta $DFOPDT_{pwm}$.*



2.3. Irudia: *Konparaketa: FOT_{dc}, FOT_{pwm}, $FOPDT_{dc}$, $FOPDT_{pwm}$ (begizta irekia).*



2.4. Irudia: *Konparaketa: H-zubia eta PWM modulazio bitarteko $FOPDT_{dc}$ (gorria) eta $DFOPDT_{pwm}$ (urdina).*

Hala ere, identifikazioan τ_{dc} eta τ_{pwm} denbora konstanteetan antzeman diren ezberdintasunak nabarmentzen dira: *Simulink* blokeek ez dute horrenbesteko eraginik motorraren denbora konstantean. Aldiz, doiketan egon daitezkeen arazoak antzemateko baliabide hobeak eskaintzen dituzte, eta egituraren konplexutasunaren ikuspuntutik bloke gehiago erabiltzeak parametrizazio aukera gehiago eskaintzen ditu. Hortaz, transferentzia funtzioa soilik erabiltzea alboratu da, sistema erreala erabilitako modeloa baino zertxobait geldoagoa dela jakinik[1].

1.1.5. Bereizmenaren eragina modelatzea

Maketaren kodetzaileak gehienez 40 inpultsu sortuko dituenez laginketa-periodo bakoitzeko, sei bit erabiliko dira gehienez. *Convert* blokeen bitartez *fixdt(1,7,6)* formatoa adierazi da kontrolean eragina modelatzeko. Sarrera eta irteeren balioak normalizatuta egoteagatik definitu da koma bitarra bit adierazgarrietatik ezkerra. Zazpigarren bita biko osagaian zeinua adieraztekoa da.

2.4. irudiak, aurretiaz aipatutakoen gainean, kontrolagailuak jasoko duen seinalea aurkezten du. Garapenean aurrera egin ahala bloke honen funtsa *System Generator*eko blokeek edo VHDL deskribapenean egindakoek ordezkatuko dute.

1.2. Kontrol sistemaren ezaugarriak

Target Device:	xc3s500e-4fg320
Design Goal:	Balanced
Design Strategy:	Xilinx Default (unlocked)

2.5. Taula: ISE*: sintesi eta inplementaziorako baldintzak.*

1-8.1. atalean adierazitako parametroak erabilita, eta 2.5. taulako diseinu baldintzekin, bi diseinu ezberdin inplementatu dira:

- **anie-tiny**: kontrol begiztarako ezinbestekoak direnak (VGArik ez).
- **anie**: osagai guztiak ditu.

2.6. taulan adierazitako *warning* gehienak diseinuaren modulartasunari atxikitu behar zaizkio. zenbait osagairen irteerak erabilgarriak ez izateagatik aske utzi baitira. Azkena, aldiz, PID kontrolagailuaren irteera PWM maiztasunera moldatzean egindako mozketa adierazten du.

Warnings:

- Unconnected output port 'U1_CLKIN_IBUFG_OUT' of component 'anie_dcm'.

[1] PWM seinalearen maiztasunak, laginketa-maiztasuna eta beste hainbat faktore balioetsi ahala diferentzia murriztuko da.

Parsers Errors:	No Errors
Warnings:	11 *anie-tiny* , 8 *anie*
Routing Results:	All Signals Completely Routed
Timing Constraints:	All Constraints Met

2.6. Taula: ISE*: sintesi eta inplementazioaren txostenen ondorioak.*

- Unconnected output port 'U2_CLK0_OUT' of component 'anie_dcm'.
- Unconnected output port 'count' of component 'anie_counter' (3).
- Unconnected output port 'tc' of component 'anie_counter' (2).
- Unconnected output port 'sout' of component 'anie_bcdshift'.
- Dangling pin *DOA3* on block: RAMB16_RAMB16A (2).
- Signal <out_sat<3:0>> is assigned but never used. This unconnected signal will be trimmed during the optimization process.

1.2.1. Kontrol begiztaren egikaritze denbora

Deskribatutako sistemaren lan-maiztasun maximoa 50 MHz ingurukoa da[2], 2.7. taulak adierazi bezala. *anie-tiny* zein *anie* sintesiek abiadura maximoa izanik, izaera modularra medio, VGA kontrolagailuak sistema geldotzen ez duela ondorioztatu deaiteke. Hala ere, txartelak duen erlojua 50 MHz-eko maiztasuna eskaintzen du, eta sistema ez da abiadura maximoan arituko.

Speed Grade:	−4	
Minimum period:	19,410 ns	
Maximum Frequency:	51,520 MHz	
Min. input arrival time before clock:	20,314 ns	19,267 ns
Max. output required time after clock:	40,600 ns	
Max. combinational path delay:	14,622 ns	14,632 ns
	anie-tiny	*anie*

2.7. Taula: ISE*: Timing Summary.*

Kontrol begiztari dagokionean, laginketaren *trigger* seinaleak maila altua hartzen duenetik normalizazio osagaiak baldintzatzen du. Barneko *FSM*ak $4-6$ ziklo behar ditu aldagaia eta erreferentzia irakurri, kontrolagailuaren sarrerak berritu eta konputatutako irteera berritzeko. 5 MHz-eko erloju seinaleak agintzen duenez, egoerarik txarrenean $\frac{1}{5\,\text{MHz}} \cdot 6 = 1{,}2\,\mu\text{s}$ behar ditu sistemak erantzuteko.

[2] *Design Goal* gisa *Timing* ezarriz gero 80 MHz arteko maiztasun maximoak erdietsi daitezke.

Irteera PWM bitartez eragiten denez, ziklo oso bat bukatzea ezinbestekoa da aldaketa benetakotzat jotzeko. Honetan ere erlojua 5 MHz-ekoa da eta 10*bit*eko bereizmena izanik $\frac{1}{5\,\mathrm{MHz}} \cdot 2^{10} = 204{,}8\,\mu$sko periodoa du.

Hortaz, bi faktoreak kontuan hartuz, 206 µs behar dira kontrol begizta egikaritzeko. Benetako denbora ziurtatzeko eta kontrolagailuaren erantzuna jarraituaren baliokidea dela onartzeko egikaritze denbora $\frac{T_s}{100}$ izan behar da. Aukeratutako balioek ez dute baldintza hori betetzen, $\frac{10\,\mathrm{ms}}{206\,\mu\mathrm{s}} \approx 50$. Berezimenari bit bat kentzearekin nahikoa litzateke, baina kontrolagailuaren aldaketak nabarmentzeko nahiago izan da bereizmena mantentzea.

1.2.2. Erabilitako azalera

	anie-tiny		*anie*		
Logic Utilization	**Used**		**Used**		**Available**
Number of Slice Flip Flops	412	4%	583	6%	9,312
Number of 4 input LUTs	938	10%	1,529	16%	9,312
Number of occupied Slices	624	13%	1,009	21%	4,656
Total Number of 4 input LUTs	1,004	10%	1,665	17%	9,312
Number used as logic	903		1,492		
Number used as a route-thru	66		136		
Number used for Dual Port RAMs	32		32		
Number used as Shift registers	3		5		
Number of bonded IOBs	29	12%	36	15%	232
Number of RAMB16s			4	20%	20
Number of BUFGMUXs	7	29%	9	37%	24
Number of DCMs	2	50%	2	50%	4
Number of MULT18X18SIOs	7	35%	10	50%	20
Average Fanout of Non-Clock Nets	3.24		3.21		

2.8. Taula: ISE*: Device Utilization Summary.*

Sintesiek %12 eta %21 azalera erabilera emaitzak eman dituzte *anie-tiny* eta *anie*rentzan, hurrenez hurren. 2.8. taulak erabilera logikoaren arabera azaltzen ditu baliabideen zenbakia eta ehunekoa.

2.5. eta 2.6. irudiek inplementazioen mapak agertzen dituzte. Bertan argi antzeman daiteke erabilitako azalera. Sintetizatutako gailu eta osagaien zerrenda zehatzagoa 3G. eranskineko txostenetan aurkitu daiteke.



2.5. Irudia: *Inplementazioa:* anie-tiny *diseinuaren FPGAren erabilera.*



2.6. Irudia: *Inplementazioa:* anie *diseinuaren FPGAren erabilera.*

1.2.3. Xahututako potentzia

*Xilinx*ek web-gunean[3] *Microsoft Excel 2003 (.xls)* formatuan banatutako *Xilinx Power Estimator (XPE)*[4] tresna eskaintzen du. Inplementazioek erabilitako baliabideen arabera gutxi gora beherako potentzia xahutzea kalkulatzea ahalbidetzen du, hardwarearen diseinuan zer nolako aireztapena behar den jakiteko xedez. Helburu berberarekin, *ISE* inguruneak *Place & Route* atalean *Xilinx XPower Analyzer (XPA)* tresna dauka, inplementatutako proiektutik datuak zuzenean hartzen dituena.

*Philofsky*k [43] azaldutako argibideak jarraituz, *ISE* ingurunean sintetizatu eta inplementatu ostean *.mrp* formatuan emandako *Map* txostenak erabili dira *XPE* tresnan eta *XPA* ere abiatu da. Biek oso antzeko emaitzak eman dituzte, *XPA*ek xehetasun gehiago izanik gutxi gora behera 10 mW gutxiagoko kontsumo osoa emanez.

Proiektu honetan produktu komertziala den txartela erabili denez, eta ez zaionez inolako aireztapen sistemarik ezta xahutzailerik gehitu, 0 LFM adierazi dira. Egoerarik txarrenean kontsumoa aztertzeko, 50 °C-eko giro tenperatura adierazi da eta bi tresnen emaitzetatik balio altuenak hartu dira. Honek jarraian adierazitako maximoak eman ditu *anie-tiny* eta *anie* inplementazioentzat:

Device

Part:	XC3S500E
Package:	FG320
Grade:	Commercial
Process:	Maximum
Speed Grade:	−4

Block Summary

Clock	0,009 W	0,011 W
Logic	0,003 W	0,005 W
IO	0,010 W	0,014 W
BRAM	-	0,004 W
DCM	0,034 W	
MULT	0,006 W	0,008 W

Thermal Information

Ambient Temp:	50 °C	
Airflow:	0 LFM	
ΘJA:	25,9 $\frac{°C}{W}$	
Max Ambient:	79,4 °C	79,0 °C
Junction Temp:	55,6 °C	56,0 °C
	anie-tiny	*anie*

Power Summary

Optimization:	None	
Data:	Production	
Quiescent:	0,155 W	
Dynamic:	0,063 W	0,075 W
Total	0,217 W	0,231 W
	anie-tiny	*anie*

Voltage Source Information

				ICC		ICCQ
VCCAUX	2,5 V	0,110 W		0,013 A		0,031 A
VCCINT	1,2 V	0,094 W	0,104 W	0,017 A	0,025 A	0,062 A
VCCO 3.3	3,3 V	0,013 W	0,016 W	0,003 A	0,004 A	0,001 A
		anie-tiny	*anie*	*anie-tiny*	*anie*	

[3] xilinx.com/products/design_tools/logic_design/xpe.htm
[4] Version: 11.1 ; Release Date: Apr 8, 2009.

FPGA familiaren ezaugarri orrietan begiratuz gero [36], erdietsitako balioak adierazitako mugen barnean daudela ikus daiteke, eta koherenteak direla.

Atal honetan azaldutako emaitzak Xilinx*en* ISE *inguruneko tresnen bitartez eskuratu dira: inplementazioan sortutako txostenak zein* PlanAhead Floorplanner *edo* Xilinx XPower Analyzer*. Formatuaren mugak direla eta, laburpena baino ez da azaltzen hemen. Sostengu digitalean txosten osoak aurkitu daitezke. Xehetasun txikiagoak aztertzeko eranskinetan azaldutako iturriak baliatuz* ISE *ingurunean proiektua eginez gero, tresna guztiek bereizmen osoko informazioa emango dute.*

2.
Garapenerako zerbitzariaren estatistikak

4A. eranskinean azaldutako proiektu osoaren aurrekarietan aipatutakoek adierazten dutenez, sei garapenetatik lautan software garapenerako bertsio-kontrol sistema erabili izan da:

sourceforge.net : ZTPK, OHKIS eta ohkis-gtk

laforja.rediris.es : BμC

lokala : Acher

Lehenengo bietan, bertsio-kontrolaz gain, beste hainbat baliabide daude eskuragarri, hala nola, baimen ezberdineko hainbat erabiltzaileen kudeatzailea, web-gunea, banaketa zerrenda, erroreen konponketa eskaera eta jardueren jarraitzailea (*tracker*a), edota foroak. *laforja.rediris.es* plataforma *sourceforge.net*en oinarrituta egoteagatik bigarrena aukeratu da *Anie*ren garapenerako. Proiektu honek *OHKIS*en hainbat atal dituenez, eta *ohkis-gtk* ere zerbitzari eta proiektu berdinean gordeta dagoenez, eskaera berria egin ordez `ohkis.sourceforge.net` erabili da.

Honetan, hiru erabiltzailek hartu dute parte guztira. *elkano*k eta *jbarast*ek, soilik eta hurrenez hurren, *ohkis-gtk* eta *auto* proiektuak landu dituztenez, txosten honetan ez dira horiei eta soilik horiei dagozkienak adierazi[5]. Jarraian orokorrak eta autoreari, *opositivo* erabiltzaileari, dagozkionak aurkezten[6] dira:

2.1. Subversion



[5]Estatistika osoak ikusteko, jo proiektuaren zerbitzariko erregistro irekietara. Tresna zehatzak: *statsvn*, *gource*, *allura*...

[6]2009 urteko jarduerak *OHKIS* proiektuari dagozkio, 2010eko irailera bitartekoak *ohkis-gtk* atalari, eta ordutik gaurrerakoak *Anie*ri.


: File Count
Files
Date


:Lines of Code and Churn Level
Lines
Lines touched
Date
Lines of Code
Lines touched


: Contributed Lines of Code
Lines
Date
elkano
jbarast
opositivo


: Activity by Day of Week for opositivo
Commits
3,500
3,250
3,000
2,750
2,500
2,250
2,000
1,750
1,500
1,250
1,000
750
500
250
0
Sunday
Monday
Tuesday
Wednesday
Thursday
Friday
Saturday


: Activity by Hour of Day for opositivo
Commits
1,800
1,700
1,600
1,500
1,400
1,300
1,200
1,100
1,000
900
800
700
600
500
400
300
200
100
0
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23


: Activity of opositivo
ohkis_fpga/Documentos/Referencias/
anie/argibideak_doc/iturriak/
anie/argibideak_doc/bib/
anie/argibideak_doc/memoria/
anie/argibideak_doc/latex/
(other)

2.2. Allura tracker

 # tickets: 33

 # open tickets: 13

 # closed tickets: 20

# of comments on tickets: 62

	Summary	Due Date	Progress
1.0	IIT, Elektronika (KAP)	2013/04/05	6/6
doc	Dokumentazioa (KAP)	2013/04/07	11/11
pre	Aurkezpena	2013/04/20	2/5
r1.0	Lehenengo ateratzea	2013/04/09	1/1
1.5	Wishlist	2013/07/31	0/8
2.0	hard-soft co-design	2013/12/31	0/1
3.0	communication	2014/05/31	0/1

#	Summary	Status	Updated
	1.0		
5	VGA	closed	2012/12/16
14	Openloop	closed	2012/12/16
18	DIR eta REF	closed	2012/12/20
19	TRIGGER	closed	2012/12/21
21	Loop execution time	closed	2013/04/01
24	Identifikazioa	closed	2013/04/01
	doc		
1	Indice de simbolos	closed	2013/02/24
3	Revisar anexos	closed	2012/04/11
6	co-simulation results	closed	2012/12/24
10	Citas	closed	2013/01/06
13	Brushless	closed	2013/01/06
23	textbf, textit, emph	closed	2013/03/16
25	Ondorioak	closed	2013/04/05
28	Aurrekontua	closed	2013/04/10
30	Lizentzien irudiak	closed	2013/04/05
31	titlesubsection ordez, subsection soilik	closed	2013/04/06
33	Euskalterm Deuna	closed	2013/04/11
	pre		
2	Bosquejos	closed	2013/03/16
4	Aurkezpena	open	2012/12/12
8	Jueguetes	closed	2013/02/24
17	Beca	open	2012/12/17
20	Erabiltzaile gida	open	2012/12/25
	r1.0		
16	Lizentzia	closed	2013/04/01

	r1.5		
7	Implementation comparison	pending	2013/04/07
12	Hardware in the loop	pending	2013/04/07
15	Iturriak komentatzea	pending	2013/04/07
22	Slope	open	2013/02/07
26	Doiketak eta Ts LCD bitartez aldatzea	open	2013/04/04
27	int8, int16	open	2013/04/04
29	VGA/LCD normalizazioa X arabera	open	2013/04/05
32	Osagaiak paketatzea	pending	2013/04/07
	2.0		
11	Añelarra	open	2012/12/16
	3.0		
9	Larra	open	2012/12/12

BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLA

INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOA: INDUSTRIA ELEKTRONIKA

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA

Anie - 3. Dokumentua: Eranskinak [kodea]

IKASLEAREN DATUAK	**ZUZENDARIAREN DATUAK**
	Koldo Basterretxea Oyarzabal koldo.basterretxea@ehu.es Teknologia Elektronikoa
SIN.: DATA: 2013ko apirilaren 12a	SIN.: DATA:

Gaien Aurkibidea

3A.

Matlab: .m *script*ak

tune.m

```
P=6;
I=0.125;
D=0.25;
Tf=.01;
Ts=0.011;
sat=12;
sTs=Ts/3;
```

save_bw.m

```
% sTs -> Scope Sample Time
% Min Simulation Time sTs*samples
% bw.dat

clear;
tune;

sTs=Ts/3;
samples = [325,300];
freq_range = [0.01,15];
names={'y' 'u' 'mag' 'deg' '.dat'};
models={'cont','discrete','contdfilt'};

labels=strcat('freq');
in = frest.Sinestream('Frequency',linspace(freq_range(1),freq_range(2),samples
    (2)),'FreqUnits','Hz');

towrite=0;

for n=1:3
  mdl=char(strcat('PID_',models(n)));

  sysest=0; simout=0; mag=0; phase=0; freq=0;

  [sysest,simout] = frestimate(mdl,getlinio(mdl),in);
  [mag,phase,freq]=bode(sysest);

  for m=1:2
    labels=strcat(labels,'\t',names(2+m),'_',models(n));
  end

  towrite(1:samples(2),(2*n),1)=20*log10(mag(1,1,1:samples(2)));
  towrite(1:samples(2),(2*n)+1,1)=phase(1,1,1:samples(2));
end

```

```
towrite(1:samples(2),1)=freq(1:samples(2))/(2*pi);

filetowrite = fopen(char(strcat('bw',names(5))),'wt');
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite(char(strcat('bw',names(5))),towrite,'-append','delimiter','\t','
    precision','%.3f','roffset',1);
```

save_ts.m

```
% sTs -> Scope Sample Time
% Min Simulation Time sTs*samples
% ts.dat

clear;
tune;

sTs=.01;
mdl='PID_discrete';
names={'y' 'u' 'cont'};
samples = [300];
Tp=1.1;
mul=[2,5,10,30,50,100];

labels=strcat('t','\t','ref');
for m=1:2
  labels=strcat(labels,'\t',names(m),'_',names(3));
end

towrite=0;

for n=1:6
  Ts=Tp/mul(n);

  y=0; u=0; data=0;

  sim(mdl);
  data.y=y;
  data.u=u;

  for m=1:2
    labels=strcat(labels,'\t',names(m),'_',sprintf('%i',mul(n)));
  end

  towrite(1:samples,2*n+3)=data.y.signals.values(1:samples,2);
  towrite(1:samples,2*n+4)=data.u.signals.values(1:samples);
end

towrite(1:samples,1)=data.y.time(1:samples);
towrite(1:samples,2)=data.y.signals.values(1:samples);

```

```
mdl=char(strcat('PID_',names(3)));

y=0; u=0; data=0;

sim(mdl);
data.y=y;
data.u=u;
towrite(1:samples,3)=data.y.signals.values(1:samples,2);
towrite(1:samples,4)=data.u.signals.values(1:samples);

filetowrite = fopen(char('ts.dat'),'wt');
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite(char('ts.dat'),towrite,'-append','delimiter','\t','precision','%.3f','
    roffset',1);
```

save_step.m

```
% sTs -> Scope Sample Time
% Min Simulation Time sTs*samples
% step.dat

clear;
tune;

sTs=.005;
samples = [300];
names={'y' 'u' '.dat'};
models={'cont','discrete','contdfilt','fp'};

labels=strcat('t','\t','ref');
towrite=0;
for n=1:4
  mdl=char(strcat('PID_',models(n)));
  y=0; u=0; data=0;
  sim(mdl);
  data.y=y;
  data.u=u;

  for m=1:2
    labels=strcat(labels,'\t',names(m),'_',models(n));
  end

  towrite(1:samples(1),(2*(n+1))-1)=data.y.signals.values(1:samples(1),2);
  towrite(1:samples(1),2*(n+1))=data.u.signals.values(1:samples(1));
end

towrite(1:samples(1),1)=data.y.time(1:samples(1));
towrite(1:samples(1),2)=data.y.signals.values(1:samples(1));

filetowrite = fopen(char(strcat('step',names(3))),'wt');
```

```
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite(char(strcat('step',names(3))),towrite,'-append','delimiter','\t','
    precision','%.3f','roffset',1);
```

save_branch.m

```
% sTs -> Scope Sample Time
% Min Simulation Time sTs*samples
% adar.dat

clear;
tune;

mdl='PID_comp';
sTs=.005;
minmax=200;
samples=[400];
names={'pro','int','der','.dat'};
models={'cont','discrete','contdfilt'};

y=0; u=0; data=0;
sim(mdl);
data.pro=pro;
data.int=int;
data.der=der;

labels={};
towrite=0;
for n=1:3
  labels=strcat(labels,'t_',names(n),'\t');
  towrite(1:samples,((4*n)-3))=data.pro.time(1:samples);
  for m=1:3
    labels=strcat(labels,names(n),'_',models(m),'\t');
    towrite(1:samples,((4*n)-(3-m)))=data.(char(names(n))).signals.values(1:
        samples,m);
  end
end

towrite = max(towrite,-minmax);
towrite = min(towrite,minmax);

filetowrite = fopen(char(strcat('branch',names(4))),'wt');
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite(char(strcat('branch',names(4))),towrite,'-append','delimiter','\t','
    precision','%.4f','roffset',1);
```

save_cont.m

```
% sTs -> Scope Sample Time
```

```
% Min Simulation Time sTs*samples(3)
% ref.dat, step_cont.dat, bw_cont.dat

sTs=.01
samples = [3,256,300];
freq_range = [0.01,15];
names={'y' 'u' 'mag' '.dat'};
models={'cont','discrete','ii','backward','tustin','tustinbackward','contfilt'};

mdl = 'PID_cont';
sim(mdl);
data.y=y_cont;
data.u=u_cont;

%ref
towrite=0;
towrite(1:samples(1),1)=data.y.time(1:samples(1));
towrite(samples(1)+1,1)=data.y.time(samples(2));
towrite(1:samples(1),2)=data.y.signals.values(1:samples(1));
towrite(samples(1)+1,2)=data.y.signals.values(samples(2));
dlmwrite(char(strcat('ref',names(4))),towrite,'delimiter','\t','precision','%.3f
    ','roffset',1);

towrite=0;
%step_cont
towrite(1:samples(2),1)=data.y.signals.values(1:samples(2),2);
towrite(1:samples(2),2)=data.u.signals.values(1:samples(2));

labels=strcat(names(1),'_',models(1));
labels=strcat(labels,'\t',names(2),'_',models(1));
filetowrite = fopen(char(strcat('step_cont',names(4))),'wt');
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite(char(strcat('step_cont',names(4))),towrite,'-append','delimiter','\t','
    precision','%.3f','roffset',1);

in = frest.Sinestream('Frequency',linspace(freq_range(1),freq_range(2),samples
    (3)),'FreqUnits','Hz');
[sysest,simout] = frestimate(mdl,getlinio(mdl),in);

towrite=0;
%bw_cont
[mag,phase,freq]=bode(sysest);
towrite(1:samples(3),1)=freq(1:samples(3))/(2*pi);
towrite(1:samples(3),2,1)=20*log10(mag(1,1,1:samples(3)));
towrite(1:samples(3),3,1)=phase(1,1,1:samples(3));

labels=strcat('freq');
labels=strcat(labels,'\t',names(3),'_',models(1));
labels=strcat(labels,'\t','deg','_',models(1));
filetowrite = fopen(char(strcat('bw_cont',names(4))),'wt');
```

```
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite(char(strcat('bw_cont',names(4))),towrite,'-append','delimiter','\t','
    precision','%.3f','roffset',1);
```

save_box.m

```
% sTs -> Scope Sample Time
% Min Simulation Time sTs*samples
% box.dat

clear;
tune;

sTs=.005;
samples = 300;
names={'y' 'u'};
models={'box','discrete','contdfilt'};

labels=strcat('t','\t','ref');
towrite=0;

y=0; u=0; data=0;
sim('PID_box');
data.y=y;
data.u=u;

for n=1:3
  for m=1:2
    labels=strcat(labels,'\t',names(m),'_',models(n));
  end

  towrite(1:samples,(2*(n+1))-1)=data.y.signals.values(1:samples,n+1);
  towrite(1:samples,2*(n+1))=data.u.signals.values(1:samples,n);
end

towrite(1:samples,1)=data.y.time(1:samples);
towrite(1:samples,2)=data.y.signals.values(1:samples,1);

filetowrite = fopen('box.dat','wt');
fprintf(filetowrite,char(labels));
fclose(filetowrite);
dlmwrite('box.dat',towrite,'-append','delimiter','\t','precision','%.3f','
    roffset',1);
```

3B.

Ko-simulaziorako *Blackbox* blokea: deskribapena eta konfigurazio fitxategia

box_pid.vhd

```
1  library ieee;
2   use ieee.std_logic_1164.ALL;
3   use ieee.numeric_std.all;
4
5  entity anie_pid is
6   generic ( i_wl: natural:=12;   o_wl: natural:=22;
7             k_wl: natural:=8;    irem_wl: natural:=1;
8
RAM Style                          : Auto
ROM Extraction                     : Yes
Mux Style                          : Auto
Decoder Extraction                 : YES
Priority Encoder Extraction        : Yes
Shift Register Extraction          : YES
Logical Shifter Extraction         : YES
XOR Collapsing                     : YES
ROM Style                          : Auto
Mux Extraction                     : Yes
Resource Sharing                   : YES
Asynchronous To Synchronous        : NO
Multiplier Style                   : Auto
Automatic Register Balancing       : No

---- Target Options
Add IO Buffers                     : YES
Global Maximum Fanout              : 500
Add Generic Clock Buffer(BUFG)     : 24
Register Duplication               : YES
Slice Packing                      : YES
Optimize Instantiated Primitives   : NO
Use Clock Enable                   : Yes
Use Synchronous Set                : Yes
Use Synchronous Reset              : Yes
Pack IO Registers into IOBs        : Auto
Equivalent register Removal        : YES

---- General Options
```

```
Optimization Goal                  : Speed
Optimization Effort                : 1
Keep Hierarchy                     : No
Netlist Hierarchy                  : As_Optimized
RTL Output                         : Yes
Global Optimization                : AllClockNets
Read Cores                         : YES
Write Timing Constraints           : NO
Cross Clock Analysis               : NO
Hierarchy Separator                : /
Bus Delimiter                      : <>
Case Specifier                     : Maintain
Slice Utilization Ratio            : 100
BRAM Utilization Ratio             : 100
Verilog 2001                       : YES
Auto BRAM Packing                  : NO
Slice Utilization Ratio Delta      : 5

=========================================================================
*                        Advanced HDL Synthesis                         *
=========================================================================

Macro Statistics
# FSMs                                              : 6
# RAMs                                              : 1
 32x8-bit dual-port distributed RAM                  : 1
# ROMs                                              : 3
 16x8-bit ROM                                        : 1
 32x16-bit ROM                                       : 1
 4x5-bit ROM                                         : 1
# Multipliers                                       : 7
 11x8-bit registered multiplier                      : 1
 7x8-bit registered multiplier                       : 3
 8x5-bit multiplier                                  : 1
 9x5-bit multiplier                                  : 2
# Adders/Subtractors                                : 31
 10-bit adder                                        : 1
 14-bit adder                                        : 3
 15-bit adder                                        : 3
 16-bit addsub                                       : 1
 17-bit adder                                        : 1
 17-bit subtractor                                   : 1
 2-bit adder                                         : 1
 2-bit addsub                                        : 1
 3-bit adder                                         : 2
 5-bit adder                                         : 7
 6-bit adder                                         : 2
```

```
 6-bit addsub                                       : 1
 7-bit adder                                        : 1
 8-bit adder                                        : 1
 8-bit subtractor                                   : 1
 9-bit adder                                        : 3
 9-bit subtractor                                   : 1
# Counters                                          : 5
 10-bit up counter                                  : 1
 14-bit up counter                                  : 1
 4-bit up counter                                   : 1
 5-bit up counter                                   : 1
 7-bit up counter                                   : 1
# Registers                                         : 341
 Flip-Flops                                         : 341
# Comparators                                       : 13
 10-bit comparator lessequal                        : 1
 15-bit comparator greater                          : 2
 15-bit comparator less                             : 2
 17-bit comparator greater                          : 1
 2-bit comparator greater                           : 2
 2-bit comparator not equal                         : 1
 5-bit comparator equal                             : 3
 6-bit comparator greater                           : 1
# Multiplexers                                      : 8
 1-bit 16-to-1 multiplexer                          : 1
 1-bit 4-to-1 multiplexer                           : 5
 7-bit 4-to-1 multiplexer                           : 1
 8-bit 8-to-1 multiplexer                           : 1
# Xors                                              : 4
 1-bit xor2                                         : 4

=========================================================================
*                            Final Report                               *
=========================================================================

Design Statistics
# IOs                              : 29

Cell Usage :
# BELS                             : 1448
#      GND                         : 1
#      INV                         : 28
#      LUT1                        : 63
#      LUT2                        : 151
#      LUT2_D                      : 1
#      LUT3                        : 222
#      LUT3_D                      : 2
```

```
#      LUT4                        : 492
#      LUT4_D                      : 3
#      LUT4_L                      : 1
#      MUXCY                       : 216
#      MUXF5                       : 75
#      MUXF6                       : 1
#      OR2                         : 1
#      OR3                         : 1
#      VCC                         : 1
#      XORCY                       : 189
# FlipFlops/Latches                : 412
#      FD                          : 67
#      FDE                         : 42
#      FDR                         : 89
#      FDRE                        : 205
#      FDRS                        : 1
#      FDRSE                       : 1
#      FDS                         : 7
# RAMS                             : 16
#      RAM16X1D                    : 16
# Shift Registers                  : 3
#      SRL16                       : 3
# Clock Buffers                    : 7
#      BUFG                        : 7
# IO Buffers                       : 29
#      IBUF                        : 11
#      IBUFG                       : 1
#      OBUF                        : 17
# DCMs                             : 2
#      DCM_SP                      : 2
# MULTs                            : 7
#      MULT18X18SIO                : 7
```

anie

```
=========================================================================
*                      Synthesis Options Summary                        *
=========================================================================

---- Source Options
Top Module Name                   : anie_bl
Automatic FSM Extraction          : YES
FSM Encoding Algorithm            : Auto
Safe Implementation               : No
FSM Style                         : LUT
RAM Extraction                    : Yes
```

```
RAM Style                          : Auto
ROM Extraction                     : Yes
Mux Style                          : Auto
Decoder Extraction                 : YES
Priority Encoder Extraction        : Yes
Shift Register Extraction          : YES
Logical Shifter Extraction         : YES
XOR Collapsing                     : YES
ROM Style                          : Auto
Mux Extraction                     : Yes
Resource Sharing                   : YES
Asynchronous To Synchronous        : NO
Multiplier Style                   : Auto
Automatic Register Balancing       : No

---- Target Options
Add IO Buffers                     : YES
Global Maximum Fanout              : 500
Add Generic Clock Buffer(BUFG)     : 24
Register Duplication               : YES
Slice Packing                      : YES
Optimize Instantiated Primitives   : NO
Use Clock Enable                   : Yes
Use Synchronous Set                : Yes
Use Synchronous Reset              : Yes
Pack IO Registers into IOBs        : Auto
Equivalent register Removal        : YES

---- General Options
Optimization Goal                  : Speed
Optimization Effort                : 1
Keep Hierarchy                     : No
Netlist Hierarchy                  : As_Optimized
RTL Output                         : Yes
Global Optimization                : AllClockNets
Read Cores                         : YES
Write Timing Constraints           : NO
Cross Clock Analysis               : NO
Hierarchy Separator                : /
Bus Delimiter                      : <>
Case Specifier                     : Maintain
Slice Utilization Ratio            : 100
BRAM Utilization Ratio             : 100
Verilog 2001                       : YES
Auto BRAM Packing                  : NO
Slice Utilization Ratio Delta      : 5
```

```
=========================================================================
*                        Advanced HDL Synthesis                         *
=========================================================================

Macro Statistics
# FSMs                                                : 8
# RAMs                                                : 5
 32x8-bit dual-port distributed RAM                   : 1
 640x3-bit dual-port block RAM                        : 1
 640x8-bit dual-port block RAM                        : 3
# ROMs                                                : 3
 16x8-bit ROM                                         : 1
 32x16-bit ROM                                        : 1
 4x5-bit ROM                                          : 1
# Multipliers                                         : 10
 11x8-bit registered multiplier                       : 2
 7x8-bit registered multiplier                        : 5
 8x5-bit multiplier                                   : 1
 9x5-bit multiplier                                   : 2
# Adders/Subtractors                                  : 48
 10-bit adder                                         : 2
 10-bit subtractor                                    : 4
 12-bit adder                                         : 4
 14-bit adder                                         : 3
 15-bit adder                                         : 3
 16-bit addsub                                        : 1
 17-bit adder                                         : 1
 17-bit subtractor                                    : 1
 2-bit adder                                          : 1
 2-bit addsub                                         : 1
 3-bit adder                                          : 4
 5-bit adder                                          : 7
 6-bit adder                                          : 2
 6-bit addsub                                         : 1
 7-bit adder                                          : 1
 8-bit adder                                          : 4
 8-bit subtractor                                     : 3
 9-bit adder                                          : 4
 9-bit subtractor                                     : 1
# Counters                                            : 10
 10-bit up counter                                    : 2
 14-bit up counter                                    : 1
 2-bit up counter                                     : 1
 3-bit up counter                                     : 1
 4-bit up counter                                     : 1
 5-bit up counter                                     : 1
 7-bit up counter                                     : 2
```

```
 9-bit up counter                                  : 1
# Registers                                        : 479
 Flip-Flops                                        : 479
# Comparators                                      : 49
 10-bit comparator greater                         : 1
 10-bit comparator less                            : 7
 10-bit comparator lessequal                       : 1
 15-bit comparator greater                         : 2
 15-bit comparator less                            : 2
 17-bit comparator greater                         : 1
 2-bit comparator greater                          : 2
 2-bit comparator not equal                        : 1
 5-bit comparator equal                            : 3
 6-bit comparator greater                          : 1
 7-bit comparator equal                            : 2
 8-bit comparator equal                            : 6
 8-bit comparator greater                          : 3
 8-bit comparator less                             : 6
 9-bit comparator greater                          : 3
 9-bit comparator less                             : 8
# Multiplexers                                     : 9
 1-bit 16-to-1 multiplexer                         : 1
 1-bit 4-to-1 multiplexer                          : 5
 3-bit 4-to-1 multiplexer                          : 1
 7-bit 4-to-1 multiplexer                          : 1
 8-bit 8-to-1 multiplexer                          : 1
# Xors                                             : 7
 1-bit xor2                                        : 7

=========================================================================
*                            Final Report                               *
=========================================================================

Design Statistics
# IOs                              : 36

Cell Usage :
# BELS                             : 2405
#      GND                         : 1
#      INV                         : 40
#      LUT1                        : 133
#      LUT2                        : 278
#      LUT2_D                      : 1
#      LUT3                        : 346
#      LUT3_D                      : 2
#      LUT4                        : 811
#      LUT4_D                      : 3
```

```
#      LUT4_L                    : 1
#      MUXCY                     : 369
#      MUXF5                     : 111
#      MUXF6                     : 1
#      OR2                       : 1
#      OR3                       : 1
#      VCC                       : 1
#      XORCY                     : 305
# FlipFlops/Latches              : 583
#      FD                        : 71
#      FDE                       : 69
#      FDR                       : 167
#      FDRE                      : 262
#      FDRS                      : 5
#      FDRSE                     : 1
#      FDS                       : 8
# RAMS                           : 20
#      RAM16X1D                  : 16
#      RAMB16_S4_S4              : 1
#      RAMB16_S9_S9              : 3
# Shift Registers                : 5
#      SRL16                     : 5
# Clock Buffers                  : 9
#      BUFG                      : 9
# IO Buffers                     : 36
#      IBUF                      : 13
#      IBUFG                     : 1
#      OBUF                      : 22
# DCMs                           : 2
#      DCM_SP                    : 2
# MULTs                          : 10
#      MULT18X18SIO              : 10
```

BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLA

INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOA: INDUSTRIA ELEKTRONIKA

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA

Anie - 4. Dokumentua: Eranskinak [ingurunea]

IKASLEAREN DATUAK	**ZUZENDARIAREN DATUAK**
	Koldo Basterretxea Oyarzabal koldo.basterretxea@ehu.es Teknologia Elektronikoa
SIN.: DATA: 2013ko apirilaren 12a	SIN.: DATA:

Gaien Aurkibidea

4A.
Pierre St. Martin

Produktu industrial eta teknologikoekin sinbiosian bizi garen heinean, energia elektromagnetikoa eta mekanikoa bihurtzen, moldatzen eta darabilten makinak edonon aurkitu ditzakegu; eta fidagarritasuna bermatzeko ezinbestekoa dugu makinek momenturo espero diren irteerak eta lan erregimenak mantentzea.

Helburu hori erdiesteko beharrekoak aztertzen dituen arloan (kontrola eta erregulazioa deritzona) makinari, berarekin elkar eragiteko irakurketa eta elikadura gailuekin batera, planta deritzo. Honek duen erantzun dinamikoaren arabera, agindutako balioak emateko behar duen denbora, egonkortu arteko tarte iragankorrean izango duen erantzuna, eta egoera egonkorrean izango duen zehaztasuna aldatu egingo dira. Erantzun hori ez du makinaren egiturak baldintzatuko soilik; fabrikazio prozedurek, denbora eta erabileraren erruz agertutako deribek, funtzionamendu erregimena edo kargaren aldaketa eta beste hainbat faktorek bultzatutako asaldurek erantzuna balio izendatutik eta teorikotik aldenduko dute.

Badaude egitura dela eta irteeran zehaztasuna beti mantentzen duten plantak, urratsez urratseko motorra esaterako. Horrek begizta irekian kontrol fidagarria izatea ahalbidetzen du, baina aldi berean, beste makina batzuekin aldaratuz, egituraren konplexutasunak mantenua garestitzen du. Hainbat aplikaziotarako, aldiz, nahiz eta funtzionamendu egonkorra izan, ez dugu begizta irekian fidagarria den makinarik. Azkenik, baditugu begizta irekian ezegonkorrak diren eta ondorioz kontrola ezinezkoa duten plantak, hala nola lebitadore magnetikoak. Azkeneko hauek egonkortzeko eta egonkorrak direnen erantzuna hobetzeko begizta itxiko sistemak erabiltzen dira. Sistema hauetan plantaren irteerak kontrol logika berrelikatzen du eta berau baliatuz kontrolagailuak erabiltzaileak eskatutako erreferentziarekiko diferentzia kalkulatu eta zerora bultzatzen du irteera aldatuz. Kontrolagailuaren egitura eta parametroek erantzun iragankor zein egonkorra baldintzatzen dute, aplikazioaren beharretara moldatuz.

Erregulazioa eta kontrola edonon aurkitu ditzakegu egun, ordenagailuen oinarri diren disko gogorrak birarazten dituzten motorretatik hasita eta elektrizitatearen banaketa kudeatzen duten instalazioak barne; garraioen abiadura finkatzaileak, edozein prozesu industrialeko zinta zein biltegien likido maila neurtzaileak, mota guztietako robotak eta bukaezina litzatekeen zerrenda gehitu dezakegularik.

Era berean, kalitatearen kudeaketan prozesuak berrikusi eta optimizatzeko ezinbestekoa dugu plantaren lan erregimena eta baldintzak ezagutzea (kontsumoa, esaterako). Datuak biltzeko erabiltzailearekin interfazeak izan behar ditu kontrol sistemak.

Ingeniari batek, beraz, zentzu batean zein bestean, inoiz halako sistema erabili beharko du: kontrolagailuaren egitura diseinatzea ez bada, planta aztertuz diseinurako baldintzak ezartzea, bere parametroak ezartzea edo integratua duen makinaren bat erabiltzean. Hamaika esparrutan ezinbestekoa izanik, teknikoak gerturatzeko kritikoa dugu erakargarria den ikasketa eta garapen ingurunea.

4Aa. Helburua eta hedadura

Azaldutakoekin bat, hau dugu proiektu honen helburu nagusia:

Hurbiltzeko bide ezberdinak jarraitu dituzten ingeniari eta teknikoentzat kontrol, erregulazio eta komunikazio esparruetan ikasketa eta garapenerako oinarrizko eta abstrakzio maila baxuan dokumentatutako ingurune praktiko, ireki eta askea sortzea.

4Aaa. Diseinurako baldintzak

Bigarren mailako helburu gisa jokatzen duten ezarritako diseinurako baldintzek helburua nagusia mugatzen dute:

- **Modularra:** planta aniztasuna eta ondorioz inplementatu daitezkeen sistemen arteko ezberdintasunak direla eta, aldaketetan denborarik ez galtzeko argi banatuta agertu behar dira atalak eta ahal den heinean elkarren arteko data fluxua mugatzea. Honek ere, ikasketa eta trebakuntzarako izanik, banakako aztertzea ahalbidetzen du, sistema osotasunean ezagutzeko beharrik gabe.
- **Real-time:** ezegonkorrak diren plantetan bereziki, kontrol begiztak egoera aldaketa guztiei erantzuna behar denean emango duela ziurtatu behar da. Hortaz, determinismoa azaltzen duen "benetako denbora" kontzeptuak ezarritako mugak bete behar ditu.
- **Txertatua:** lekua txikia eta energia iturriak murritzak diren esparruetan kontrola gauzatu behar denean, erabilitako baliabideek berebiziko garrantzia dute eta kontsumoak zeharo baldintzatzen du produktuaren bideragarritasuna. Erabilera zehatz bakoitzerako sistemaren egitura bereziki egokitzean, beharrezkoak diren baliabideak erabiltzen ditu, eta soilik beharrezkoak direnak.
- **Autonomoa:** beste edozein sistemarekin komunikazioa ziurra edo finkoa ez bada, ez da onargarria kontrol begizta gaitasunik gabe uztea. Beraz, isolaturik ibiltzeko eta erabiltzeko gai izan behar da.
- **Hiztuna:** behar izatekotan maila altuagoan ezarritako beste sistema batek, edo urrunean dagoenak, kontrol begiztaren egoera ikusi eta moldatzeko aukera txertatua izateak ezartzen dituen mugen osagarria da.
- **Erabilerraza eta argia:** doiketen arabera finkatutako egituraren funtzioak osatzeko deskribapenak parametrizatua izan behar du. Honek, trebakuntza denbora aurrezteaz gain, hardwarea sakonean ezagutzen ez duenari ere diseinuan moldaketa txikiak egiteko aukera ematen dio.

4Ab. Berezitasunak agindutako banaketa

Nafarroako iparraldean, Zuberoa, Frantzia eta Huescarekin mugan, bada Belagua izeneko Erronkariko Ibarraren bazterra. Mendian gora, Laskunerako[1] bidean, leize, haitzulo eta lurrazpiko hamaika ganbarek osatzen dute Pierre St. Martin sistema miresgarria. Mila hirurehun metro baino gehiagoko sakonera du (munduko sakonenetakoa), ehun kilometrotik gora batzen dituzte galerien luzerek. Espeleologian nahitaezko erreferentzia diren Haroun Tazieff, Marcel Loubens eta Norbert Casteret frantsesek, beste zenbaitekin, aurreko mendean bertan aurkitu zuten Europako ganbara handiena, 200x120 metro inguruko azalera duena eta sabaia 100 metroko altuerara.

Azalaren gainean, era berean ikaragarria den Larrako *karst*a[2], txundigarri bezain beldurgarria. Erdian, lur azpia non hasten den itxuragabetzen duen kaosak inguraturik, Anie mendia (2507m); nahiz eta mugetatik at egon, euskaldunontzat, sakratutzat jo izan dugun heinean, badu izen berezia: Auñamendi, toponimiak aginduta *ahuntzen mendia*. Hego-mendebaldean, kilometro eskas batera, nahiko zabalagoa den eta garaiera galtzen duen Añelarra (2357m) dugu nafarren mugaren adierazgarri.

Pierre St. Martinetik abiatuta Aunñamendira zein Añelarrara norabidean, urrunetik *karst*ean zeharreko bidea igartzeko ikuspuntu bikaina ematen du Arlas[3] (2044m) tontorrak.

[1] Franstsesez eta ofizialki *Lescun*

[2] *Kareharrizko goi ordokia* esan nahi duen Alemanaren mailegua dugu, jatorria Italia-Eslovenia inguruko *Carso/Kras* eskualdean duena.

[3] Ipar euskal herrietako mendirik garaiena eta euskal herri guztietan hirugarrena.

Sinbiosia gogora, antagonismoaren aldarrikapenean banaketa geologikoarekin analogia eginez, garatu nahi den *Pierre St. Martin* ikasketa eta garapenerako inguruneak kontzeptualki lau atal nagusi ditu, bakoitzak proiektu bana osatzen duelarik, besteekin lotutakoa baina independentea. Zenbaki eta hitzak ulertzen dituzten ezizenen banaketa ezagutza esparruaren arabera egin da, nahiz eta ingeniari baten heziketan nahastea maiz ezinbestekoa izan.

- **Anie** → hardware garapena

  Kontrol begizta osatzen duten gailuak identifikatu, modelatu, garatu, deskribatu, doitu, batu eta praktikan kontrola gauzatzea.

- **Añelarra** → kontrol sistema aurreratuak

  Hardware eta softwarea aldi berean diseinatuz (*hard-soft co-design*) kontrol begiztaren baldintza teknikoak hobetzea.

- **Arlas** → informatika aplikazioak

  Urruneko gailu baten bitartez kontrol begiztaren informazioa jasotzeko xedez, edo honen funtzionamendua kudeatzeko, software aplikazioaren garapena.

- **Larra** → (tele)komunikazioak

  Anie, Añelarrak eta Arlasek elkarren artean komunikatzeko protokoloa eta bakoitzean integratzeko argibideak.

Badago lotura bistaratzen duen zeharkako bosgarren proiektu bat, informazioaren sostenguak baldintzatzen dituenak. Ezagutzak hedatzeko bidea behar duela sinetsiz, eta nahi baino gehiagotan bide horretan hainbat dirusari ordaintzeko beharra edo bereziki ezarritako oztopoak aurkitu izanagatik, *Pierre St. Martin* inguruneari dagozkion dokumentazio eta iturri guztiak, ahal den heinean, estandarrak diren

formatuetan gordeko dira, ez denboraren poderioz hedatuenetan. Besteak beste, eskuartean duzun dokumentua egiteko LaTeX[4] baliatuz Bilboko IITUEen Karrera Amaierako Proiektuak aurkezteko jarraitu beharreko maketazio argibideak betetzen dituen txantiloia egin da.[5].

4Ac. Aurrekariak

Karrera Amaierako Proiektua izanik, ezinbestean azken urteotan hainbat esparrutan jorratutakoak, eta guztietan ikasitakoa, biltzen ditu honek. Horrenbesteren adierazgarri sintetikoa denez, zenbaitekin zuzeneko lotura argiak ditu. Hona hemen *Pierre St. Martin* eta *Anie* proiektuen bidea eraiki dutenetan jatorri adierazgarrienak:

2005 - Vumeter / LCD / ReoBus

MODPC.com orrialde eta taldeko kideen argibideak jarraituz (*Nahiko* izeneko erabiltzailearenak bereziki), beste zenbait orrialdetan[6] aurkitutakoak oinarri, eta Ikastolako Teknologia irakasleak eta eskolazainak emandako material eta erraztasunei eskerrak, eskuz egindako insoladorarekin ordenagailua ikuskatu eta kudeatzeko plaka diseinatu, egin eta muntatzea. Disko gogorraren jarduera adierazteko *LM3914* ZIak agindutako 20 LED, LPT ataka medio informazioa aurkezteko *Nokia 3310* sakelakoaren pantaila, eta haizagailu eta argiak kudeatzeko kommutadore eta erresistentzia aldakorretan oinarritutako zirkuitua biltzen dituena [2].

Trebakuntzak:

- Araututako hezkuntzak ikusi ez baina ahalbidetzen dituen zeharkako aukerei onura ateratzea.
- Zirkuitu analogiko, digital eta mistoei lehen hurreratzea.
- Zirkuitu elektronikoak egiteko diseinu, fabrikazio eta muntaketa prozedura ezagutzea.

2008 - ZT Praktiketako Kalkuluak (ZTPK)

*Diego Cano Lagneaux*en laguntzarekin eta *Informatikaren Oinarriak* ikasgaian jorratutakoetan sakontzeko, *C* lengoaian eta interfaze grafikorako *curses* liburutegia baliatuz idatzitako programa[7], *Zirkuituen Teoria* ikasgaiko praktiketan ikusitako saiakuntzen emaitzekin burutu beharreko kalkuluak egiten dituena.

Trebakuntzak:

- Software garapenerako *sourceforge* plataforman gordetako bertsio kontrol sistema erabiltzea.
- Programazio modularra eta funtzioen banaketa.
- Funtzio zehatzak burutzeko liburutegiak bilatu eta erabiltzea.
- Interfaze grafikoa eta menuak garatzea.

[4] http://itsas.ehu.es/workgroups/latex

[5] 4B. eranskinean ITSASeko web gunean LaTeX lan taldearen *Euskaraz* atalean eskuragarri dagoen txantiloiaren txostena aurkitu daiteke.

[6] eurobotics.org, pcpaudio.com, hardcore-modding.com, shilmar.com eta maxoverclocking.com

[7] ztpk.sourceforge.net

2009 - Ordenagailu Haizagailuak Kontrolatu eta Ikusteko Sistema (OHKIS)

Eragingailu Logiko Programagarriak Dituzten Sistema Digitalak ikasgaian 2008-2009 ikasturtean *Aitor Martin*ekin batera garatutako proiektua: Spartan3E Starter Kit txartela erabilita lau ordenagailu haizagailu LCD eta VGA bitartez ikuskatu eta begizta irekian PWM irteerak ezartzea [3][8].

Trebakuntzak:

- Sistema digitalak VHDL bitartez deskribatzea.
- FPGAk VHDL bitartez konfiguratzea.
- *Spartan3E Starter Kit* txartela erabiltzea.

*Anie*ren hainbat osagai, hala nola, LCD, VGA, pultsadoreak, etab. kudeatzeko logiken VHDL deskribapenak bertatik hartu dira, berritu eta garbitua.

2010 - ohkis-gtk

*Diego Cano Lagneaux*en laguntzarekin, *OHKIS*en baldintza teknikoak oinarritzat hartuta *Ruby* lengoaian idatzitako programa[9], *gtk+* liburutegiarekin egindako eta bereizitako interfaze grafikoa duena eta datuak irudikatzeko *gnuplot* erabiltzen duena.

Trebakuntzak:

- Objektuetara zuzendutako programazioari lehen hurreratzea.
- Bereizitako fitxategietan deskribatutako interfazeak erabiltzea.
- Programa ezberdinen exekuzioa koordinatzea.

Hau dugu *Arlas*en kontzeptuzko oinarria.

2010 - Bicicleta μControlador (BμC)

2009-2010 ikasturtean *Ferrol*eko *EUP*en egindako *Informática Industrial* ikasgaian *Borja Iglesias Rozas*ekin batera garatutako proiektua: LCD eta teklatu matriziala baliatuz bizikleta baten funtzionamendua ikusteko *C517A* mikrokontrolagailuan oinarritutako eta *C* lengoaian idatzitako sistema [45].

Trebakuntzak:

- Mikrokontrolagailuen arkitektura eta *C* lengoaian programatzea.
- Gailu berdina kudeatzeko C eta VHDL lengoaien eta dagozkien sistemen konparaketa.
- Komentatutako kodea erabiliz *doxygen*ekin dokumentatzea.

2011 - Acher

Ordenadore Pertsonalaren Erabilera Paneleko Instrumentazioan ikasgaian 2010-2011 ikasturtean garatutako serie komunikazio bitartez LED matrizea kudeatzeko sistema [46]. *EHUko Software Libre Talde*ko[10] LaTeXeko lan taldean bildutakoei esker, *Bulego Teknikoa* ikasgaian izen bereko lana prestatu nuen,

[8] *Aitor Martin*ek ikasturte berean izen bereko Karrera Amaierako Proiektua [44] defendatu zuen.
[9] sourceforge.net/p/ohkis/code/HEAD/tree/ohkis/ohkis_gtk
[10] itsas.ehu.es

proiektuak aurkezteko argibideak jarraituz [47].

Trebakuntzak:

- *C* lengoaian arkitektura ezberdina eta dagozkion tresna berriak erabiltzea.
- Zirkuitu mistoa garatzea eta muntatzea.
- Ordenagailu eta sistema digital independentea komunikatzea.
- LaTeX bidez proiektuak aurkezteko txantiloia.

Hau dugu *Larra*ren kontzeptuzko oinarria. Aldi berean, txantiloi horren hobekuntza da dokumentu honetan erabilitakoa.

2012 - Control de velocidad de un motor CC: NI Labview

Sistemas Digitales en la Medida y Control de Procesos Industriales ikasgaian 2011-2012 ikasturtean *Luis Ranero Santisteban* eta *Iñigo Sarramian Olmos*ekin batera egindako lana: *National Instruments*en *Labview* softwarea baliatuz benetako denboran lan egiten duen PID kontrolagailuan oinarritutako begizta osatu eta 6*v*ko motorra PWM bitartez kudeatzea [4].

Trebakuntzak:

- Ordenagailuan *DAQ*an oinarritutako *real-time* kontrol begizta osatzea.
- *encoder* inkrementala eta *H-zubia* erabiltzea.

4B.

Karrera Amaierako Proiektuak idazteko txantiloia

2007 urtean zehar *Iñaki Silanes*ek, **U**niversidad del **P**aís **V**asco / **E**uskal **H**erriko **U**nibertsitateko[11] **ITSAS** Software Libre Taldeko kideak, LaTeX eta *OpenDocument* formatuetan Unibertsitatean gaztelaraz, euskaraz zein ingelesez Karrera Amaierako Proiektuak zein Doktorego Tesiak aurkezteko txantiloiak eskaintzeko helburuarekin *Plantillas para Proyecto de Fin de Carrera* lan taldea[12] osatu zuen.

2010 urtean *Digna González* eta *Unai Martinez*ek lan talde berrian[13] *Iñaki Silanes*en lana *LaTeX* erabiltzeko hainbat argibide, erreferentzia, aurkezpen eta abarrekin bateratu zuten eta material bera baliatuz zenbait ikastaro eman.

Idazleak, **Bi**lboko **I**ndustria **I**ngeniaritza **T**eknikoko **U**nibertsitate **E**skolan[14] Karrera Amaierako Proiektua euskaraz idazteko orduan eskuragarri zeuden txantiloiek premia[15] guztiak asetzen ez zituztenez, aipatutako lan taldeetan bildutakoak oinarri, eskuartean duzun txantiloi berria egin du. 4B.1. taulak *Iñaki Silanes*ek eskainitakoekiko ezberdintasun nagusiak biltzen ditu.

	Hizkuntza	**Formatua**	**Klasea**	
Iñaki Silanes	EU ES EN	LaTeX OpenDocument	*itsas_pfc.cls*	*book* oinarri
Unai Martinez	EU	LaTeX	*report*	*config* fitxategietan moldatuta

4B.1. Taula: Iñaki Silanes*en txantiloiekin konparaketa.*

Horietaz gain, hurrengo berrikuntzak ditu honek:

- Kapitulu, atal, azpiatal, azpiazpiatal, irudi eta taulak zenbakitu eta izendatzean zenbakia azaltzen da lehenengo, puntu ordinala ondoren eta hitza azkenik.
- *babel*ek *basque* aukeratzean ezatzen duen data komandoaren ordez *gaur* sortu da.
- *Kapitulu*en izen gisa *Dokumentu* ezarri da.
- BI-IITUEko web gunean soilik DOC formatuan eskuragarri dauden txantiloiak erabili dira *Kapitulu/Dokumentu*en portadak diseinatzeko.
- Atalen goiburuak aldatu dira.
- Ikurren Zerrenda gehitu da.
- BI-IITUEko arautegiak eskatu bezala, *UNE 157001-2002* araua erreferentzia izanik banatu da edukia. Hala ere, txantiloi honek ez du araua betetzen. Karrera Amaierako Proiektuen helburu nagusia hezkuntza eta ikastea izanik, edukia aurkitzea eta dokumentuen banakako azterketa errazteko diseinuan zenbait erabaki ezberdin hartu dira:

[11] www.ehu.es
[12] itsas.ehu.es/workgroups/plantillas_proyecto_fin_de_carrera
[13] itsas.ehu.es/workgroups/latex
[14] www.industria-ingeniaritza-tekniko-bilbao.ehu.es
[15] www.industria-ingeniaritza-tekniko-bilbao.ehu.es/p229-content/eu/contenidos/normativa/euiti_bi_pfc/eu_nor_gral/normativa_gral_fin_carrera.html

- Dokumentuen ordena aldatu da eta zenbait ezabatu.
- Portadak ez daude zenbakituta.
- Orrialde, irudi, taula eta ekuazioen zenbakitzea kapitulu bakoitzean berrabiatzen da.
- Zenbakitzea 0an hasten da.
- Aurkibideen orrialdeak zenbaki erromatarrez daude adierazita.
- Eranskinen dokumentuan atalak alfabetoz izendatzen dira.
- Goiburu eta orri oinen edukiak tokiz aldatuta daude eta dokumentu, atal zein azpiatalen arabera berritzen dira.

Hau dela eta, araua betetzeko *config* karpetako fitxategietan moldaketak egin behar ditu txantiloiaren erabiltzaileak.

Emaitza zuzena izan dadin hainbat aldiz konpilatu behar da lana, hurrengo ordena jarraituz:

PDFLaTeX + BibTeX + PDFLaTeX + PDFLaTeX

Atal eta azpiataletan aldaketa asko egitean, tarteko fitxategiak edo fitxategi laguntzaileak (*.aux*, *.mtc*, *.mlf*, *.mlt*, etab.) ezabatzea komeni da, aurreko katea exekutatu baino lehen.

4Ba. Txantiloia osatzen duten fitxategiak

Txantiloia osatzen duten fitxategien egitura azaltzen da atal honetan, kokatzeko ezinbestekoak direnak adieraziz. Azterketa zehatzagorako ikus 4Bb. atala edo jo aitorpenetan adierazitako iturrietara.

main.tex
Txantiloriaren fitxategi nagusia, *document* deklaratu eta beste guztiak kargatzen dituena.

dedicatory.tex
Memoriaren portadaren hurrengo orrialde hutsean adierazten den eskaintza.

intro.tex
Memoriaren lehenengo atalaren edukia, *Sarrera*.

license.tex
Memoriaren bigarren atalaren edukia, *Lizentzia eta aitorpenak*.

state.tex
Memoriaren hirugarren atalaren edukia, *Teknikaren egoera*.

sty_titlepg.tex
Portada nagusiaren edukia.

sty_head.tex
Portada guztien goiburuaren diseinua.

sty_who.tex
Portada guztien oinaren diseinua.

symbols.tex
*Ikurren Zerrenda*ren edukia.

bibliography.bib
Erreferentzia bibliografikoak *BibTeX*en arabera.

images/

logo.png
Portada nagusian erdian agertzen den logoa.

ehu.png
Portaden goiburuan ezkerrean agertzen den logoa.

euiti.png
Portaden goiburuan eskuinean agertzen den logoa.

ychart.tikz
Ereduzko Y-grafikoa TikZ bitartez deskribatua.

config/

config.tex
Konfigurazio fitxategi nagusia, kargatzen denean lehena eta pakete guztiak kargatzeaz gain hainbat komando (ber)ezartzen dituena.

config_basque.tex
Nahiz eta *babel* paketea erabili, euskaraz hainbat gauza formatu egokian adierazi daitezen moldaketak.

config_hdr.tex
Portaden atzeko planoko diseinua (laukizuzena) eta atalaren arabera goiburu eta oinen edukia moldatzea.

config_index.tex
minitoc paketeak eskainitako funtzioetan oinarrituta *DOtls* eta *DOmtls* komandoak sortzea eta aurkibideen marjinak doitzea.

config_titles.tex
Kapitulu, atal eta azpiatalak aldatzean izenburu berriak eskuratu eta aldagai ezagunetan gordetzea.

secta/

secta_main.tex
Ereduzko atal baten fitxategi nagusia.

images/

mod_closedloop.tikz
Ereduzko irudi bat.

mod_cont_lum.tikz
Ereduzko irudia ekuazio batekin batera.

s3etiny_lcd.tikz
Beste irudi bat.

sectb/

sectb_main.tex
Ereduzko beste atal baten fitxategi nagusia

sectb_first.tex
Atalaren lehenengo edukiak dituen fitxategia.

sectb_last.tex
Atalaren azkeneko edukiak dituen fitxategia.

anie_vhdl_sat.vhd
listings paketea baliatuz aurkeztutako ereduzko VHDL kodea.

anie_vhdl_pid.vhd
listings paketea baliatuz aurkeztutako ereduzko VHDL kodea.

images/

mod_box.tikz
Ereduzko irudia TikZ eta kolore ezberdinak erabilita.

vhdl_sat.tikz
Beste bat.

anie_pwm.tikz
Beste bat (PWM sortzailea).

anie_hbridge.tikz
Beste bat (FSM).

measures/

measures_main.tex
Neurketa eta kalkuluak dokumentuaren fitxategi nagusia.

att/

att_main.tex
Eranskinak dokumentuaren fitxategi nagusia.

atta.tex
Lehenengo eranskinaren edukia.

attb.tex
Bigarren eranskinaren edukia.

attc.vhd
Hirugarren eranskinaren edukia.

m/
Hirugarren eranskinaren iturriak, *Matlab script*ak.

tune.m

save_bw.m

save_step.m

save_ts.m

cond/

cond_main.tex
Baldintzen agiria dokumentuko fitxategi nagusia.

cond_adm.tex
Baldintza administratiboak atalaren edukia.

cond_tec.vhd
Baldintza teknikoak atalaren edukia.

cond_eco.vhd
Baldintza ekonomikoak atalaren edukia.

cond_comp.tex
Osagaiak eta ezaugarriak atalaren edukia.

4Bb. Txantiloiaren oinarrizko erabilera

Txantiloiaren erabilera zuzena da, hau da, dauden fitxategietan edukia beste edozein LaTeX dokumentutan egin bezala idaztearekin nahikoa dugu. Erabilitako paketeek ezarri litzaketen mugak izan behar ditugu kontuan, eta berriren bat kargatzekotan ordenari erreparatu behar diogu.

Bete beharreko baldintza bakarra dago: goiburuetan azpiatalak ondo adierazi daitezen *titlesubsection* erabili behar da *subsection* ordez[16].

Kodea garbi mantendu eta itxurari dagozkionak ahal den heinean banaturik mantentzeko hainbat fitxategi daude *config* karpetan eta *main.tex* fitxategian zenbait komando berri agertzen dira. Jarraian hauek azalduko dira, kapitulu zein atalak moldatu, gehitu zein kentzeko prozedura adierazteko.

main.tex

```
\documentclass[a4paper,titlepage,10pt,oneside]{report}
```

report klasea dugu oinarri, alde bakarrekoa, DIN A4 formatuarekin. *article* erabili nahi izatekotan, *minitoc* paketeari dagozkion *(do)minitoc*, *(do)minilof* eta *(do)minilot* aginduen kudeaketa aldatu beharko litzateke (ikus *config.tex* eta *config_index.tex*), paketearen dokumentazioan adierazitakoen arabera. Pakete hori erabiltzen ez bada, aldaketa zuzena da.

Orriaren tamainari dagokionez, aldatzekotan kapitulu eta atalen orrietan distantziak berrikusi beharko lirateke (ikus *config_titles.tex*). Letraren tamaina aldatzean ere baliteke aldaketa txikiak somatzea.

```
\usepackage{import}
\inputfrom{./config/}{config.tex}
```

Azpikarpetatan dauden fitxategiak kargatu eta hauetan kokapen erlatiboak erabili ahal izateko *import* paketea kargatu da lehenik, eta honekin *config* karpeta barruko konfigurazio fitxategi nagusia.

```
\begin{document}

\DOpresetDOtitlepg
```

Dokumentua hasi eta berehala *config.tex* fitxategian definituta dagoen *DOpresetDOtitlepg* komandoak euskaraz aurkezpena zuzenena izan dadin beharreko komandoak exekutatzen ditu, zenbakitzearen eta gaien aurkibidearen sakontasuna ezartzen ditu, kapituluen zenbakitzea zeroan abiarazten du, *minitoc*ek eskatutakoak exekutatzen ditu, portada aurkezten du eta orrialde berri batean hasteko prestatzen du dokumentua.

[16] *GNU/Linux*en *grep* erabilita zuzenean egin dezagu bihurketa.

```
\chapter{Aurkibide orokorra} \DOtls
```

Lehenengo kapitulua, zerogarrena, *Aurkibide orokorra* dugu. *config_index.tex* fitxategian definitutako *DOtls* komandoak orrien zenbakitzea erromatarrera aldatu eta *tableofcontents*, *listoffigures* eta *listoftables* exekutatzen ditu. Sekzio bezala gehitzen ditu aurkibidera, eta baten batek orri bat baino gehiago izatekotan goiburuak bat etor daitezen ezartzen ditu. Azkenik, berriz ere aldatzen du orrien zenbakitzea arabiarrera eta 1 balioa esleitzen dio.

```
\chapter{Memoria}
\pagestyle{empty}\input{dedicatory}\pagestyle{body}
\DOmtls{\DOmtoc\DOmlof\DOmlot\DOmlos}
```

Memoriaren hasiera adierazi eta berehala, goiburu eta oinik ez dituen estiloa ezartzen da eskaintza aurkezteko, *config_hdr.tex* fitxategian definitutako eta orokorrean erabiliko den *body* estilora bueltatu baino lehen.

DOmtls komandoak, *DOtls*ek egin antzera zenbakitzea eta goiburuak moldatuz, kapituluko gaien aurkibidea (*DOmtoc*), irudien zerrenda (*DOmlof*), taulen zerrenda (*DOmlot*) edota ikurren zerrenda (*DOmlos*) aurkezten ditu. Lehenengo hirurak sortzeko *minitoc* paketeak eskainitakoak erabiltzen diren bitartean, ikurren zerrendak zuzenean *symbols.tex* fitxategiko edukia kargatzen du.

```
\include{intro}
\include{license}\label{lic}
\include{state}
```

Memoriaren atalak dituzten fitxategiak zuzenean *include* edo *input* bitartez kargatzen dira. Lehenengoa *main.tex* fitxategian baino ezin daiteke erabili, beste fitxategi guztietan *input* erabiltzen da.

```
\subincludefrom{./secta/}{secta_main}
\subincludefrom{./sectb/}{sectb_main}
```

Hainbat fitxategi dituzten atalak karpeta banatuetan gordetzen dira eta *main.tex*en fitxategi bakarra kargatzen da. Honek atal aldaketa txikiak eginez horiek banatu eta bakarrik konpilatzea ahalbidetzen du, eta egitura aldatu barik hainbat atal gehitzea.

```
\chapter{Neurketak eta kalkuluak} \DOmtls{\DOmtoc}
\subincludefrom{./measures/}{measures_main}

\chapter{Eranskinak} \DOmtls{\DOmtoc}
\attref
\subincludefrom{./att/}{att_main}
\ordref

\chapter{Baldintzen agiria} \DOmtls{\DOmtoc}
\subincludefrom{./cond/}{cond_main}

\chapter{Aurrekontua}
```

Azaldutako tresna berdinak erabilita kargatzen dira hurrengo kapituluak. Ikus daitekeenez hauetan gaien aurkibidea aurkezten da soilik. *Eranskinak* dokumentuaren edukia kargatu baino lehen adierazitako *attref* komandoak atalen zenbakitzea alfabetora aldatzen du (ikus *config_index.tex*). Dokumentuaren bukaeran berriz ere bueltatzen da hasierako aurreko konfiguraziora (*ordref*, ikus *config_basque.tex*).

```
\nocite{*}
\chapter{Bibliografia}
\bibliographystyle{ieeetr}
\fancyhead[L]{\slshape \nouppercase{\bibname}}
\bibliography{bibliography}
```

Erreferentzia guztiak (estekatutakoak eta estekatu gabekoak) aurkezteko *nocite** deitu ostean, *Bibliografia* kapitulua hasi, estiloa aukeratu, orrialde bat baino gehiago izatekotan itxura egokia aurkezteko goiburua moldatu eta *bibligraphy.bib* fitxategia kargatzen du.

```
\end{document}
```

config/config.tex

```
\usepackage[utf8]{inputenc}
```

Karaktereen kodeketa adierazteko.

```
\usepackage[spanish,basque]{babel}
\selectlanguage{basque}
```

Tituluak batez ere, eta beste hainbat aukera, lokalizatzeko. Gaztelera kargatzen da izen propioak erabiltzean $\tilde{n}$ eta azentu-markekin arazorik ez izateko.

```
\usepackage[left=3.5cm, right=1.5cm, top=2.5cm, bottom=2.5cm]{geometry}
```

Normak adierazitako marjinak ezartzeko.

```
\usepackage{graphicx}
```

Irudiak txertatzeko.

```
\usepackage[numbers]{natbib}
```

Erreferentzia bibliografikoak testuan adieraztean *[X]* itxuraz adierazi daitezen.

```
\usepackage[font=scriptsize,format=plain,labelfont=bf,textfont=it,
            justification=centerlast]{caption}
```

Irudi eta taulen oinen itxura moldatzeko.

```
\usepackage{indentfirst}
```

babel paketeak gazteleraz paragrafo bakoitzaren lehenengo lerroari ezkerreko marjina handiagoa jartzen dio, baina euskaraz ez. Honek egitera bortxatzen du, baina kontuz ibili beharko dugu irudiak eta taulak erdiratzerakoan.

```
\usepackage{multirow}
```

Tauletan zutabe edo lerro anitz hartzen dituzten gelaxkak erabiltzeko.

```
\usepackage{eurofont}
```

€ sinboloa erabiltzeko.

```
\usepackage[usenames,dvipsnames]{xcolor}
\colorlet{urlcolor}{purple!65!black}
\colorlet{ilcolor}{violet!65!black}
```

Esteketan, irudietan eta grafikoetan koloreak definitzeko aukera ugari izateko.

```
\usepackage{listings}
\lstset{
language=VHDL,
basicstyle=\color{Blue}\footnotesize\ttfamily,
commentstyle=\color{CadetBlue},
stringstyle=,
identifierstyle=\color{Black},
backgroundcolor=\color{black!10!white},
columns=fixed,
extendedchars=true,
breaklines=true,
numbers=none
}
```

Lengoaia ezberdinetan idatzitako kodea dokumentuan txertatzeko. Eredu gisa erabili den VHDL kodea aurkezteko ausazko aurkezpenaren hautaketa.

```
\usepackage{tikz,pgfplots}
\usetikzlibrary{shapes,arrows}
\usepackage{tikz-timing}
```

Irudiak, grafikoak eta kronogramak egiteko.

```
\usepackage[hyphens]{url}
\usepackage[
```

```
 bookmarks=true,
 unicode=true,
 pdftitle={Karrera Amaierako Proiektuak idazteko LaTeX txantiloia},
 pdfsubject={},
 pdfauthor={Unai Martinez Corral},
 linktoc=all,
 colorlinks=true,
 linkcolor=ilcolor,
 urlcolor=urlcolor,
 citecolor=Blue,
 plainpages=false,
]{hyperref}
```

Dokumentuko erreferentziak estekatzeko eta irteerako PDF fitxategiaren propietateak ezartzeko.

```
\parskip=2mm
```

Paragrafoen arteko tartea ezartzea.

```
\usepackage{amsmath}
\numberwithin{figure}{chapter}
\numberwithin{table}{chapter}
\numberwithin{equation}{chapter}
```

Irudi, taula eta ekuazioen zenbakitzea kapitulu bakoitzean berrabiatzeko.

```
\usepackage{etoolbox}
```

Komandoei dei egitean exekutatu baino lehen bitarteko ekintzak burutzeko.

```
\input{config_titles}
\input{config_hdr}
\input{config_basque}
\input{config_index}
```

Funtzio zehatzen konfigurazioa: portadak eta atalek goiburuak, bestelako goiburu eta oinak, euskaraz erabiltzeko hobekuntzak eta aurkibideak aurkeztea.

```
\usepackage[basque,loose]{minitoc}
%\usepackage{mtcoff}
\setcounter{minitocdepth}{4}
\setlength{\mtcindent}{0pt}
\renewcommand{\mtcfont}{\small\rm}
\renewcommand{\mtcSfont}{\small\bf}
\nomtcrule \nomlfrule \nomltrule
```

Kapitulu bakoitzean aurkibideak eta zerrendak aurkeztea ahalbidetzen duen paketea kargatzea eta hainbat parametro ezartzea. Hauen artean garrantzitsuena *setcounterminitocdepth* dugu, aurkibideek aurkeztuko duten sakontasuna adierazten baitu: 0-kapitulua, 1-atala, 2-azpiatala, 3-azpiazpiatala edo 4-paragrafoa. Besteek letra mota ezartzen dute eta zerrenden inguruko lerroak ezabatzen dituzte.

```
\newcommand{\DOpresetDOtitlepg}{
\ordref
\setcounter{secnumdepth}{3}
\setcounter{tocdepth}{1}
\addtocounter{chapter}{-1}
\dominitoc[e]
\dominilof[e]
\dominilot[e]
\input{sty_titlepg}
\clearpage\pagestyle{body}
}
```

Dokumentua hasi eta berehala *config_basque.tex* fitxategian definitutako *ordref* komandoak euskaraz elementuen izenak ondo adierazi daitezen moldaketak burutzen ditu.

Atalak zenbakitzeko erabiliko den sakontasuna adierazten da ondoren (3-azpiazpiatala), eta aurkibide nagusiak aurkeztuko duena (1-atala). Kapituluen zenbakitzea zeroan hasteko izendatuari bat kentzen zaio.

*minitoc*ek eskatutako komandoak adierazten dira, izenbururik gabe aurkezteko parametroarekin (*[e]*). *config_index.tex* fitxategian ikus daitekeenez izenburuak banaturik sortzen dira, lan osoaren estiloa mantentzeko.

Portada aurkezten da azkenik, eta berehala orrialde huts berri batean estilo orokorra ezarri.

4Bc. Lizentzia eta aitorpenak

Txantiloi hau hurrengo lizentziaren arabera eskaintzen da:

Creative Commons Attribution-ShareAlike 3.0 (CC BY-SA 3.0)

- Egin ditzakezunak:

  Banatzea Kopiatu, banatu eta hedatzea

  Moldatzea Lana egokitzea eta eratorriak egitea

  Merkataritza helburuekin erabiltzea

- Hurrengoak bete bitartean:

  Aitortzea Lanaren iturria aitortu behar da, *Unai Martinez Corral* eta *ITSAS*i erreferentzia eginez, eta `itsas.ehu.es/workgroups/latex` orrialdea aipatuz (baina lan eratorriek edo lanaren erabilerek hauen babesa dutela adierazi barik).

Berdin partekatzea Lan hau moldatu edo egokituz gero, edo lan eratorririk sortzekotan, egindakoa banatzeko honetan erabilitako lizentzia berdina erabili behar da.

creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/legalcode.eu

